“Azken arau-aldaketa: 2024/01/01”

# Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2009 FORU DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia onesten duena (BAO Uztailaren 30ekoa)

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrak Foru Aldundiko zerga sistemaren printzipio eta arau juridiko orokorrak ezarri ditu, eta Bizkaiko Foru Aldundiari ahalmena eman dio hura garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Ahalmen horretaz baliatuta, Foru Aldundiak ondokoak onetsi ditu: hasiera batean, aipatutako foru araua gauzatzeko xedapen ezberdinak; ekainaren 21eko 99/2005 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Ikuskapenaren Araudia onetsi duena; ekainaren 21eko 100/2005 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen arloko zehapen-araudia onetsi duena; ekainaren 21eko 101/2005 Foru Dekretua, zergei buruzko kontsulta idatzien eta zerga-ordainketako aurretiazko proposamenen prozedurak eta itzurpenaren aurkako klausula garatu dituena; abenduaren 27ko 215/2005 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Araudia onetsi duena; abenduaren 27ko 228/2005 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra administrazio bidezko berrikuspenaren arloan garatzeko Araudia onetsi duena.

Orain dela denbora gutxiago, eta foru erakundeen sistematizazio borondatea betez, Bizkaiko Lurralde Historikoaren betebehar formalak arautzen dituen Araudia onetsi da. Haren ezaugarri nagusia da testu bakar batean bateratzen dituela oso gai ezberdinak zatika arautzen zituzten arau ezberdin eta jarraikakoak. Gai hain ezberdinen artean identifikazio fiskaleko zenbakia, zerga zentsuei buruzko informazioa edo aldizkako aitorpenen bitartez exijitzen den izaera orokorreko informazio betebeharra zeuden, eta azpimarratzekoa da hirugarren pertsonekin burututako eragiketei buruzkoak.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorra garatzeko arau sorta osatzeko, beharrezkoa da zerga kudeaketako prozedurei buruzko arauak bilduko dituen Araudia onestea.

I. Tituluak Araudiaren ezarpen eremua arautzen du, eta ezarri egiten da hark zerga kudeaketako jardun eta prozedurak arautuko dituela eta ordezko modura aplikatuko dela zergen arloko ikuskapen, diru-bilketa eta zehapen prozeduretan.

Zergen kudeaketari buruzko printzipio eta xedapen orokorrak Araudiko II. Tituluan jaso dira, bertan kudeaketa organoak eta haien eskumenak, informazio hornidura eta lagapena edo haren berri ematea, eta zergen kudeaketaren printzipio orokorrak bilduz.

Informazioa hornitzeari dagokionez, azpimarratzekoa da II. Titulu horretako II. eta III. Kapituluetan egindako sistematizazioa. Horrela, argi eta garbi bereizten dira Administrazioari informazioa hornitzeko kasuak eta hirugarren batzuei zerga eragina izateagatik garrantzitsuak diren datuak laga edo haien berri emateko kasuak. Ondorioz, kasu horietan aintzat hartu beharreko bermeak ezartzen dira, eta baita horien eraginak ere.

IV. Kapituluaren xedea, lehenik eta behin, zergadunen informazioa eta haientzako laguntza garatzea da. Bertan, zerga informazioko jardunak, higiezinak erosi aurretik eman daitekeen informazioa, zerga ziurtagiriak egitea eta zerga laguntzako jardunak sartzen dira. Bigarrenik, gizarte lankidetza garatzen da zergak aplikatzerakoan, eta, azkenik, baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera finkatzen da zergen kudeaketan.

Araudiko III. Tituluak Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren III. Tituluko II. Kapitulua garatzen du, hain zuzen ere zerga jardun eta prozeduren arau komunei buruzkoa. Horretarako, aipatutako zergei buruzko foru arau orokor horretako 95. artikuluan ezarritako iturrien sistematik abiatuz, arautu egingo dira zerga prozeduren espezialitateak Herri Administrazioen Araubide

Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeari eta hura garatzeko araudiari dagokienez, prozeduren hasiera, izapidetze eta amaitze faseen arloan. Halaber, III. Titulu zabal honen barruan, zerga jakinarazpenak eta zerga itzulketak bezain heterogeneoak diren gaiak arautuko dira.

Azkenik, IV. Tituluak zerga kudeaketako jardun eta prozedurak garatzen ditu. Horrela, I. Kapituluan, hurrengoak arautuko ditu: aitorpenen aurkezpena, autolikidazioak eta itzulketa eskabideak nahiz itzulketa aitorpen eta eskabide osagarriak eta ordezkoak eta autolikidazio osagarriak.

IV. Titulu horretako II. Kapituluak Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 120. artikuluan araututako zerga kudeaketako prozedurak garatzen ditu, eskaera izaera duten zerga onurak onartzeko prozedura salbu, izan ere, azken hori arautze berriko kudeaketa prozedura da eta artikulu horretako 2. idatz-zatiaren babesean dago.

Lehenengo kudeaketa prozedura autolikidazioaren bitartez hasten dena da, eta araudi honetan Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritako forma alderdiak osatuko dira.

Bigarren prozedurari dagokionez, autolikidazioak, aitorpenak eta itzulketa eskabideak zuzentzekoa, haren zuzeneko jatorria Tributuzkoak diren zor-eztako sarreren itzulketak egiteko prozedura araupetzen duen abenduaren 4ko 145/1990 Foru Dekretuan dago. Bertan, bereizi egiten zen diru-sarrera desegokia zekarren zuzenketa, diru-sarrera desegokia ekarri gabe zergadunaren interesak kaltetu zituen autolikidaziotik.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak, 118. artikuluan, bateratu egin ditu bi prozedura horiek, eta aplikagarri gisa ezarri du autolikidazioen zuzenketarena. Ondorioz, araudi hau izango da prozedura bateratu horri dagokion garapena. Halaber, berrikuntza modura, azpimarratu egin behar da zergadunek, atxikipenak, konturako sarrerak edo jasanarazitako kuotak behar ez bezala jasan badituzte, legitimazioa dutela itzulketak eskatzeko eta ez bakarrik eskuratzeko. Ondorioz, atxikitzaileak, konturako sarrera egin behar duenak edo jasanarazpena egiteko betebeharra zuenak aurkeztutako autolikidazioa zuzentzea eska dezake.

Azkenik, komenigarria da azpimarratzea gaur arte zergen kudeaketaren arloan duen garrantziagatik harekin bat egiten duen garapenik eduki ez duen prozedura baten garapena erantsi dela, hain zuzen ere balioen egiaztapena eta peritu-tasazio kontrajarriaren prozedura. Araudi honetan balioak egiaztatzeko baliabide eta prozedurak nahiz peritu-tasazio kontrajarria egiteko prozedura arautzen dira.

Hori dela bide, Ogasuna eta Finantzak Saileko foru diputatuak proposaturik eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2009ko uztailaren 21eko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe.

XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra. Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga kudeaketari buruzko Araudia onestea.**

Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga kudeaketari buruzko Araudia onetsi da, eta foru dekretu honetako eranskin gisa ematen da.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehenengoa**.

Ekainaren 21eko 99/2005 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Ikuskapenaren Araudia aldaraztea.

Bat. Ekainaren 21eko 99/2005 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Ikuskapenaren Araudiko 8. artikulua aldarazi da eta honela geratu da:

«8. artikulua.Zergadunek esku hartzea.

1. Ikuskapen prozeduretan jarduteko behar besteko gaitasunik ez duten pertsonen ordez haien legezko ordezkariek jardungo dute.

Hala ere, pertsona horiek jarduteko gaitasun nahikoa lortzen badute, ikuskapen prozeduretan jardungo dute, baita aurreko zerga-egoera egiaztatzeko ere.

Horrelakoetan, legezko ordezkari izan direnek ere aktuarioek eskatuta jardun beharko dute, batez ere arau-hausle direnek euren erantzukizunei aurre egiteko.

2. Pertsona juridiko baten ordezkaritzan aritu diren organoek ikuskapen jardunetan ez badituzte betetzen haren zerga-betebeharrak, betebeharrok sortu direnean edo bete behar izan direnean organo horietan izan direnek aktuarioen agindeiei jaramon egin beharko diete, euren izeneanarituz eta erakundea lotu gabe, jardunak burutzea errazagoa izateko beharrezkoa izanez gero.

3. Hil egin diren pertsona fisikoei edo pertsona juridikoei edo desegin edo azkendu egin diren gainerako entitateei buruzko jardun edo prozeduren kasuan, Administrazioaren aurrean jardun beharko duten pertsonei kasuan kasuko eskubideak, betebeharrak eta, hala badagokio, zerga zehapenak eskualdatuko zaizkie Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 38. eta 39. artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

Zerga Administrazioak jardunak edo prozedurak garatu ahalko ditu oinordeetatik edozeinekin.

4. Likidazio fasean dauden entitateen kasuan, administrazio jardunak entitateen nortasun juridikoa iraungi baino lehen gertatzen direnean, jardun horiek likidatzaileekin egingo dira. Entitate bat desegin eta likidatzen bada, eta aurreko idatz-zatian ezarri denaren kaltetan izan gabe, likidatzaileak Administrazioaren aurrera agertu behar dira horretarako agindeia eginez gero, entitatearen lehengo ordezkariak diren aldetik eta haren liburuak eta agiriak zaintzapean dituzten aldetik. Liburuak eta agiriak erregistro publiko batean gorde badira, organo eskudunak erregistro horretan haiek aztertzeko aukera edukiko du, eta organoak likidatzaileak Administrazioaren aurrean agertzea eskatu ahalko du jardun horietarako beharrezkoa bada.

Konkurtsoen kasuetan, administrazio jardunak konkurtsora aurkeztu denarekin egingo dira, betiere, epaileak administrazio eta erabilera eskumenak hari etetea erabaki ez badu. Edonola ere, konkurtsoan jarduten duten administratzaileekin ere garatuko dira jardunak, konkurtsora aurkeztu denaren ordezkari diren edo esku hartzeko eginkizuna duten heinean, Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legean ezarritakoari jarraiki.

5. Betebehar baten izatezko kasu berdin batean batera agertzeagatik hainbat zergadunen solidaritate kasuetan, jardunak eta prozedurak jardun edo prozedura horien xede den betebeharraren izatezko kasu horretan ageri diren zergadunetatik edozeinekin garatu ahalko dira.

6. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34.3 artikuluko entitateez arituz gero, zerga betebeharrak egoki betetzen direla aztertzea xedetzat duten kudeaketa jardunak, forma izaerakoak barne, betebehar horien ordezkaritza duenarekin garatuko dira, foru arau horretako 44.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Likidazioak egin beharko balira, horiek entitatearen izenera egingo lirateke, entitate horietako partaideen, kideen edo titularkideen erantzukizun solidarioaren kaltetan izan gabe.

Entitateek errenten eratxikipen araubidean eskuratzen dituzten errentak kargatzen dituen zergari buruzko betebeharrak egoki betetzen direla aztertzea egiaztapen prozeduretan zehar egingo da. Prozedura horiek bazkide, oinorde, erkide edo partaide bakoitzaren aurrean instruitu ahalko dira, zerga horrengatiko zergadun diren heinean. Prozedura horietan entitatearen berezko betebeharren kudeaketa jardunak garatu bitartean eskuratu ahal izan diren datuak, txostenak edo aurrekariak erabili ahalko dira.

7. Finkapen iraunkorraren bitartez Espainian jarduten duten baina Espainiako egoiliar ez diren zergadunen kasuan, Administrazioaren jardunak zergadunak izendatzen duen ordezkariarekin egingo dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 46. artikuluan eta Ez egoiliarren Errentaren gaineko Zergei buruzko apirilaren 15eko 5/1999 Foru Arauko 9. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Kokaleku iraunkorrik gabe jarduten duten zergadun ez egoiliarrek ordaindu beharreko zergen kasuan, jardunak egoiliarra ez den zergadunarekin edo hark xede honetarako izendatzen duen ordezkariarekin garatu ahalko dira, edo, bestela, horrelakorik aurreikusten denean, jardunak zuzenean gara daitezkeen erantzule solidarioarekin. Azken kasu horretan, likidazioak zuzenean egin ahalko zaizkio erantzule solidarioari. Hark egindako likidaziotik edo hari exijitzen zaion erantzukizunetik eratortzen diren aurkarapen arrazoi guztiak erabili ahalko ditu.

8. Zerga Administrazioaren aurrera agertu behar duen zergadunak aktuarioek esandako tokian, egunean eta orduan ez egoteko bidezko arrazoia alegatu nahi badu, jakinarazpena jaso eta hurrengo hiru egunetan adierazi behar du idatziz edo, bestela, ezarritako egunean bertaratzea eragotzi dioten inguruabarrak desagertu eta berehala, betiere, aurreko epealdiaren barruan.

Horrelako kasuetan jardunak eteten badira, zergadunak bere esku dagoen guztia egin behar du etendura eragin duten arrazoiak ezabatzeko; hori gertatutakoan, Administrazioaren aurrera agertzeko beste hitzordu bat ezarriko da».

Bi. Ekainaren 21eko 99/2005 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Ikuskapenaren Araudiko 33. artikulua aldarazi da eta honela geratu da:

«33. artikulua.Bidezko geldiarazpenak.

Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jardunen iraupenaren zenbaketa etetea bidezkotzat joko da ondoko kasuetan:

a) Bizkaiko Foru Aldundiko beste organo batzuei, Estatuko Administrazioari, autonomia erkidegoei, beste foru aldundi batzuei edo udalbatzei edo Europar Batasuneko kide diren Estatuetako edo hirugarren herrialde batzuetako zerga administrazioei datuak, txostenak, irizpenak edo balorazioak eskatzen zaizkienean. Geldiarazpenaren denbora eskaera egiten denetik eskatutakoa Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuna eta Finantzak Sailak eskuratzen duenera arte joango da. Edonola ere, egun kontzeptu honengatiko geldiarazpenak, eska daitezkeen datu, txosten, irizpen eta balorazio eskaera guztietarako, ezingo du sei hilabeteko epea gainditu Bizkaiko Foru Aldundiko beste organo batzuei egindako eskaeren kasuan, eta, aldiz, hamabi hilabeteko epea Estatuko Administrazioari, autonomia erkidegoei, beste aldundi batzuei eta udalbatzei egindako eskabideen kasuan eta hemezortzi hilabetekoa beste estatu batzuei egindako eskaeren kasuan.

b) Zergei buruzko Arau Orokorreko 185. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz espedientea Fiskaltzari edo jurisdikzio eskudunari bidaltzen bazaio, epea bidalketa horretatik espedientea itzuli eta hartzen den arte edo prozedura jarraitzeko organo eskudunak ebazpen judiziala egiten duen arte joango da.

c) Zergei buruzko Foru Arauko 163. artikuluak aipatutako nahitaezko irizpena kide anitzeko organoari eskatzen bazaio, epea Zergei buruzko kontsulta idatzien eta zerga-ordainketako aurretiazko proposamenen prozedurak eta itzulpenen aurkako klausula garatzen dituen ekainaren 21eko 101/2005 Foru Dekretuko 14. artikuluak adierazitako eta interesdunari egin beharreko jakinarazpenetik hasi, eta organo eskudunak prozedurarekin jarraitzeko egindako txostena eskuratzen duen artekoa izango da edo, bestela, txosten hori egiteko dagoen gehieneko denbora agortu artekoa izango da.

d) Zerga betebeharraren zehaztapena edo egozketa zehapen esparruko jardun judizialen mendekoa bada, epea jardun horiek martxan izatearen berri eduki, eta egitate hori espedientean jasotzen denetik edo jurisdikzio eskudunari edo Fiskaltzari espedientea bidaltzen zaionetik organo eskudunak prozedurarekin jarraitzeko ebazpena ezagutzen duen artekoa izango da. Hala eta guztiz ere, posible eta egoki denean, behin-behineko likidazioak egin ahalko dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 144.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

e) Ezinbestez Administrazioak bere jardunak bertan behera utzi behar dituenean; epea arrazoiak dirauen artean egongo da etenda. Hala eta guztiz ere, posible eta egoki denean, behin-behineko likidazioak egin ahalko dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 144.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

f) Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bitartez onetsitako Ekonomi Ituneko 66. artikuluan aurreikusitako Arbitraje Batzordearen aurrean eskumen gatazka planteatzen denean.

g) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 47. artikuluak aipatzen duen zerga egoitza egiaztatzeko prozedura hasten denean, epea prozedura hori izapidetzeko behar den denboraren berdina izango da, edo bestela hura ebazteko dagoen gehieneko epea amaitzen den artekoa, baina bakar-bakarrik helbidearen zuzenketa egitea erabakigarria bada kasuan kasuko prozedurak amaiera gisa erabiltzen duen administrazio egintzaren edukirako eta, betiere, zuzenketaren eraginak mugatuz garrantzia duten zerga kontzeptuetara eta zergaldietara».

Hiru. Ekainaren 21eko 99/2005 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Ikuskapenaren Araudiko 34. artikulua aldarazi da eta honela geratu da:

«34. artikulua. Zergadunari egotzi beharreko luzapenak.

Ondoko luzapenak zergadunari egotziko zaizkio:

a) Prozedurak zergadunei egotzitako atzerapenak Zerga Administrazioak bertaratzeko eskatzen dionean edo agiriak, aurrekariak edo zergaren arlorako garrantzia duen informazioa aurkezteko eskatzen dionean. Luzapena bertaratzeko finkatu den dataren biharamunetik hasiko da bertaratzeen kasuan, edo agindeia betetzeko emandako epea bukatzen den dataren biharamunetik hasiko da, eta eskatutakoa erabat betetzen den artekoa izango da. Zergen arlorako garrantzia duten agiri, aurrekari eta informazio agindeiak ez badaude behar bezala osatuta, ez dira jasotzat emango epe honen zenbaketarako, eta behar bezala osatzen den arte luzatuko da. Salbuespena araudiak berariaz beste ezer ezartzea izango da.

b) Zergadunak agiri eta froga berriak aurkeztea, behin entzunaldi edo alegazioen izapidea eginda dagoenean. Luzapena izapide hori amaitzen den egunaren biharamunetik hasiko da, eta agiri edo froga horiek aurkezten diren arte joango da. Agiriak prozedura izapidetu bitartean eskatu badira, aurreko a) letran xedatutakoa aplikatuko da.

c) Administrazioak edozein epe zabaltzeko aukera onartzea nahiz jardunak geroratzeko zergadunak eskatutako atzeratzea onartzea. Luzapena aurreikusitako epea amaitzen den egunaren edo hasiera batean finkatu zen dataren biharamunean hasiko da eta ondoren, bigarren kasu batean, finkatzen den datara artekoa izango da.

d) Zergadunak hala eskatuta hasitako prozedura geraraztea, ebazpena egiteko funtsezkoa den izapideren bat osatzea falta delako. Luzapena izapidea ez betetzat hartzen den egunaren

biharamunean hasiko da, eta zergadunak hura betetzen duen artekoa izango da, iraungitzea aitortzeko aukeraren kaltetan izan gabe interesdunari aldez aurretik horren berri eman izanda.

e) Ebazpen edo likidazio proposamenen jakinarazpenetan jazotako atzerapenak. Luzapena jakinarazpen saiakera egin den egunaren biharamunean hasiko da eta jakinarazpena egiten den artekoa izango da.

f) Zergadunak zeharkako zenbatespenaren metodoa aplikatzearekin zerikusia duten datuak, agiriak edo frogak aurkeztea. Luzapena espedientean horren berri jasotzen denetik hasiko da, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 153.3.a) artikuluan ezarritako baldintzetan».

**Bigarrena.**

Bizkaiko Foru Aldundiko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuak onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebehar formalak arautzen dituen Araudia aldaraztea.

Abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuak onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebehar formalak arautzen dituen Araudiko Bigarren Xedapen Iragankorrak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren berariazko aitorpenak zerga horretatik salbuetsita dauden subjektu pasiboen kasuan zentsu aitorpenak aurkeztearekin ordezkatzeko ezartzen duen epea luzatu egiten da 2011ko urtarrilaren 1era arte.

**Hirugarrena.**

Zergei buruzko kontsulta idatzien eta zerga-ordainketako aurretiazko proposamenen prozedurak eta itzurpenaren aurkako klausula garatzen dituen ekainaren 21eko 101/2005 Foru Dekretuaren aldarazpena.

Zergei buruzko kontsulta idatzien eta zerga-ordainketako aurretiazko proposamenen prozedurak eta itzurpenaren aurkako klausula garatzen dituen ekainaren 21eko 101/2005 Foru Dekretuko 9. artikuluko lehenengo idatz-zatia aldarazi egingo da, eta jarraian datorren moduan idatzita geratuko da:

«1. Zerga-ordainketako aurretiazko proposamenak zerga-egitatea gertatu baino lehen aurkeztu behar zaizkio Zerga Administrazioari, eta zergaldia duten zergen kasuan, proposatzen dena aplikatu behar den zergaldia amaitu baino lehen.» .

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru dekretu hau indarrean jarritakoan ondoko xedapenak indargabetuko dira:

- 145/1990 Foru Dekretua, abenduaren 4koa, Tributuzkoak diren zor-eztako sarreren itzulketak egiteko prozedura araupetzen duena.

- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra administrazio bideko berrikuspenaren arloan garatzeko Araudiko Hirugarren Xedapen Gehigarria, abenduaren 228/2005 Foru Dekretuaren bitartez onetsia izan zena.

- 3324/2003 Foru Agindua, urriaren 21ekoa; beraren bidez herri administrazioei euren eginkizunetarako zerga-informazioa nola eman araupetu zen, bai eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean gainontzekoei datuak lagatzeko balizkoak ere.

- Ogasuna eta Finantzak Sailarekiko harremanetan baliabide telefoniko eta telematikoak erabiltzeko BizkaiBai Zerbitzuaren arauak eta jardunbidea ezarri dituen abenduaren 11ko 3.623/2000 Foru Agindua.

- 3.960/2002 Foru Agindua, abenduaren 23koa; beraren bidez BizkaiBai zerbitzuko ordezkaritza araupetu da eta alderdi telematiko batzuk zehaztu dira.

- 1.268/2007 Foru Agindua, maiatzaren 8koa; honen bidez Ogasuna eta Finantzak Sailarekin zergen arloko harremanetarako sinadura elektronikoa erabiltzeko prozedura ezarri eta araupetu da.

- 124/2009 Foru Agindua, urtarrilaren 13koa; honen bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergaren hileko itzulketen erregistroa araupetu da.

## AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa. Araudiaren gaikuntza.**

Ogasuna eta Finantzak Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio foru dekretu honetan eta beraren bidez onetsi den araudian xedatutakoa garatzeko eta aplikatzeko behar diren arau guztiak emateko.

**Bigarrena. Indarrean jartzea.**

Foru dekretu hau indarrean jarriko da 2009ko irailaren 1ean.

## ERANSKINA.
## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGEN . KUDEAKETARI BURUZKO ARAUDIA.

## I. TITULUA.
## XEDAPEN OROKORRAK.

**1. artikulua. Ezarpen eremua.**

1. Araudi honek zerga kudeaketako jardunak eta prozedurak arautzen ditu, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko matxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra garatuz, eta zerga bakoitzeko araudian aurreikusitakoaren kaltetan izan gabe.

2. Araudi hau zerga-bilketaren kudeaketari aplikatuko zaio, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketari buruzko Araudian aurreikusi ez den orori dagokionez.

3. Ikuskapen-jarduketak eta prozedurak 2012ko urtarrilaren 24ko 5/2012 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikuskapenaren araudian ezarritako moduan arautuko dira. Berariazko araudirik ez badago, erregelamendu honetan ezarritako xedapenak aplikatuko dira ordezko moduan.

4. 4.Araudi hau zergen arloko zehapen prozedurari aplikatuko zaio, ekainaren 21eko 100/2005 Foru Dekretuak onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Arloko Zehapen-araudian, zergen arloko zehapen prozedurak garatzeko berariazko gainerako arauetan eta administrazioaren arloan zehapen prozedurak arautzen dituzten arauetan aurreikusi ez diren alderdietan.

## II. TITULUA.
## ZERGEN KUDEAKETAREN PRINTZIPIOAK ETA XEDAPEN OROKORRAK.

### I. KAPITULUA.
### ORGANOAK ETA ESKUMENAK.

**2. artikulua. Zergak kudeatzeko organoak.**

1. Araudi honetan xedatutakoaren eraginetarako, zerga kudeaketako organotzat hartzen dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 115. artikuluan aurreikusitako eginkizunak betetzen dituzten administrazio izaerakoak, betiere, berariazko antolamendu arauetan zerga kudeaketako eskumenak eratxikita badituzte.

2. Zergen kudeaketaren Zuzendariordetzaren arloan, eta araudi honen eraginetarako, hurrengoak izango dira kudeaketa prozeduretatik irtendako administrazio egintzak emateko organo eskudun:

   a) Ogasuna eta Finantzak Saileko foru diputatua, Ogasun zuzendari nagusia, eta Zerga Kudeaketako zuzendariordea, haren eskumena beren beregi ezartzen denean.

   b) Zuzeneko Zergen, Zeharkako Zergen eta Zentsu Kontroleko eta Tokiko Zergen Zerbitzuko Burutza, Zerga Kudeaketako Zuzendariordetza osatzen dutenak.

3. Hala eta guztiz ere, orokorrean, kudeaketa prozedurak izapidetzeko ardura Zerga Kudeaketako Zuzendariordetza eratzen duen atal bakoitzeko burutzari egokituko zaio, bakoitza bere eskumenen esparruan. Haiek ebazpen proposamenak formalizatuko dituzte, eta Zerbitzuko Burutzari emango diote haren berri.

   Aurreko idatz-zatiko a) letran adierazi diren organoetatik baten batek prozedurari amaiera ematen dion ebazpena eman behar badu, Zerbitzuko Burutzak haien esku utziko du, orokorrean, aipatutako ebazpen proposamena egitea.

4. Beste hainbat ahalmenen artean, kasuan kasuko Zerbitzuen mendeko diren Ataleko Burutzen ardura izango da agiriak edo informazio agindeiak ematea, eta baita kasuan kasuko aitorpen edo autolikidazioak aurkezteko agindeiak ematea ere.

5. Zergak kudeatzeko organoek behar diren jardun guztiak egin ahalko dituzte, administrazio ebazpenak edo epailearenak gauzatzeko.

   Ebazpenak jardunen atzeraeragina agintzen duenean, baliogabetutako egintza eman zuen zerga kudeaketako prozedurak aurrera jarraituko du amaitzen den arte, hura arautzen duen araudiak ezarritakoari jarraiki.

**3. artikulua. Ahalmenak egikaritzea zergen kudeaketan.**

1. Zerga kudeaketako jardun eta prozedura ezberdinetan baliatu daitezkeen ahalmenak jardun eta prozedura horietan esku hartzen duten Zerga Administrazioaren zerbitzura dauden funtzionario eta gainerako langileen ardurapekoak izango dira.

2. Berariazko antolamendu arauek Zerga Administrazioaren zerbitzura dauden funtzionarioen eta gainerako langileen esku-hartzea arautu ahalko dute zerga kudeaketako jardun eta prozedurak garatzerakoan, eginkizun ezberdineko organoetako lanpostuak betetzen badituzte.

**4. artikulua. Informazioa emateko eta laguntzeko betebeharra.**

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 93. artikuluak aipatzen dituen agintari eta entitateek eta, orokorrean, funtzio publikoak betetzen dituztenak behartuta egongo dira Zerga Administrazioko organoetako funtzionario eta gainerako langileei beren eginkizunak egikaritzeko behar duten euskarri, laguntza, sorospen eta babesa ematera.

2. Zerga Administrazioaren zerbitzura dauden langileek, beren jardunak garatu bitartean, funts publikoak edo Europar Batasunaren konturako laguntzak edo diru-laguntzak eskuratu edo hartzeko garaian iruzur aztarnak ondorioztatzea ahalbidetzen duten egitateak ezagutzen badituzte, dilijentzian horren berri emango dute eta organo eskudunari edo, hala badagokio, agintaritza judizialari edo Fiskaltzari jakinaraziko diote.

   Halaber, Zerga Administrazioaren zerbitzura dauden langileek jakinaren gainean jarriko dituzte agintaritza judiziala edo Fiskaltza, agintaritza eskudunaren bitartez, beren jardunak garatu bitartean ezagutu ahal izan dituzten eta laidotuaz gainera beste nornahik eskatuta pertsegitu ezin daitezkeen egintzen berri emanez.

## II. KAPITULUA.
## HIRUGARREN BATZUEI BURUZKO INFORMAZIOA HORNITZEA ETA INFORMAZIOA ELKARTRUKATZEA.

### 5. artikulua. Lankidetza hitzarmenak informazioa hornitzeko eta elkartrukatzeko.

1. Ogasuna eta Finantzak Sailak lankidetza hitzarmenak egin ahalko ditu entitate publiko edo pribatuekin. Helburua entitate horiek Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 92. eta 93. artikuluetan xedatutakoa betez eman behar duten informazioaren betekizunak, edukia, epeak eta baldintzak zeintzuk diren zehaztea da, inguruabar horiek behar beste araututa ez daudenean araudian.

2. Hitzarmen horiek, gainera, Ogasuna eta Finantzak Sailak beste herri administrazio batzuei bere esku dauden datuak nola laga edo haien berri nola eman behar duten ezar dezakete, datu horiek ematera behartuta egoteagatik Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 94.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki. Kasu horretan, informazioa elkartrukatzeko hitzarmenen forma hartuko da.

3. Artikulu honetan aipatutako lankidetza hitzarmenak Ogasuna eta Finantzak Saileko foru diputatuak sinatu behar ditu.

## III. KAPITULUA.
## ZERGEN ARLOAN GARRANTZIA DUTEN DATUAK HIRUGARREN BATZUEI LAGATZEA EDO HAIEN BERRI EMATEA.

### 6. artikulua. Zergen arloan garrantzia duten datuak isilpean eduki beharra.

1. Zerga Administrazioaren zerbitzura dauden langile guztiak behartuta daude isiltasun zorrotz eta osatuena edukitzera, beren karguagatik edo lanpostuagatik ezagutzen dituzten datu, txosten edo aurrekariekiko.

2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 94. artikuluan xedatutakoarekin bat, informazio horren izaera isilpekoa izango da, eta, eskumenak gorabehera, kasuan kasuko prozeduran esku hartzen dutenei bakarrik laga edo jakinarazi ahalko zaie, eta Europar Batasuneko arautegian ezarritako kasuetan argitaratuko da.

   Jarduketen emaitzak jarduketok egin dituen organoak eta Zerga Administrazioko beste organo batzuk erabili ahal izango dituzte, prozeduraren xede den zergapekoaren edo beste batzuen inguruan eginkizunak egoki garatzeko.

3. Zerga Administrazioaren zerbitzura dauden funtzionario eta langileak ez daude behartuta lekuko gisa prozedura zibiletan edota zehapen prozeduretan deklaratzera, baldin eta bakarrik alderdietako batek jazar ditzakeen delituak badira, betiere, hori egiterik ez badute nahitaez gorde beharreko isiltasuna urratu gabe.

### 7. artikulua. Zergen arlorako garrantzia duten isilpeko datuak hirugarren batzuei laga edo haien berri ematea.

Aurreko artikuluan xedatutakoaren kaltetan izan gabe, jardunak garatu bitartean eskuratzen diren datu, txosten edo aurrekariak hurrengo kasuetan laga edo haien berri eman ahalko da:

a) Beste organo, administrazio, pertsona edo entitateei eskatutako txostenak, peritu lanak edo laguntza emateko beharrezkoa denean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 94.1 artikuluan aurreikusitakoaren kaltetan izan gabe.

b) Ogasuna eta Finantzak Sailak beste entitate batzuei ematen dizkien zerbitzuak ematen laguntzeko beharrezkoa denean, haiekin kasuan kasuko lankidetza kontratua edo hitzarmena formalizatu izan eta gero.

c) Zergadunari jakinarazi egiten zaizkionean entzunaldi izapidean edo alegazioenean espedientean ageri diren eta ebazpenean aintzat hartuko diren beste zergadun batzuetatik eskuratutako agiriak, datuak, txostenak edo aurrekariak, betiere, hirugarren batzuen interesei edo pertsona horien intimitateari eragiten bazaio edo legeak xedatzen badu. Kasu horretan, eragiten ez dieten datuak isilpean gordetzeko behar diren neurriak hartuko dira.

d) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 94. artikuluan aurreikusitako kasuetan, hurrengo artikuluetan adierazten diren baldintzetan.

**8. artikulua. Datuak hirugarren batzuei lagatzerakoan edo haien berri materakoan aplikatzen diren printzipio eta arauak.**

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 94. artikuluak zergen arloko datu garrantzitsu modura heltzen dituen datuak laga edo haien berri emateko, Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedaturikoa bete beharko da, eta baita hura garatzeko legedian ezarritakoa bete ere. Horrez gain, hurrengo printzipio eta arauak ageriko dira:

   a) Lagatako edo jakinarazitako datuak lagapen-hartzailearen eginkizun eta eskumenen arlokoak izan behar dira.

   b) Informazioa garrantzitsua eta erabilgarria izan behar da lagatzea edo haren berri ematea bidezkotzen duten xedeetarako.

   c) Proportzionaltasuna egon behar da lagatako edo jakinarazitako datuen eta eskatzeko izandako xedearen artean.

   d) Datuak transmititzeko eta eskuratzeko bitartekoak seguruak izan behar dira.

   e) Eraginkortasuna egon behar da eta kostuak ahalik eta eskasenak izan.

   f) Datuak eskaeran zehaztutako xedeetarako ez beste ezertarako erabili behar dira. Pertsona baten zergen arloko informazioa inolaz ere ezin da erabili beraren kaltetan.

   g) Ematen diren datuak ezin dira laga edo haien berri eman, eta lagapen-hartzaileak ezin dizkio laga beste bati, kontratuetan edo hitzarmenetan berariaz ezarri ezean.

   h) Debekatuta dago lagapen-hartzaileak datuak tratatzea, eragindako pertsona ados dagoela adierazi edo legezko baimena eduki ezean.

2. Ogasuna eta Finantzak Sailak eskatutako datuen lagapena edo berriematea ukatu edo mugatu ahalko du, bildutako informazioa bat ez datorrenean kapitulu honetan aurreikusitakoarekin, artikulu honetako 1. idatz-zatiko zerga informazioaren lagapen edo berriemate printzipio eta arauak urratu daitezkeenean edo araudi honetako 12. artikuluan aurreikusitako bermeak existitzen ez direnean.

3. Informazioa paperezko euskarrian edo euskarri magnetikoan edo transmisio telematiko bidez edo datuak tratatu eta transmititzeko dauden teknika automatizatuetatik edozeinen bidez laga edo haren berri eman ahalko da, informazioaren bolumena, eskura dauden baliabideak eta kasu zehatz bakoitzean aintzat hartu behar diren gainerako inguruabar tekniko guztiak gorabehera. Ogasuna eta Finantzak Sailaren nahiz datuak lagako dituen Administrazioaren, organoaren, agintaritzaren edo entitatearen baliabide teknikoak aintzat hartuko dira, eta kasu bakoitzean egokien jotzen dutena adostu ahalko dute.

4. Laga edo jakinarazi diren datuen edo informazioen berri duten agintari eta funtzionario guztiek isilpean gorde behar dituzte, zorroztasun handiarekin. Informazioa gaizki eskuratzeagatik edo behar ez bezala erabiltzeagatik izan litekeen erantzukizun penala, administratiboa eta zibila gorabehera, eta Datuen Babes Agentziak edo Euskal Autonomia Erkidegoko arlo honetako organoek dituzten eginkizunei kalte egin gabe, Ogasuna eta Finantzak Sailak datuen erabileran irregulartasunen bat izan dela sumatzen badu, haiek

eskuratzeko aukera edo beraien hornidura eten edo murriztu ahal izango du, eta gauza bera egin ahal izango du araudi honetako 12. artikuluan ezarritako printzipio, arau edo bermeak, edo berariaz hitzartutakoak, betetzen ez badira ere.

**9. artikulua. Datuen izaera.**

Lagatzen eta jakinarazten diren datuak zergadunek eta zergen arloko informazioa eman behar duten gainerakoek aitorpenetan adierazitakoak izango dira. Oro har, datuok ez dira egiaztatzen automatizatu aurretik.

Hala eta guztiz ere, Zerga Administrazioak datuak egiaztatu baditu, egiaztatuak emango ditu, ez jatorrizkoak.

Gainera, Ogasuna eta Finantzak Sailak lagatako edo jakinarazitako datuen izaera edo edukia zehaztu edo argitu ahal izango du.

**10. artikulua. Zergen arloan garrantzitsuak diren isilpeko datuak hirugarren batzuei laga edo haien berri ematea, zergadunaren aldez aurretiko baimenik eduki gabe.**

1. Informazioa laga edo haren berri emateko eskaerak biltzen dituen organoak, agintaritzak, erakundeak edo Administrazioak Ogasuna eta Finantzak Sailari bidali behar dio eskabidea.

2. Informazio eskaeran argitu egin beharko da bildutako informazioaren xede diren pertsona fisikoak eta juridikoak identifikatzeko datuak, zein xedetarako erabiliko den ere jakinaraziz Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 94. artikuluko 1. idatz-zatiko lagapen edo berriemate kasuekin bat etorriz. Salbuespena idatz-zati horretako l) letran jaso den kasua izango da.

   Halaber, lagapena edo berriematea bidezkotzen duen helburuari aurre egiteko lortu nahi den informazioa zehaztu behar da.

3. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 94. artikuluko 1. idatz-zatian aurreikusitako kasuetan informazioa laga edo haren berri emateko, l) letrako salbuespena salbuespen, ez da beharrezkoa izango zergadunek aldez aurretik baimena ematea emango diren datuetarako.

**11. artikulua. Zergen arloan garrantzitsuak diren isilpeko datuak hirugarren batzuei laga edo haien berri ematea, zergadunaren aldez aurretiko baimena edukita.**

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 94. artikuluko 1. idatz-zatiko l) letrak zergadunaren baimena edukita datuak lagatzeko aipatzen duen kasuan, informazioaren xede diren interesdunak identifikatzeko datuak zehaztu beharko dira informazio eskaeran, eta lagapenaren edo berriematearen helburua nahiz administrazio eskatzaileari esleitu zaizkion eginkizunak egoki betetzeko beharrezkotzat jotzen den edukia zehaztu beharko dira.

2. Zergen arloko informazioa eskuratu nahi duen administrazioak Ogasuna eta Finantzak Sailaren Zergadunarentzako Informazio eta Laguntza Zerbitzura bidali behar du eskabidea.

3. Zergen arloko informazio eskabidean, artikulu honetako 1. idatz-zatian adierazitakoaz gain, adierazi egingo da eskabidearen xede direnek espresuki baimendu dutela administrazio eskatzaileari datuak lagatzea edo haien berri ematea, eta bidezkoketa hori edozein unetan eskatu ahalko du Ogasuna eta Finantzak Sailak.

   Baimenari dagokionez, administrazio eskatzaileak ondokoak izan behar ditu kontuan:

   a) Zergen arloko informazioa eskuratzeko baimena zehatza izan behar da, hau da, interesdunak parte hartzen duen prozedurari lotu behar zaio edo bera ukitzen duten eginkizunen egikaritzari bestela.

   b) Ez da onartuko baimen orokorrik, hots, administrazio eskatzaileak bere eginkizun edo prozedura guztietarako erabil dezakeenik.

c) Baimena ematea ezin da ezarri prozedurak ebazteko edo eginkizunak egikaritzeko baldintza gisa, baldin eta eskaturiko betekizunak betetzen direla, hala denean, zuzenbidezko beste modu batez baliatuz frogatu ahal bada.

d) Interesdun batek baimena eman badu eta gero ezeztatzen badu, administrazio eskatzaileak ezin eskatu izango du berari buruzko daturik.

**12. artikulua. Berariazko bermeak.**

1. Datuen lagapena edo haien berri ematea aldizka edo denboran zehar jarraitutasunez egin behar bada edo eskatutako informazioaren bolumena, zabaltasuna edo edukiaren garrantzia handiak badira edo datu horiek hainbat interesduni eragiten badiete, Ogasuna eta Finantzak Sailak lankidetza kontratuak edo hitzarmenak egin ahalko ditu herri administrazioekin, agintariekin edo entitateekin, zergen arloko informazioaren lagatzaile izan badaitezke. Kontratu edo hitzarmen horiek hurrengo idatz-zatian aipatuko diren bermeak erantsi ahalko dituzte.

2. Ogasuna eta Finantzak Sailak neurriak hartuko ditu datuei erabilera egokia ematen zaiela bermatzeko. Neurrien artean, besteak beste, hurrengoak egon daitezke:

   a) Batzorde mistoak eratzea; bertan Ogasuna eta Finantzak Sailaren eta entitate, agintaritza edo erakunde lagapen-hartzailearen ordezkariak arituko dira eta beraien helburua lagatako informazioa behar bezala erabiltzen dela zaintzea izango da (beste eginkizun batzuk ere eman dakizkieke).

   b) Lagapen-hartzaileak onartzea Ogasuna eta Finantzak Sailak informazioa behar bezala eskuratzen eta erabiltzen dela eta aplikatu beharreko arau-baldintzak eta ohiko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko jardunak egitea.

3. Ogasuna eta Finantzak Sailak ez badu zergen arloko informazioa eskatzen duen organoaren eskumenaren berri, ofizioa bidaliko dio hura atxikita dagoen administrazio edo erakundearen zuzendaritza-organoari, eskumena baduela ziurta dezan edo, bestela, eskabidea berrets dezan.

**13. artikulua. Informazioaren lagapen-hartzaileekin lankidetza kontratuak edo hitzarmenak eratzea.**

1. Ogasuna eta Finantzak Sailaren eta informazioaren lagapen-hartzaile direnen artean egiten diren kontratu edo hitzarmenetan, hain zuzen ere Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 94. artikuluak aipaturikoak, zehaztu egingo da zein den lagatako datuen xedea eta lagapena zein xedetarako egiten den, biltzen den informazioa bidezkotzen duten ahalmenak egikaritzeko edo eginkizunak garatzeko hartzaileak duen eskumena, lagapenaren aldizkakotasuna zein izango den eta lagapen hori nola gauzatuko den.

   Horrez gainera zenbat denbora iraungo duen adieraziko da, eta behar denean nola berritu edo luzatuko den ere bai.

   Araudi honetako 11. artikuluan ezarritako balizkoetan, interesdunek aldez aurretik administrazio lagapen-hartzaileari baimena eman behar diotela agertarazi behar da; hori gabe administrazio horrek ezin aurkeztu izango du informazio eskaerarik.

2. Lankidetza kontratu edo hitzarmenetan, informazioa emateko prozedura, horren gaineko eskumenak eta eman beharreko bermeak zehaztu behar dira. Herri administrazio batekin lankidetza hitzarmena sinatzen denean, haren menpeko administrazio organoek soilik erabili ahal izango dituzte jasotzen diren datuak.

   Hala eta guztiz ere, berariaz ezarriz gero, datuen azken jasotzailea lagapena hartzen duen herri administrazioaren menpeko organismo edo erakundea izan daiteke, hain zuzen ere datuak lagatzeko xede izandako eginkizunak edo prozedurak egingo dituena.

3. Nolanahi ere, ezartzen diren baldintzak eta klausulak araudi honetan ezarritako printzipioen araberakoak izan behar dira.

4. Zergapetze bikoitza saihesteko nazioarteko hitzarmenetan eta Batasuneko araudian aurreikusi den informazio elkartrukerako baliabideen esparruan, eta zergen arloan elkarri laguntzeko nazioarteko akordio eta hitzarmenetan, agintari eskudunek laguntza emango diote elkarri eta zergen ezarpenerako behar diren datuak trukatuko dituzte.

   Zerga Administrazioko zergen kudeaketarako organoek jardunak garatu ahalko dituzte beste estatu batzuetako agintari eskudunek hala eskatzen badute. Jardun horiek garatzen direnean, estatu horietako funtzionarioak bertan egon ahalko dira, betiere, aldez aurretik agintaritza eskudunaren baimena eskuratuta. Halaber, Zerga Administrazioko funtzionarioak beste estatu batzuetara joan ahalko dira agintari eskudunak egindako informazio eskaeren esparruan, eta aldi bereko zerga kontroletan parte hartzeko aukera ere edukiko dute.

   Beste estatu batzuetako agintari eskudunek emandako frogak edo informazioak froga balioarekin erantsi ahalko dira kasuan kasuko prozedurara.

### 14. artikulua. Zergen arloko datu-baseen kontsulta.

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 94. artikuluko 1. idatz-zatian ezarritako balizkoetan, zergen arloko informazioaren lagapena hartzen duenak, lankidetza hitzarmenak horrela ezartzen badu, zuzenean eskuratu ahal izango du Ogasuna eta Finantzak Sailaren datu-baseak kontsultatuz.

2. Datu-baseak Sailaren beraren terminaletatik edo lagapen-hartzailearekin konexio telematikoak ezarriz kontsultatu ahal izango dira, informazioa behar bezala konfiguratutakoan, beharrezkoa denean.

3. Datuen kontrolerako eta segurtasunerako Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hura garatu duen legerian xedatutakoa hartu behar da aintzat.

4. Datu-baseetan kontsulta bat egiten denean, erabiltzailea nor izan den eta eskuratu duen informazioa eta kontsultaren xedea zein izan diren jaso behar da. Hori dela eta, Ogasuna eta Finantzak Sailak datu-baseetako kontsultetan xehetasun horiek guztiak erregistratzeko moduan diseinatuko ditu bere aplikazio informatikoak.

### 15. artikulua. Datuak hirugarren batzuei laga edo haien berri ematearen eraginak.

1. Herri administrazioek euren eginkizunetarako behar duten zergen arloko informazioa araudi honetan ezarritako bideak erabiliz eskuratu ahal dutenez gero, interesdunei ez zaie eskatuko Ogasuna eta Finantzak Sailak emandako banako ziurtagiriak ekartzeko, ez eta zerga-aitorpenak aurkezteko ere (ez jatorrizkoak, ez kopiak, ez haien ziurtagiriak).

2. Araudi honetan ezarritakoari lotuz zergen arloko informazioa laga edo haren berri emateak ez du sortuko haren xedetik eta helburutik datozenez beste ondorerik, artikulu honetako 1. idatz-zatian aipatutakoa ere (ziurtagiri edo aitorpenen ordezko izatea) bazter utzita. Ondorioz, informazioa dagokien interesdunek edo hark eragindakoek ez dute izango inolako eskubiderik ez eskubide-igurikimenik, eta ez da etengo informazioa erabiliko den prozedurei loturiko eskubideen edo betebeharren preskripzioa.

   Orobat, lagatzen den edo jakinarazten den informazioak ez du inolako eraginik izango zergen arloko datuen kudeaketa edo ikerketa jardunen eta emandako datuen aurreragoko aldaketen emaitzan.

## IV. KAPITULUA.
## ZERGEN KUDEAKETAREN PRINTZIPIO OROKORRAK.

### 1. ATALA.
### INFORMAZIOA ETA LAGUNTZA ZERGADUNENTZAT.

#### 16. artikulua. Zergen inguruko informazioa eta laguntza.

Zerga administrazioak sustatu eta erraztu egingo du zergadunek zerga betebeharrak betetzen dituztela eta beren eskubideak baliatzen dituztela, horretarako haien eskura jarriz zergen arloko informazioa eta laguntza zerbitzuak.

### 1. AZPIATALA.
### ZERGEN ARLOKO INFORMAZIO JARDUNAK.

#### 17. artikulua. Ofizioz hasitako informazio jardunak.

1. Informazio jardunak ofizioz egingo dira zerga arauen testu eguneratuak eta garrantzi handieneko administrazio doktrina argitaratuz edo berriemateak bidaliz, beste hainbat baliabideren artean.

   Horren eraginetarako, zerga doktrinatzat hartzen da Zerga Administrazioak arau juridikoak aplikatzerakoan jarraitzen duen jokabide bateratua islatzen duen irizpide administratibo multzoa.

2. Halaber, zergadunei berriemateak ofizioz bidaliz egin ahalko dira, bai zuzenean bidalita, bai haiek kide diren elkargo, elkarte edo beste erakunde batzuei bidaliz, han araudiari eta aplikatzen zaizkien irizpide administratiboei buruzko informazioa ematen bazaie.

#### 18. artikulua. Zerga informazioko eskabideak.

1. Informazio jardunak zergadunaren ekimenez ere egingo dira, zerga informazioari buruzko eskabideei erantzunez horiek jasotzen diren bidea edozein izanda ere.

2. Informazio eskabideak idatziz egiten diren kasuan, hurrengo datuak erantsi beharko dira: izen-deiturak edo sozietatearen izena edo izendapen osoa, eta zergadunaren identifikazio fiskaleko zenbakia, informazioa eskatzeko eragiten dion eskubidea edo zerga betebeharra.

#### 19. artikulua. Informazio eskabideak izapidetu eta erantzutea.

1. Zerga informazioari buruzko eskabideak erantzuterakoan, atxikipenei, konturako sarrerei edo jasanarazpenei buruzkoak barne, Administrazioak zerga araudia aplikatzeko dauden irizpide administratiboen berri emango du, eta erantzun horri ezingo zaio errekurtsorik aurkeztu.

2. Idatziz egiten diren zerga informazioko eskabideak organo eskudunean ageri diren agirietatik edo aurrekarietatik erantzuterik badago, hiru hilabeteko gehieneko epean erantzungo dira, eta erantzunean eskabidearen xedeari aplika dakiokeen araudia aipatuko da beti.

3. Aurreko idatz-zatian ezarritako epeetan informazio eskabideak ez erantzuteak ez du ulertaraziko eskabidean adierazten diren irizpideak onartzen direnik.

4. Informazio jardunek eta informazio eskabideei emaniko erantzunek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 184.2.d) artikuluan aurreikusitako eraginak izango dituzte.

5. Barreiapen handiagoa komenigarria bada, izaera orokorreko informazioa horren berri eduki nahi duten gizarte taldeei edo erakundeei eskaini ahalko zaie.

## 20. artikulua. Zergei buruzko kontsulta idatziak eta zerga-ordainketako aurretiazko proposamenak.

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 85. eta 86. artikuluek aipatutako zergei buruzko kontsulta idatziei aplikatu egingo zaie Zergei buruzko kontsulta idatzien eta zerga-ordainketako aurretiazko proposamenen prozedurak eta itzulpenen aurkako klausula garatzen duen ekainaren 21eko 101/2005 Foru Dekretuan horiek aurkezteko, izapidetzeko eta erantzuteko ezarri den prozedura.

2. Foru dekretu hori aplikatu egingo zaie, halaber, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 89. eta 90. artikuluetan araututako aurretiazko zerga-ordainketako proposamenei.

## 2. AZPIATALA.
## ONDASUN HIGIEZINEN ESKURAKETA EDO ESKUALDAKETEN AURREKO INFORMAZIOA.

## 21. artikulua. Ondasun higiezinen eskuraketa edo eskualdaketen aurreko informazioa.

1. Zerga Administrazioak, interesdunak hala eskatuta, ondasun higiezinen gaineko balioari buruzko informazioa emango du, horiek eskuratu edo eskualdatzerakoan higiezina kargatzen duten zergei dagokienez eta haien zerga oinarria higiezinen balioaren arabera zehazten denean.

2. Hiri- edo landa-ondasun higiezinek hiri-ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak eta landa-ondasun higiezinak zerga ondorioetarako balioztatzeko arau teknikoak onetsi dituzten foru dekretuetan aipatutako esleitu beharreko gutxieneko balioa dutenean, interesdunek, lehentasunez, bide telematikoak erabilita kontsultatu ahal izango dute balio hori, Ogasun eta Finantzen Foru Sailaren web orriaren bitartez. Horretarako, Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren ordainagirian ageri den zenbaki finkoa eta eskatzailearen identifikazioa beharko dira.

   Esleitu beharreko gutxieneko balioa urte naturalean egongo da indarrean.

3. Ondasun higiezinek eratxikigarri zaien gutxieneko baliorik ez badute, eskabidea Ogasuna eta Finantzak Saileko foru diputatuaren Foru Agindu bidez onetsitako ereduaren bitartez aurkeztuko da.

   Eskabidearekin batera hurrengoak aurkeztu beharko dira:

   a) Eskatzailearen NANaren kopia.

   b) Erosi nahi den ondasun higiezinaren azkeneko deskripzio xehatua ageri den agiri publikoaren kopia.

   c) Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren azkeneko ordainagiriaren kopia edo katastroko jakinarazpena.

   d) Baloratu beharreko higiezina orube bat bada, eskabidearekin batera lursaila eraikigarria dela adierazten duen hirigintzako agiria aurkeztu beharko da.

   e) Titulartasun aldaketa formalizatzeko egingo den eskritura publikoaren zirriborroa eta katastroko erreferentzia edo higiezinaren edo higiezinen zenbaki finkoa.

   Zerga Administrazioak beharrezkotzat jotzen dituen agiriak eskatu ahalko dizkio interesdunari, ondasun higiezina baloratze aldera. Halaber, egoki iritzitako beste entitate edo erakunde batzuei txostenak eskatu ahalko dizkie.

   Eskabideei emaniko erantzunak hiru hilabeteko epean ebatzi eta jakinarazi beharko dira. Epe horren eraginetarako ez dira aintzat hartuko bidezko geldiarazpen aldiak eta Administrazioari egotz ezin dakizkiokeen luzapenak.

Eskabideei erantzunik ematen ez bazaie aurreko paragrafoan ezarritako epean, horrek ez du esan nahiko Zerga Administrazioak onartu egiten duenik zergadunak aitorpenean edo autolikidazioan ezartzen duen balorazioa.

Eskatzaileari jakinarazten zaion balioak ez du aurkara daitekeen administrazio egintzaren izaera, eta eragin lotesleak edukiko ditu Administrazioarentzat berriemate hori egiten denetik 6 hilabeteko epea igarotzen den arte.

4. Aurreko idatz-zatietan adierazi denaren kaltetan izan gabe, interesdunak bere interesak gorabehera egoki irizten duen balioa ezarri ahalko du aitorpen edo autolikidazioan ondasunen balio modura. Zerga Administrazioak, orduan, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 55. eta 129. artikuluetan aurreikusitako egiaztapen eskumena erabili ahalko du.

## 3. AZPIATALA.
## ZERGA ZIURTAGIRIAK EMATEA.

### 22. artikulua. Zerga ziurtagiriak.

1. Zerga ziurtagiritzat hartuko da Administrazioak egiten duen eta zergadun baten zergen arloko egoerari buruzko egitateak egiaztatzen dituen agiria.

2. Ziurtagiriek, besteak beste, hurrengoak egiaztatu ahalko dituzte: aitorpenak eta autolikidazioak aurkeztu diren edo ez edo haietan bildutako inguruabar zehatzak, zentsu egoera, zerga betebeharrak beteta dauden edo ez eta Zerga Administrazioaren datu-basean ordaintzeko dauden zerga zorrak edo zehapenak badauden edo ez.

3. Ziurtatzen diren egitate edo datuak ziurtagiriaren xede den zergadunari buruzkoak izango dira bakar-bakarrik, eta ezingo da ziurtagirian hirugarren batzuei buruzko daturik sartu, betiere, ziurtagiriaren xedeak hirugarren horien datuak eranstea exijitzen ez badu.

4. Administrazioak, kasuan kasuko likidazioaren bitartez, zerga zorra zehazteko duen eskubidea preskribatu edo iraungi egin bada, aukera egongo da datu edo zerga betebehar horiei buruzko ziurtagiririk ez egiteko.

5. Zerga Administrazioaren zerga betebeharrak betetzeko epea agortu ez bada, Administrazioa ez da behartuta egongo betebehar horiek betetzeari buruzko ziurtagiria egitera.

### 23. artikulua. Ziurtagiriak eskatzea.

1. Zerga ziurtagiriak hurrengoen ondotik egingo dira:

   a) Ziurtagiriaren xede den zergadunak eskatzen badu.

   b) Ziurtagiria behar duen administrazio organoaren edo beste edozein pertsona edo entitate interesdunaren eskaeraren ondotik, betiere, eskaera hori Lege edo Foru Arau batean aurreikusi bada edo zergadunaren aldez aurretiko baimena badu.

   c) Zerga Administrazioak eskatzen badu, zerga kudeaketarako aukera arrazoiek horrelakorik gomendatzen dutenean. Zehazki, ziurtagiri horietan interesdun kopuru handia badago edo horiek prozedura batean eskuratu edo aurkeztea talde jakin batentzat derrigorrezkoa bada eman ahalko dira.

2. Ziurtagiria ordezkari bitartez eskatzen denean, ordezkaritza hori ziurtatu egin beharko da.

3. Prozedura bat edo administrazio jardun bat izapidetzeko beharrezkoa bada Ogasuna eta Finantzak Sailaren zerga ziurtagiria eskuratzea, beharrezkoa duen herri administrazioak zuzenean eskatu beharko du eta eskabide hori egiteko gaitasuna ematen dion Legea edo Foru Araua zein den edo zergadunaren aldez aurretiko baimena duela jakinarazi beharko du.

Kasu hauetan, eskaera egiten duen herri administrazioak ezingo du exijitu ziurtagiria zergadunari ematea.

Ogasuna eta Finantzak Saila ez da behartuta egongo zergadunak eskatutako ziurtagiria ematera, baldin eta Sailak kasuan kasuko herri administrazioari helarazi zaiola jakin badu.

**24. artikulua. Zerga ziurtagirien edukia.**

Zerga ziurtagiriek hurrengo datu eta inguruabarrak bildu dituzte gutxienez:

a) Zergadunaren izen-deiturak edo sozietatearen izena edo izendapen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga egoitza.

b) Ziurtatu behar diren inguruabarrak, betebeharrak edo eskakizunak.

Ziurtagiri baten bitartez ziurtagiriak arautzen dituen arauak exijitutako zerga izaerako inguruabar batzuk betetzen direla ziurtatu behar denean, inguruabar horiek beren beregi jasoko dira.

Ziurtapenak positiboak izango dira ziurtagiriak arautzen dituen araudiak exijitutako inguruabar, betebehar edo eskakizun guztiak beteta daudela uste denean. Eragin horietarako, nahikoa izango da horien gaineko aipamen orokorra egitea.

Ziurtapenak negatiboak direnean, beteta ez dauden inguruabarrak, betebeharrak edo eskakizunak zeintzuk diren adierazi beharko da.

Zergadunak aitortu edo jakinarazitako datuak bat ez datozenean Administrazioak egiaztatu dituenekin, azken horrenak ziurtatuko dira.

c) Zerga Administrazioaren datu-baseetan eskatu den informazioa ez egotea edo informazio hori ematea bidezkoa ez izatea, b) letran bildu den informazioa ziurtatzerik ez dagoenean.

d) Ziurtagiria egin den tokia, data eta hura egiteko eskudun den organoaren sinadura, eta, hala badagokio, baita egiaztapeneko kode ziurra ere.

**25. artikulua. Zerga ziurtagiriak ematea.**

1. Zerga Administrazioko organo eskudunak 20 eguneko epea edukiko du ziurtagiria egiteko, betiere, ziurtagiriak arautzen dituen araudiak beste epe ezberdin bat ezarri ez badu.

   Eskatzailea zergaduna denean, ziurtagiria pertsonalki emango zaio edo haren zerga egoitzara bidaliko da. Ziurtagiria eskabidean bidalketetarako adierazi den tokira bidaliko da, eskatzailea herri administrazio bat denean.

   Kontrakoa ezartzen bada salbu, ziurtagiria epe barruan ez egiteak ez du ekarriko ziurtagiria izaera positiboarekin egin dela ulertzea.

2. Zerga ziurtagiria paperean edo teknika elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabilita eman ahalko da.

   Ziurtagiria administrazio organo batek eskatzen duenean, bide telematikotik eman ahalko da, eta modu automatizatuan ematen bada, araudi honetako 36. artikulutik 40.era bitarteko artikuluetan, biak barne, aurreikusi dena aplikatuko da.

3. Ziurtagiriaren edukia, egiazkotasuna eta baliozkotasuna frogatzeko Zerga Administrazioaren web orrialdera konektatzeko aukera egongo da, horretarako ziurtagirian ageri den egiaztapeneko kode ziurra erabilita.

4. Behin ziurtagiria eginda, zergadunak desadostasuna agertu ahalko du edukiko edozein daturekiko hamar eguneko epean. Epe hori ziurtagiria eskuratzen den egunaren

biharamunetik aurrera hasiko da. Desadostasuna agertzeko, ziurtagiria egin duen organoari idazkia zuzendu beharko zaio ziurtagiria aldarazteko eskatuz, eta idazki horri eskatutakoa frogatzeko komenigarritzat jotzen diren froga elementu guztiak erantsiko zaizkio.

Ziurtagiria egin zuen organoak emandako ziurtagiria akastuntzat joko balu, ziurtagiri berri bat egingo luke hamar eguneko epean. Ziurtagiri berria egitea egoki iritziko ez balitz, interesdunari horren berri emango litzaioke, erabaki hori hartu izateko edukitako arrazoiak adieraziz.

**26. artikulua. Zerga betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriaren betekizunak.**

1. Artikulu honetan arautzutako ziurtagiria emateko, hurrengo inguruabarrak agertzen direla egiaztatu beharko da eskatzaileak zerga betebeharrak egunean dituela uste izateko:

   a) Enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen Erroldan alta emanda egotea, bertan inskribatuta egon behar den pertsona edo entitatea izanez gero, eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea, horrelakorik behar den kasuan.

   b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioak aurkeztu izana.

   c) Autolikidazioak eta konturako ordainketen inguruko zerga betebeharrei dagokien urteko laburpen aitorpena aurkeztu izana.

   d) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioak, urteko laburpen aitorpena eta, beharrezkoak izanez gero, Batasunaren barruko eragiketen laburpen aitorpena aurkeztu izana.

   e) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 92. eta 93. artikuluetan arautzutako informazio hornidurarein betebeharra betetzeko orokorrean exijitzen diren aitorpenak aurkeztu izana.

   f) Ez edukitzea Ogasuna eta Finantzak Sailarekin inolako zerga zor ez zehapenik betearazte aldian. Salbuespena: geroratuko, zatikatutako edo betearazpena etendako zorrak eta zehapenak.

   g) Ez izatea ordaindu gabe Ogasun Publikoaren kontrako delituaren ondorioz epai irmo baten bidez ezarritako isunik edo erantzukizun zibilik.

2. Zerga betebeharrak ordainduta daudela dioen ziurtagiria egiten denean, ziurtagiriaren izaera positiboa edo negatiboa adierazi beharko da.

3. Goiko 1. paragrafoko b), c) eta d) idatz-zatietan adierazten diren inguruabarrak autolikidazio edo aitorpen jakin batzuei dagozkie: hain zuzen ere, aurkezpen-epea eskatzailearen zerga-betebeharrari buruzko ziurtagiria eman eta aurreko hilabetea baino lehenagoko 12 hilabeteetan amaituta duten aitorpen-autolikidazioak.

**27. artikulua. Zerga ziurtagirien eraginak.**

1. Zerga ziurtagiriek informazio izaera edukiko dute bakar-bakarrik, eta horien aurka ezingo da inolako errekurtsorik jarri, betiere, araudi honetako 25.4 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki desadostasuna agertu ahal izatearen kaltetan izan gabe eta informazio horrekin zerikusia edukita aurrerago ematen diren administrazio egintzen aurka jar daitezkeen errekurtsoen kaltetan izan gabe.

   Zerga ziurtagiriek bertan adierazten diren eraginak edukiko dituzte, eta baita ziurtagiriak arautzen dituen araudiak ezartzen dituenak ere.

2. Ziurtagiriaren araudi espezifikoak besterik ezartzen ez badu, zerga-ziurtagiriek 6 hilabeteko balioa izango dute ematen diren egunetik aurrera, ziurtagirien edukia zehazten duten

inguruabarretan aldaketarik gertatzen ez den bitartean. Salbuespena izango dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 180. artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren ziurtagiriak, horien balioa 3 hilabetekoa izango baita.

3. Baliabide telematikoak erabilita ematen diren ziurtagiriek paperean emandako ziurtagirien eragin berdinak edukiko dituzte. Ziurtagiri telematikoek elektronikoki sortutako egiaztapeneko kode bat edukiko dute, haren edukia, egiazkotasuna eta baliozkotasuna alderatzeko aukera emanez. Horretarako, baliabide telematikoak erabilita, ziurtagiria eman duen organo edo erakundearen agiritegietara sartuko da. Eragin berdinak edukiko dituzte ziurtagirien kopiek, aurreko egiaztapenak egiaztapeneko kodearen bitartez egiterik dagoenean.

**28. artikulua. Aurrezpen zergatasunaren alorreko ziurtagiria Europar Batasunean.**

...

**4. AZPIATALA.**
**ZERGEN ARLOKO LAGUNTZA JARDUNAK.**

**29. artikulua. Zergen arloko laguntza jardunak.**

1. Zergen arloko laguntza jardunak Zerga Administrazioak zergadunen eskura jartzen duen jardun multzoa dira, horren bitartez eskubideak baliatzen direla eta betebeharrak betetzen direla errazte aldera.

2. Beste hainbat jardunen artean, zerga-kudeaketaren eremuan, zergen arloko laguntza autolikidazioak eta aitorpenak egiteko eta zergapekoari likidazio-proposamenen berri emateko izan ahalko da, araudi honetako 90. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzetan.

3. Aipatutako jardun horiek egiteak ez du galaraziko aurrerago kudeaketa edo ikuskapen prozedurak hastea.

   Administrazioak egindako aitorpen eta autolikidazioetan edo zergadunari jakinarazi zaizkion likidazio proposamenetan bildutako datu, zenbateko edo kalifikazioek ez dute Administrazioa lotuko aurrerago egin daitezkeen egiaztapen jardunak egikaritzeko.

**30. artikulua. Autolikidazioak egitea.**

Autolikidazioak egiten diren kasuan, kudeaketa organoek, zergaduna bertan egonda, hark emandako datuen transkripzioa eta kalifikazioa egingo du eta datu horiei zergen arloko araudia aplikatuko zaie. Helburua zerga zorra zehaztea izango da, edo, bestela, itzuli edo konpentsatu beharreko zenbatekoa zehaztea. Horretarako, ereduaren azken bertsioa entregatuko da, interesdunak berrikusi eta sinatu dezan egoki iritziz gero.

Aldi berean, zergadunak emandako datuak alderatu, eta Ogasuna eta Finantzak Sailaren datu-baseetan ageri direnekin bat egiten duten egiaztatuko da.

**31. artikulua. Laguntzarako programa informatikoak.**

1. Zerga Administrazioak laguntzarako programa informatikoak eman ahalko dizkiete zergadunei, horien bitartez aitorpenak eta autolikidazioak egin ditzaten. Programa horiek kasuan kasuko eredua onartzen duen Ogasuna eta Finantzak Saileko diputatuaren Foru Aginduan ezarritakora egokituko dira.

   Halaber, laguntza eta sorospenerako beste programa batzuk eman ahalko dira, zergadunei informazioa eta laguntza emateko betebeharraren esparruan, horren bitartez zerga betebeharrak betetzen dituztela errazte aldera.

2. Zergadunak egin ahal dituen akatsek, Zerga Administrazioak zerga betebeharrak betetzeko emandako laguntzarako programa informatikoen akats tekniko bati egozteko modukoak badira, ez dute zergen arloko arau-hausteagatiko erantzukizunik ekarriko, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 184. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

### 32. artikulua. Zergadunei laguntzeko baliabide telematikoak erabiltzea.

1. Zerga betebeharrak betetzeko laguntza, lehentasunez, bide telematikoak erabilita eskainiko da. Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputatuaren foru-agindu bidez, eskura dauden baliabideak eta aplikatu beharreko teknologiaren egoera kontuan hartuta, kasu bakoitzerako zehaztuko da zein den laguntza horren helmena, zer pertsonaren bidez eskainiko den, eta aurkezteko modua eta betekizunak. Halaber, bide telematikotik emandako laguntza hori automatizatuta zein kasutan emango den zehaztuko da, araudi honetako 38. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

2. Baliabide hauen erabilerarekin ahalik eta zergadun gehien hartzeko saiakera egingo da. Horretarako, laguntza programak eta bide telematikotik eskainitako zerbitzuak beste baliabide batzuekin ere eskainiko zaizkie artikulu honetan aurreikusitakoetara iristerik ez dutenei, betiere, eskura dauden baliabide teknikoekin hori egitea posible bada.

   Zehazki, telefono bidezko laguntza eskainiko zaie zergapekoei.

## 2. ATALA.
## GIZARTE LANKIDETZA ZERGEN KUDEAKETAN.

### 33. artikulua. Gizarte lankidetzaren subjektuak, zergen kudeaketan.

1. Zerga Administrazioak eraginkor bihurtu ahalko du gizarte lankidetza zergen kudeaketan, horretarako hurrengoekin hitzarmenak eratuta:

   a) Beste herri administrazio batzuekin.

   b) Zerga-bilketaren kudeaketan laguntzaile izatearen izaera duten entitateekin.

   c) Gizarteko, laneko, enpresako edo lanbideko sektore edo interesen ordezkari diren erakunde eta antolamenduekin. Horren eraginetarako, talde honen barruan sartutzat hartzen dira elkargoa duten lanbide ofizialak.

   d) Jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona edo entitateekin, horien kokaleku geografikoak edo merkataritza sareak Zerga Administrazioaren helburuak lortzen lagundu badezake.

   e) Ogasuna eta Finantzak Saileko foru diputatuak ezartzen dituen beste pertsona edo entitate batzuekin.

2. Aurreko 1.c) idatz-zatian aurreikusitako erakunde eta antolaketekin sinatutako gizarte lankidetzako hitzarmenek haietako elkargokide, elkartekide edo kide diren pertsona edo entitateenganaino zabaldu ahalko dituzte eraginak. Horretarako, pertsona edo entitate interesdunek banako agiria sinatu beharko dute hitzarmenera atxikitzeko. Bertan, beren beregi jasoko da hitzarmenaren eduki osoa onartzen dela.

   Hala eta guztiz ere, notarioen eta erregistratzaileen antolamendu korporatiboek lankidetza hitzarmenak sinatzen badituzte, horiek elkargokide diren profesional guztiak lotuko dituzte, akordio horiei banaka atxikitzea beharrezkoa izan gabe. Korporazioko antolamenduarekin sinatutako hitzarmenak inguruabar hori jasoko du.

3. Lankidetza hitzarmena sinatu duten entitateek, erakundeek eta antolaketek gain hartutako betebeharrak betetzen ez badira, horrek aipatutako hitzarmena amaitzea ekarriko du, kasuan kasuko espedientea izapidetu eta interesdunak esateko duena entzun eta gero.

Aurreko 2. idatz-zatiak aipatutako banako atxikipen agirian gain hartutako betebeharrak pertsona edo erakunde batek urratzen baditu, horrek pertsona edo entitate hori hitzarmenetik kanpo uztea ekarriko du, aurreko paragrafoan aurreikusitako prozedura eta berme berdinekin, eta eraginik gabe geratuko da banako baimena.

### 34. artikulua. Gizarte lankidetzaren edukia zerga kudeaketan.

Aurreko artikuluak aipatutako subjektuek zerga kudeaketako eginkizunak egiterakoan lagundu ahalko dute. Gizarte lankidetza hori, besteak beste, hurrengo alderdien gainekoa izan ahalko da:

a) Xedapen orokorrak landu eta aplikatzearekin eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 55. artikuluko 1. idatz-zatiko b) eta c) letrek adierazitako baliabideak aplikatzearekin zerikusia duten txostenak egitea.

b) Informazio eta barreiapen kanpainak egitea.

c) Zerga betebeharrak betetzeko erraztasunak ematea.

d) Autolikidazioak eta aitorpenak egiterakoan eta horiek behar bezala osatzerakoan laguntza ematea.

e) Administrazioari autolikidazioak, aitorpenak edo zergen arloan garrantzia duen beste edozein agiri aurkeztu edo bidaltzea, aldez aurretik zergadunen baimena eskuratu eta gero.

f) Akatsak konpontzea, zergadunen aldez aurretiko baimena edukita.

g) Itzulketen izapidetze egoerari buruzko informazioa ematea, zergadunen aldez aurretiko baimena edukita.

h) Zerga ziurtagiriak eskatu eta eskuratzea, zergadunen aldez aurretiko baimena edukita.

### 35. artikulua. Baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzea gizarte lankidetzan.

1. Gizarte lankidetzako jardunak baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabilita egitea posible denean, araudi honetako 36. artikulutik 40.era bitartekoetan aurreikusitakoa aplikatuko da, biak barne.

2. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 91.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, Zerga Administrazioak betekizunak eta baldintzak ezarri ahalko ditu, gizarte lankidetza teknika eta baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiliz egin dadin.

   Ogasuna eta Finantzak Saileko foru diputatuak, gizarte lankidetzako akordioen esparruan, autolikidazioak edo zergen arloan garrantzia duen beste edozein agiri teknika eta baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabilita aurkeztu eta bidaltzeko betekizunak eta baldintzak ezarriko ditu Foru Agindu bidez.

## 3. ATALA.
## BALIABIDE ELEKTRONIKOAK, INFORMATIKOAK ETA TELEMATIKOAK ERABILTZEA ZERGEN KUDEAKETAN.

### 1. AZPIATALA.
### XEDAPEN OROKORRAK.

#### 36. artikulua. Teknologia informatikoak eta telematikoak erabiltzea.

1. Kudeaketa eginkizunak betetzen dituzten organoek sustatu egingo dute beren jarduerak garatzeko eta beren eskumenak baliatzeko behar diren teknika eta baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiltzea.

2. Zerga Administrazioak ezarri ahal izango du zerga-betebeharrak eta Ogasun eta Finantza Sailarekiko harremana Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez soilik betetzea, zergapekoen egoera edozein dela ere, eta araudi honen 32. artikuluan betebehar horiek betetzea errazteko aurreikusitako laguntza- lanak eskainiko dira.

3. Beren zerga-betebeharrak betetzeko eta Ogasun eta Finantza Sailarekin harremanetan jartzeko betebeharra izango dute, Bizkaiko Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bitartez:

   a) Pertsona juridikoek, erakundeek eta sozietateen gaineko zergaren gainerako zergadunek.

   b) Jarduera horiekin lotutako jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoek.

   c) Jaraunspen jasogabeek, ondasun-erkidegoek eta nortasun juridikorik gabeko gainerako erakundeek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 34.3 artikuluan adierazten direnek.

   d) Aurrekoak ez diren beste batzuek, hala ezarrita badago zerga bakoitzaren araudian, zerga-betebehar formalen araudian edo informazioa emateko zerga- betebeharrei buruzko araudian.

4. Aurreko apartatuan xedatutakoari kalterik egin gabe, zergapekoek zerga-administrazioarekin harremana izateko eskubidea izango dute, beren eskubide eta betebeharrak erabiltzeko teknika eta baliabide elektronikoen, informatikoen edo telematikoen bitartez, prozedura bakoitzean ezarritako berme eta betekizunekin.

5. Era berean, zerga-izaerako beste zerbitzu batzuk erabiltzeko derrigortasuna ezarri ahal izango da inguruabarrek hala egitea gomendatzen dutenean, kontuan izanik, batetik, errealitate sozioekonomikoa, eta, bestetik, zenbait agente ekonomiko eta soziali eska dakiekeen erantzunkidetasun fiskala.

6. Teknika eta baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoak erabiltzen direnean, errespetatu egin beharko da datu pertsonalen babeserako eskubidea, kontuan harturik zer ezartzen den Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoan, zeinak 95/46/EE Zuzentaraua derogatzen duen.

7. Zergen arloko jardunak eta prozedurak jasotzen dituzten administrazio espedienteak, lehentasunez, euskarri elektronikoan jasoko dira, teknologia informatikoak edo telematikoak erabilita, atal honetan ezarritako baldintzak eta mugak kontuan hartuta.

#### 37. artikulua. Identifikazio-, autentifikazio- eta sinadura-sistemak.

1. Zerga-administrazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuak, Administrazio Elektronikoari buruzkoak, 14.etik 18.era bitarteko artikuluetan eta

hura garatzen duen araudian ezarritako edozein sistema erabiliko du elektronikoki identifikatzeko eta sortzen diren dokumentu elektronikoak autentifikatzeko.

2. Zergapekoek harreman elektronikoa izango dute zerga-administrazioarekin, eta, horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuaren 10.etik 13.era bitarteko artikuluetan eta hura garatzeko araudian ezarritako identifikazio-, autentifikazio- eta sinadura-sistemetako edozein erabili ahal izango dute.

   Era berean, zerga bakoitzari dagokion araudiak, edo zerga-betebehar formalak edo informazioa ematekoak arautzen dituenak, beste sistema batzuk ezarri ahal izango ditu zergapekoak identifikatzeko, autentifikatzeko eta sinatzeko.

3. Jarduketak telefono bidez egiten diren kasuetan, zerga-administrazioaren esku dauden kontraste-datuak erabili ahal izango dira, datu horien bidez, jarduketak zein zergapekorekin egiten diren identifikatzeko.

**38. artikulua. Jardun automatizatua.**

1. Jardun automatizatutzat hartzen da egoki programatutako informazio sistema batek sortutakoa, pertsona fisikoak kasu zehatz bakoitzean esku hartu beharra eduki gabe. Izapide egintzak eta prozedurak ebaztekoak sortzea ere barne hartzen da, komunikazio egintza soilak bezala.

2. Administrazio jardun automatizatuan eskumenak baliatzerakoan horiek identifikatu eta kautotzeko, Zerga Administrazioak sinadura elektronikoko hurrengo sistemak erabiliko diren kasuak zehaztu ahalko ditu:

   a) Herri Administrazioaren, organoaren edo zuzenbide publikoko entitatearen zigilu elektronikoa, sinadura elektronikoko legediak exijitutako betekizunak biltzen dituen ziurtagiri elektronikoan oinarrituta.

   b) Herri Administrazioari, organoari edo entitateari eta, hala badagokio, agiria sinatzen duenari uztartutako egiaztapeneko kode ziurra. Edonola ere, agiriaren osotasuna egiaztatzeko aukera ematen da, kasuan kasuko egoitza elektronikora sartzearen bitartez.

3. Aurreko 1. a) idatz-zatian aipatutako ziurtagiri elektronikoek identifikazio fiskaleko zenbakia eta kasuan kasuko izendapena erantsiko dituzte, eta titularraren nortasuna ere ageri ahalko da administrazio organoen zigilu elektronikoen kasuan.

**39. artikulua. Aplikazioen onarpen eta barreiapena.**

1. Aurreko artikuluak heldutako jardun automatizatuko kasuetan, informazioaren tratamendua egiten duten aplikazio informatikoak eta horiek ematen duten emaitza Zerga Administrazioak erabiliko baditu bere eskumenak egikaritzeko, eta emaitza horren bitartez administrazio jardueren edukia zuzenean zehazten bada, aldez aurretik onetsitakoak izan behar dira organoaren ebazpenaren bitartez. Organo hori erantzule gisa hartu behar da kasuan kasuko administrazio egintzak aurkaratzearen eraginetarako.

2. Interesdunek aplikazio horien zerrenda ezagutu ahalko dute Zerga Administrazioaren web orrialdean kontsulta eginez. Aplikazio horiek komunikazio ziurrerako aukera edukiko dute, araudi honetako 37. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

**40. artikulua. Agiri euskarrien baliokidetasuna.**

1. Baliabide elektronikoak erabilita eta elektronikoki sinatuta egiten diren agiri publiko administratiboen paperezko kopiak benetako kopiatzat hartuko dira, betiere, elektronikoki sortutako egiaztapeneko kode ziurra edo Herri Administrazio, organo edo erakunde egilearen agiritegira sartuz egiazkoa dela ziurtatzea ahalbidetzen duen beste egiaztapen sistemaren bat badaramate.

2. Interesdunek jakin ahalko dute zer agiri eman den egiaztapeneko kode ziur batekin edo paperezko kopiaren egiazkotasuna agiriaren emailearen agiritegietara elektronikoki sartuz ziurtatzea ahalbidetzen duen beste edozein egiaztapen sistema batekin. Horretarako, horren berri emango da kasuan kasuko zerga administrazioaren web orrialdean.

3. Zerga Administrazioak agirien irudi elektronikoak eskuratu ahalko ditu, baliozkotasun eta eraginkortasun berdinarekin, eta egiazkotasuna, osotasuna eta irudi agiria mantentzea bermatuko duen digitalizazio prozesu bate erabiliko da. Hori egin izanaren berri jaso egin beharko da. Kasu horretan, jatorriko agiria deuseztatu ahalko da, betiere, legeko edo araudiko arauren batek berariaz mantentzeko betebeharra ezartzen ez badu.

4. Espediente elektronikoa administrazio prozedura bateko agiri elektroniko guztien multzoa da, bertan bildu den informazio mota edozein dela ere.

   Espediente elektronikoetan orrialdeak zenbatzeko aurkibide elektronikoa erabili ahalko da, Administrazio, organo edo erakunde jarduleak sinatu edo zigilaturikoa kasu bakoitza gorabehera. Aurkibide horrek bermatu egingo du espediente elektronikoaren osotasuna, eta aukera emango du hura berreskuratzeko beharrezkoa den bakoitzean. Agiri berdin bat espediente elektroniko ezberdinetan agertzea onargarria izango da.

   Espedienteen bidalketa ordezkatu egin ahalko da legezko eragin guztietarako espediente elektronikoa eskura jartzearekin, eta interesdunak haren kopia bat eskuratzeko eskubidea edukiko du.

## 2. AZPIATALA.
## BIDE ELEKTRONIKOAK, INFORMATIKOAK EDO TELEMATIKOAK ERABILTZEA OGASUN ETA FINANTZA SAILAREKIKO HARREMANETAN.

### 41. artikulua. Ogasun eta Finantza Saileko zerbitzu elektronikoak, informatikoak eta telematikoak.

1. Ogasun eta Finantza Sailak beharrezko teknika eta baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzea erraztuko du, horren bitartez zergadunek zerga -betebeharrak bete ditzaten eta horiekin zerikusia duten beste zerbitzu batzuk eman daitezen.

2. Ogasun eta Finantza Sailak ematen dituen zerbitzu telematikoetara iristea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez eta www.bizkaia.eus atariaren bitartez egingo da; Bizkaiko Foru Aldundiak herritarren eskura jarritako egoitza elektronikoaren helbidea da, eta informaziorako sarbidean eta jardueren izapideetan segurtasun-berme guztiak eskaintzen ditu.

3. Egoitza elektronikotik, zerga-izaerako zerbitzu ezberdinak eskuratuko dira, eta, horietarako, interesdunak identifikatu egin beharko dira, helburu horretarako ezarritako identifikazio-sistemak erabiliz, araudi honen 37. artikuluaren 2. apartatuan xedatutakoaren arabera.

4. Zerga-administrazioak zehaztuko ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egin daitezkeen zerga-izapide eta -kudeaketak, kontuan harturik zer baliabide dagoen eskuragarri eta zein den aplikatu beharreko teknologiaren egoera.

### 42. artikulua. BizkaiBai zerbitzua.

...

### 43. artikulua. BizkaiBaira sartzeko moduak.

...

### 44. artikulua. BizkaiBai Zerbitzura sartzea.

...

### 45. artikulua. Eskabideak ukatzea eta baimendutakoak ezeztatzea.

...

### 46. artikulua. Bizkaibai Zerbitzura sartzetik eratorritako erantzukizunak eta bermeak.

...

### 47. artikulua. Bizkaibai Zerbitzuaren derrigorrezkotasuna zergen arloko harremanetan.

...

### 48. artikulua. Bizkaibai Zerbitzuaren erabilera telematikorako hitzarmenak edo akordioak.

...

### 49. artikulua. Ordezkaritza.

...

## 3. AZPIATALA.
## EDITRAN SISTEMA.

### 50. artikulua. Editran.

1. Editran Sistema Ogasuna eta Finantzak Sailak ezarri duen baliabidea da, telematikoki zerga eredu batzuk aurkezteko teleprozesu bitartez.

2. Ogasuna eta Finantzak Saileko foru diputatuak Foru Agindu bitartez arautu ahalko du Editran bidez aurkezpen telematikoa egiteko ezarpen eremua, baldintza orokorrak eta prozedura, zenbait zergadun eta zerga ereduri dagokienez.

3. Entitateek Editran bitartez transmitituko dizkiote aitorpen telematikoak Ogasuna eta Finantzak Sailari, aipatutako foru aginduaren ezaugarriei jarraiki.

   Agiritegi horretan bildutako informazioak bat etorri behar du aitorpen eredu ezberdinak onesten dituen foru agindu bakoitzean ezarritako diseinu logiko eta fisikoekin.

# III. TITULUA.
# ZERGA KUDEAKETAKO JARDUN ETA PROZEDUREI BURUZKO ARAU KOMUNAK.

## I. KAPITULUA.
## ZERGEN ARLOKO ADMINISTRAZIO PROZEDUREN BEREZITASUNAK.

## 1. ATALA.
## ZERGA KUDEAKETAKO JARDUNEN ETA PROZEDUREN HASTAPENA.

### 51. artikulua. Ofiziozko hastapena.

1. Jardunak eta prozedurak ofizioz hasteko beharrezkoa izango da organo eskudunak hasiera onesteko akordioa eratzea norberaren ekimenez, goragoko agindu baten ondorioz edo beste organo batzuen eskaera arrazoitu bidez.

2. Prozeduraren hasiera zergadunari jakinarazi beharko zaion berriemate bitartez egingo da.

   Hori aurreikusten denean, prozedura zuzenean hasi ahalko da ebazpen edo likidazio proposamena jakinaraztearekin.

3. Hasierako berriemateak, egoki irizten denean, araudi honetako 61.1 artikuluan aurreikusitakoaz gain, hurrengo alderdiak bilduko ditu ere:

   a) Hasten den prozedura.

   b) Prozeduraren xedea. Beren beregi adieraziko dira zerga betebeharrak edo haien elementuak eta, hala badagokio, baita zergaldiak edo likidazio aldiak edo denbora tartea ere.

   c) Zergadunari egin ahal zaion agindeia eta hari erantzuteko edo hura betetzeko ematen den epea.

   d) Ebazpen edo likidazio proposamena, Administrazioak horretarako behar den informazioa duenean.

4. Zergadunari 10 egunetik beherakoa izango ez den epea emango zaio, hasierako berriematea jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita, agertu, eskatutako agiriak eta komenigarritzat jotakoak aurkeztu, edo egoki iritzitako alegazio guztiak egiteko.

**52. artikulua. Zergadunak eskatuta hastea.**

1. Zergadunak eskatuta prozedura hasteko, autolikidazioa, aitorpena, eskabidea edo aplikatu beharreko araudian aurreikusitako beste edozein bide erabili ahalko da. Horiek guztiak paperean edo baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabilita aurkeztu ahalko dira, betiere, Administrazioaren aukera teknikoek horretarako aukerarik ematen dutenean.

2. Prozedura eskabide bidez hasten denean, horrek, gutxienez, hurrengo alderdiak bildu beharko ditu:

   a) Izen-deiturak edo sozietatearen izena edo izendapen osoa, zergadunaren identifikazio fiskaleko zenbakia eta, hala badagokio, baita ordezkariarena ere.

   b) Eskabidean zehaztutako egitateak, arrazoiak eta eskaera.

   c) Tokia, data eta eskatzailearen sinadura, edo benetan bere borondatea dela erakusteko zuzenbideko edozein eratako egiaztapena.

   d) Hartzaile izango den organoa.

3. Ordezkari baten bitartez jarduten bada, ordezkaritza frogatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.

4. Zerga Administrazioak, onetsi izan eta gero, zergadunen eskura jarriko ditu autolikidaziorako, aitorpenerako, eskaeretarako ereduak edo zerga araudian aurreikusitako beste edozein baliabide, bide telematikoak hobetsiz. Halaber, kasuan kasuko bulegoetan horiek jarriko dira, zergadunentzat errazagoa izan dadin eskatutako datuak eta informazioak aurkeztea edo kasuan kasuko prozedura izapidetzea sinpleagoa izan dadin.

5. 1. idatz-zatian aipatutako agiriak paperean aurkezten direnean, zergadunak kopia zigilatua eskuratu ahalko du originalekin batera aurkeztuz gero. Kopia horretan tokia eta data azalduko dira.

6. Interesdunak aurreko idatz-zatietan aipatutako agiriak euskarri, baliabide edo aplikazio informatiko, elektroniko edo telematikoen bitartez aurkezten baditu, jaso egin beharko dira bertan Zerga Administrazioak prozedura hasteko exijitzen dituen datu guztiak.

   Kasu horietan, jaso izanaren agiria erabilitako euskarri, baliabide edo aplikazioaren ezaugarriei jarraiki egingo da.

Baliabide informatikoak, elektronikoak edo telematikoak erabilita aurkezten denarekin batera agiriak eransten badira, eta sistemak zuzeneko ekarpena ahalbidetzen ez badu, zergadunak aplikatu beharreko araudian aurreikusitako administrazio erregistroetatik edozeinetan egin beharko du horien aurkezpena 10 eguneko epean. Berariazko araudiak toki eta epe ezberdinak ezartze baditu salbu, epea aurkezpenaren egunetik bertatik hasten da, eta ez da beharrezkoa izango aldez aurretik horretarako agindeirik egitea. Agiri horietan behar bezala identifikatuko da baliabide edo teknika elektronikoen, informatikoen edo telematikoen bitartez aurkeztutako eskabidea edo berriematea.

**53. artikulua. Zuzenketa.**

1. Hasteko agiriak ez baditu betetzen aurreko artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan adierazitako betekizunak eta aplikatu beharreko araudiak exijiturikoak, interesdunari agindeia egingo zaio 10 eguneko epean edo berariazko araudian ezarritakoan, gabezia hori zuzentzeko edo derrigorrez behar diren agiriak aurkezteko. Epea agindeia jakinarazten den egunaren biharamunetik hasten da, eta jakinarazi egingo zaio interesdunari aurkeztu beharrekoa aurkeztu ezean atzera egin duela ulertuko dela eta eskaera bestelako izapiderik gabe artxibatuko dela.

2. Dauden akatsengatik erabakitzen bada baliabide eta teknika elektroniko, informatiko eta telematikoen bitartez aurkezpenak egitea ez dela egokia, errefusatu egingo dira bide horien bitartez egiten diren aurkezpenak.

3. Teknika eta bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen bidez eskuratzen dena behin-behinekoa izango da prozesatzen den arte. Aurkezpenak egokitzen ez zaizkienean aplikatu beharreko araudiak ezarritako diseinu eta gainerako zehaztapenei, aitorpenaren egileari eskatuko zaio 10 eguneko epean ageri diren akatsak konpon ditzala. Epea berriematea egiten den egunaren biharamunetik aurrera hasiko da. Behin epe hori igarota, Administrazioari datuak ezagutzea galarazten dioten akatsak mantentzen badira, eskaeran atzera egin dela ulertuko da edo kasuan kasuko betebeharra bete ez dela ulertuko da.

## 2. ATALA.
## ZERGA KUDEAKETAKO JARDUNEN ETA PROZEDUREN IZAPIDETZEA.

**54. artikulua. Zerga jardunen tokia eta ordutegia.**

Bulego publikoetan garatzen diren jardunak jendaurreko ordutegi ofizialaren barruan egingo dira, eta, edonola ere, lanaldiaren barruan.

**55. artikulua. Izapidetze epeak zabaldu eta atzeratzea.**

1. Prozedura izapidetzeko ardura duen organoak, zergadunek eskatuta, izapideak betetzeko ezarri diren epeak zabaltzea onartu dezake, betiere, epe horien erdia gainditu gabe.

2. Epe bakoitza behin baino zabaltzea ez da onartuko.

3. Zabaltzea onartu ahal izateko, beharrezkoak izango dira hurrengo eskakizunak:

   a) Zabaldu nahi den epea amaitu baino aurreko hiru egunak baino lehen eskatzea.

   b) Horrelakorik egitea gomendatzen duten inguruabarrak agertzen direla bidezkotzea.

   c) Hirugarren batzuen eskubideak ez kaltetzea.

4. Eskabidea epe barruan aurkezten bada, hasiera batean ezarritako epearen erdiaren luzapena automatikoki ematen dela ulertuko da, betiere, ezetza beren beregi jakinarazten ez bada zabaldu nahi den epea amaitu aurretik.

Zabaltzea onartzen dela dioen jakinarazpen zehatza hasiera batean finkatutako epea agortu baino lehen egiten denean, hark aurreko paragrafoan aurreikusitako zabaltze epea ez den beste ezberdin edo murritzago bat ezarri ahalko du.

5. Finkatu ahal izan diren toki, egun eta orduan agertzea galarazten duten inguruabarrak agertzen direla bidezkotzen duenean zergadunak, epea luzatzea eskatu ahalko du agindeia jakinarazten den egunetik hurrengo hiru eguneko epean. Hitzordura agertzea galarazten duen inguruabarra aipatutako hiru eguneko epea igarota jazotzen denean, luzapena eskatu ahalko da agerpenerako adierazitako data baino lehen.

   Kasu horietan, agerpenerako data berri bat jarriko da.

6. Luzapena edo atzerapena emateko edo ukatzeko erabakiaren aurka ezingo da errekurtso edo erreklamazio ekonomiko-administratiborik jarri.

**56. artikulua. Agiriak aurkeztea eta hirugarren batzuen datuak berrestea.**

1. Zerga kudeaketako prozeduraren xede izaten ari den zergadunari datuak, txostenak, aurrekariak eta frogagiriak eskatzen zaizkionean, eta prozedura arautzen duen araudian ezarritako eskumenekin bat eginez, eskaera horien aurka ezingo da errekurtso edo erreklamazio ekonomiko-administratiborik jarri, betiere, kasuan kasuko prozeduraren ondorioz egindako administrazio egintzaren aurka jar daitezkeen errekurtsoen kaltetan izan gabe.

2. Zerga kudeaketako prozedura batean zergadunak alegatu egiten badu aitorpenetan edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 92. eta 93. artikuluetan bildutako informazioa hornitzeko betebeharra betetzeko egindako agindeiei emandako erantzunetan sartutako datuak zehatzak ez direla edo gezurra direla, 15 eguneko epea edukiko du aipatu alegazioa egiteko, eta epea Zerga Administrazioak datu horiek jakinarazten dituen egunaren biharamunetik aurrera hasiko da.

**57. artikulua. Zergadunek prozeduren izapidetze egoera ezagutzea.**

1. Prozedura baten xede izaten ari diren zergadunek edozein unetan eskatu ahalko dute prozedura horren izapidetze egoerari buruzko informazioa.

2. Informazioa eskatzerakoan argi eta garbi adierazi beharko dira izen-deiturak, edo sozietatearen izena edo izendapen osoa eta eskatzen duen pertsona edo entitatearen identifikazio fiskaleko zenbakia. Halaber, zergadunaren sinadura edo bere borondatea benetakoa dela ziurtatu beharko da, beste edozein bide erabilita.

   Ahal bada, interesdunak eskabidean erabilitako bide berdinaren bitartez emango da informazioa, eta prozedura zein fasetan dagoen, egindako azkeneko izapidea zein izan den eta hura osatu zen data adieraziko dira.

**58. artikulua. Administrazioaren agiritegi eta erregistroetara sartzea.**

1. Prozeduran alderdi izan diren zergadunek amaitutako espediente baten barruan dauden erregistro eta agiriak eskuratu ahalko dituzte, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 97.6 artikuluan ezarritako baldintzetan.

2. Espedientea izapidetu zuen organoak eskuratze horretarako eskaera ebatziko du gehienez ere hilabeteko epean. Denbora hori igarotzen bada espresuki erantzunik eman gabe eskuratze eskaerari, gaitz iritzitzat hartu ahalko da eskaera.

   Ebazpena oneslea balitz, espedientean eskuratze horren berri emango da.

3. Eskuratze eskubideak berekin darama aztertzea baimendu diren agirien kopia eskuratzea, eta horretarako hurrengo artikuluan aurreikusitako baldintzak beteko dira.

4. Espedientea eratzen duten agiriak baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoetan gordeta daudenean, interesdunari agiriak baliabide horien bitartez eskuratzeko aukera emango zaio, betiere, aukera teknikoei begiratuta hori posible bada, ezartzen diren zehaztapenak eta bermeak betetzen badira eta Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa jarraitzen bada.

### 59. artikulua. Kopiak eskuratzea.

1. Zergadunak, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 97.5 artikuluan ezarritako baldintzetan, eskatzen diren eta espedientean ageri diren agirien kopiak eskuratu ahalko ditu bere kontu eta banako eskabidea egin ondoren. Espedientearen eduki osoaren gaineko eskaera orokorra egiterik ez dago, eta eskaerak ere ez du galaraziko zerbitzu publikoen jardunbideak eraginkorra izaten jarraitzea.

   Hurrengo artikuluan xedatutakoaren kaltetan izan gabe, eskaera espedientea erakusten denean egin beharko da edo amaitutako espedienteen administrazio agiritegi eta erregistrora sartzerik dagoenean. Frogagirien edo agirien zatiak atera ahalko dira, edo zergadunari eragiten ez dioten datuen konfidentzialtasuna mantentzea ahalbidetzen duten beste metodo batzuk erabili.

2. Organo eskudunak kopiak emango ditu, eta zergadunak horiek jaso dituela adieraziko du.

3. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 97.5 artikuluan adierazitako inguruabarretatik bat edo beste agertzen dela igartzen denean, ukatu egingo da ebazpen arrazoitu bidez kopiak eskuratzeko aukera.

4. Zergadunek aitorpen eta autolikidazio guztiak nahiz ziurtagirien eskabideak baliabide elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabilita aurkeztu badituzte, kopiak lehentasunez helaraziko dira baliabide horiek erabilita edo baliabide horiekiko egokiak diren euskarrietan, betiere, aukera teknikoei jarraiki hori posible bada.

### 60. artikulua. Entzunaldi eta alegazio izapideak.

1. Entzunaldi izapidean espedientearen berri emango zaio zergadunari. Bertan, egindako jardunak, Administrazioaren esku dauden froga elementu guztiak eta beste organo batzuek egindako txostenak sartuko dira. Halaber, zergadunek entzunaldi izapidea baino lehen aurkezteko eskubidea duten alegazio eta agiri guztiak erantsiko dira. Horiek aintzat hartuko dituzte organo eskudunek, kasuan kasuko ebazpen edo likidazio proposamena idazterakoan.

   Izapide horretan, zergadunak espedienteko agirien kopia eskuratu ahalko du aurreko idatz-zatian ezarritako balditzetan, eta, halaber, agiri eta frogagiri berriak aurkeztu eta egoki irizten dituen alegazioak egin.

   Ebazpen edo likidazio proposamena eta gero alegazio izapidea aurreikusita egoteagatik entzunaldi izapidea baztertzen duten prozeduretan, Zerga Administrazioak proposamenaren berri emango dio zergadunari, hark egoki irizten dituen alegazioak egin ditzan. Izapide horretan aurreko paragrafoetan xedatutakoa aplikatuko da.

2. Entzunaldi epea edo, bestela, alegazioen epea agortu baino lehen zergadunak alegaziorik ez egiteko edota agiri edo frogagiri berririk ez aurkezteko erabakia adieraziko balu, izapidea egindakotzat hartuko litzateke eta espedientean jasoko litzateke inguruabar horren berri.

3. Entzunaldiaren izapidea, edo, bestela, alegazioak egiteko epea baztertu ahalko da, prozeduran ageri ez direnean edo ebazpenean aintzat hartzen ez direnean interesdunak aurkeztutako alegazio eta frogak edo egitateak ez diren beste batzuk, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 124. artikuluan aurreikusitako kasuetan, edo prozedura bakoitzeko berariazko araudiak horrelakorik ezartzen duenean.

Aurreko paragrafoan ezarritakoari jarraiki alegazioak egiteko epea baztertzen denean, ebazpen edo likidazio proposamena zergadunari jakinarazi beharra ere baztertu ahalko da.

4. Behin entzunaldi edo, bestela, alegazio izapidea eginda, ezingo da espedientera egitateak frogatzeko agiri gehiago erantsi, betiere, izapide hori amaitu baino lehen aurkeztea ezinezkoa izan zela frogatzen ez bada eta ebazpena eman baino lehen aurkezten bada.

5. Entzunaldiaren, edo, bestela, alegazioen izapidea amaituta, izapidetzeko organo eskudunak ebazpen edo likidazio proposamena eramango dio ebazteko eskumena duen organoari, betiere, aldez aurretik, egin ahal izan diren alegazioak baloratu eta gero.

## 3. ATALA.
## ZERGA KUDEAKETAKO JARDUNEN ETA PROZEDUREN AGIRIAK.

### 61. artikulua. Berriemateak.

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 97.8 artikuluak heldutako berriemateak, gutxienez, hurrengo datuen gaineko aipamen espresa jasoko du:

   a) Zein toki eta egunetan luzatu den.

   b) Hartzaile izango den pertsonaren edo entitatearen izen-deiturak edo sozietatearen izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

   c) Hartuko duten tokia.

   d) Jakinarazten diren egitateak edo inguruabarrak edo berriemate bitartez egiten den agindeiaren edukia.

   e) Organo igorlea.

2. Berriemateak zergadunari jardun edo prozedura baten hasiera jakinarazteko balio duenean, edukiak araudi honetako 51.3 artikuluan ezarritakoa ere jasoko du.

3. Jakinarazpenak zergadunari jakinaraziko zaizkio, eta espedientean sartuko dira.

### 62. artikulua. Dilijentziak.

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 97.8 artikuluak heldutako dilijentzietan, hurrengo alderdiak jasoko dira halabeharrez:

   a) Zein toki eta egunetan luzatu den.

   b) Esku hartzen duen zerga administrazioaren zerbitzura dagoen pertsonaren izen-deiturak eta sinadura.

   c) Jardunetan aritzen den pertsonaren izen-deiturak, identifikazio fiskaleko zenbakia eta sinadura, behar denean, eta beraren izaera edo ordezkaritza.

   d) Izen-deiturak edo sozietatearen izena edo izendapen osoa, eta jardunen xede den zergadunaren identifikazio fiskaleko zenbakia.

   e) Dilijentziaren prozedura edo jarduna.

   f) Jasotzen diren egitate eta inguruabarrak.

   g) Zergadunak zergen arlorako garrantziarekin egiten dituen alegazio edo adierazpenak. Horien artean jasotzen diren egitateekiko eta inguruabarrekiko adostasuna edo ez agertu beharko da.

2. Dilijentzietan, besteak beste, hurrengo edukiak jaso ahalko dira:

   a) Jardunaren edo prozeduraren hasiera, eta zergadunei egiten zaizkien berriemate edo errekerimenduak.

   b) Informazioa eskuratzeko bideratutako jardunen emaitzak.

   c) Betebeharrak egiaztatzetik etorritako egintzak.

   d) Zergadunak administrazio organo eskudunaren aurrean pertsonalki agertu izanaren ondorioz emandako ordezkaritza.

3. Dilijentzietan beste prozedura bat hasteko erabakigarriak diren egitateak eta inguruabarrak agertu ahalko dira, edo jada hasita dagoen beste batean sartu beharrekoak bestela. Halaber, dilijentziek, besteak beste, hurrengo datu, ekintza edo egitateak bildu ahalko dituzte:

   a) Zerga arau-hausteak eratu ditzaketen ekintza edo alderauzketak.

   b) Laidotuaz gainera beste nornahik eskatuta pertsegitu ezin diren delituak izan daitezkeen ekintzak edo alderauzketak.

   c) Zorraren eta zerga zehapenaren erantzule solidario edo subsidiario izan daitezkeenen izen-deiturak edo sozietatearen izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eta baita erantzukizuna zehazterakoan erabakigarri izan daitezkeen inguruabarrak eta aurrekariak ere.

   d) Zerga egoitza egiaztatzeko prozedura hastea eragiten duten egitateak.

   e) Merkataritza, finantza edo bestelako legediak urratu ditzaketen egitateak.

   f) Administrazio berdineko edo beste administrazio bateko organoentzat garrantzitsuak izan daitezkeen egitateak.

   g) Sozietateen gaineko Zergan zerga-baterakuntzaren araubidean edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erakunde-taldearen araubide berezian tributatzen duen talde batean sartutako mendeko entitateekin egindako egiaztapen-jarduketen emaitza.

**63. artikulua. Dilijentziak izapidetzea.**

1. Dilijentziak aldez aurretik ezarritako eredu bati egokitu gabe egin ahalko dira. Hala eta guztiz ere, posible denean, Zerga Administrazioak ezarritako ereduari jarraiki egingo dira.

2. Dilijentzia bakoitzetik gutxienez bi ale egingo dira. Ale horiek jardunak garatzen dituen Zerga Administrazioaren zerbitzura dauden langileek eta jardun horien hartzaile den pertsonak sinatuko dituzte. Pertsona horrek ezezkoa emango balio dilijentzia sinatzeari edo ezinezkoa balitzaio dilijentzia sinatzea, horren berri emango da bertan, kasuan kasuko kopia entregatzearen kaltetan izan gabe.

   Ematen diren dilijentziei dagokienez, jardunak garatzeko aintzat hartzen den pertsonari ale bat emango zaio beti. Dilijentzia eskuratzeari ezezkoa emango balio, horixe adieraziko litzateke bertan, eta ezespen gisa hartuko da Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 109. artikuluan aurreikusitakoaren eraginetarako.

   Jardunen izaerak, horien emaitza dilijentzia batean islatzen denean, beharrezkoa ez duenean pertsona bat egotea dilijentzia hori egiten denean, dilijentzia jarduna egiten duen Administrazioaren zerbitzura dagoen langileak sinatuko du, eta haren kopia bat zergadunari bidaliko zaio edo kasuan kasuko entzunaldi edo alegazio izapidean horren berri emango zaio.

3. Dilijentziak kasuan kasuko espedienteari erantsiko zaizkio.

4. Dilijentziek zergen ezarpenerako beste prozedura batean edo hasitako zehapen prozedura batean eragina duten egitateak edo inguruabarrak jasotzen badituzte, edo horien ondotik prozedurarik hasterik badago, kopia kasu bakoitzean eskudun den organoari helaraziko zaio.

**64. artikulua. Txostenak.**

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 97.8 artikuluan xedatutakoarekin bat, Zerga Administrazioko organoek derrigorrezkoak diren txostenak, zerga kudeaketarako beharrezko direnak eta eskatzen dizkietenak egingo dituzte, betiere, azken kasu horretan eskatzearen komenigarritasuna arrazoitzen bada.

2. Bereziki, zerga kudeaketako organoek txostenak egin beharko dituzte hurrengo kasuetan:

   a) Zerga arau-hausteak izan daitezkeen egitate edo jokabideak jasotzen dituzten dilijentziak osatzen direnean eta zehapen prozedura izapidetzea organo berdinaren ardura ez denean.

   b) Ogasunaren aurkako delituak egin izanaren arrastoak igartzen direnean, hura ebaluatzeko ardura duen kide anitzeko organoari helarazteko.

## 4. ATALA.
## ZERGA JARDUNAK ETA PROZEDURAK AMAITZEA.

**65. artikulua. Ebazpena.**

1. Behin prozedura izapidetzen amaituta, organo eskudunak ebazpena emango du, eta aplikatu beharreko araudiak ezarritako kasuetan arrazoitu egingo da. Halaber, prozedura bakoitzean berez planteatzen diren gai guztiak erabakiko ditu, eta baita hartatik eratorritako beste batzuk ere.

2. Ebazpenak espresuki aipatu beharko ditu zergadunaren izen-deiturak, edo sozietatearen izena edo izendapen osoa edo identifikazio fiskaleko zenbakia, data, ebazpena egiten duen organoaren identifikazioa, prozeduraren xede den eskubidea edo zerga betebeharra eta, hala badagokio, baita ebazpena ekarri duten egitateak eta zuzenbideko oinarriak ere.

3. Ebazpenak likidazioa daramanean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 100. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, eta, egoki denean, kasuan kasuko berandutza korrituak erantsiko ditu.

4. Prozedurak amaitzeko gehieneko epeak ez betetzeak berariazko araudian aurreikusitako eraginak ekarriko ditu, edo, bestela, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 102. artikuluan aurreikusitakoak, betiere, Administrazioak ebazpen espresa emateko duen betebeharraren kaltetan izan gabe horrelakorik egin behar denean.

   Administrazio isiltasunagatiko onespeneko kasuetan, ondorengo ebazpen espresak hori berretsi besterik ezingo du egin.

   Administrazio isiltasunagatik gaitz iritzitako kasuetan, epea agortu eta gero egiten den ebazpen espresa Administrazioak hartuko du, inolako loturarik eduki gabe isiltasunaren zentzuarekin.

5. Administrazio isiltasuneko eraginak bertan egongo dira, Administrazioak zergadunen zerga egoera egiaztatzeko duen eskumenaren kaltetan izan gabe. Administrazioak zerga onuretarako baldintzak eta betekizunak agertzen diren aztertuko du Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 113.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

6. Zerga kudeaketako prozedura bat beste prozedura bat hasteagatik amaitzen denean, eta lehenengo prozedura amaitzen dela gehieneko epearen barruan jakinarazteko betebeharra betetzat hartze soilerako, nahikoa izango da bigarren prozedura hasteko berriemate jakinarazpen saiakera egin izana.

   Zerga kudeaketako prozedura baten ondorioz hasitako zehapen prozedura bat amaitutzat emango da azken hori amaitu egiten bada beste prozedura baten hasieraren ondorioz, eta ondoren zergak aplikatzeko prozeduratik -aurrerago hasitakoa- eratorritako zehapen prozedura berria hasteko aukeraren kaltetan izan gabe.

   Kudeaketa prozedura batean edo zehapen prozedura batean egindako jardunak, idatz-zati honetan aurreikusitako moduan amaitu badira, eta prozedura horietan eskuratutako agiriak eta beste froga elementu batzuk baliozkoak izango dira eta eraginkortasuna edukiko dute froga eraginetarako ondoren hasi daitezkeen zergen ezarpen prozeduretan edo zehapen prozeduretan, betiere, azterketa prozedura arautzen duen araudian xedatutakoari jarraiki egin ahal bada.

**66. artikulua. Ebazpeneko gehieneko epeak zenbatzea.**

1. Bidezko geldiarazpen aldiak eta Administrazioari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatiko luzapenak ez dira prozedura ebazteko epearen barruan sartuko, horrek zerga betebeharren elementu guztiei edo elementuren bati eta prozeduraren xede diren aldiei eragitearen kaltetan izan gabe.

2. Bidezko geldiarazpen aldiak eta Zerga Administrazioari egotz ezin dakizkiokeen luzapenak, horiek zergak aplikatzen diren prozeduran edo zordun nagusiaren aurrean jarraitutako zehapen ezarpenekoetan egiaztatuta eta erantzukizun aitorpenaren prozedurarekin denboran bat egiten dutenean, bidezko geldiarazpen alditzat eta Zerga Administrazioari egotz ezin dakizkiokeen luzapentzat hartuko dira erantzukizun aitorpenaren prozedura ebazteko epea aintzat hartze aldera.

3. Bidezko geldiarazpen aldiak eta Administrazioari egotz ezin dakiokeen luzapenagatiko aldiak behar bezala dokumentatu beharko dira, espedientean horren berri eduki dadin.

4. Prozeduraren iraupen epea zenbatze aldera, bidezko geldiarazpen aldiak eta Administrazioari egotz ezin dakizkiokeen luzapenengatiko aldiak egun naturalen arabera zenbatuko dira.

5. Zergadunak eskubidea edukiko du araudi honetako 57. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz araudi honetako 67. eta 68. artikuluan aurreikusitako inguruabarrak daudela eta horien iraupenaren zenbaketaren egoera zein den ezagutzeko. Espresuki eskatzen den bakoitzean, geldiarazpen edo luzapen bakoitzaren hasiera eta amaiera datak adierazi beharko dira.

6. Bidezko geldiarazpen aldiak eta Administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoiarengatiko luzapenek ez dute galaraziko egoera horretan gara daitezkeen jardunak garatzen jarraitzea.

**67. artikulua. Bidezko geldiarazpen aldiak.**

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 102.2 artikuluan xedatutakoaren eraginetarako, bidezko geldiarazpen alditzat hartuko dira hurrengo kasuetan sortzen direnak:

a) Bizkaiko Foru Aldundiko beste organo batzuei, Estatuko Administrazioari, autonomia erkidegoei, beste foru aldundi batzuei edo udalbatzei edo Europar Batasuneko kide diren estatuetako edo hirugarren herrialde batzuetako zerga administrazioei datuak, txostenak, irizpenak, balorazioak edo agiriak eskatzen zaizkienean, bitartekoa gorabehera. Geldiarazpenaren denbora eskaera egiten denetik eskatutakoa Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuna eta Finantzak Sailak eskuratzen duenera arte joango da. Edonola ere, egun kontzeptu honengatiko geldiarazpenak, eska daitezkeen datu, txosten, irizpen, balorazio eta agiri eskaera guztietarako, ezingo du sei hilabeteko epea gainditu Bizkaiko Foru Aldundiko

beste organo batzuei egindako eskabideen kasuan, eta, aldiz, hamabi hilabeteko epea Estatuko Administrazioari, autonomia erkidegoei, beste aldundi batzuei eta udalbatzei egindako eskabideen kasuan eta hemezortzi hilabetekoa beste estatu batzuei egindako eskabideen kasuan.

b) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 185. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, espedientea Fiskaltzari edo jurisdikzio eskudunari bidaltzen bazaio, bidaltzen den egunetik itzulitako espedientea jasotzen den egunera arte edo organo eskudunak prozedura jarraitzeko ebazpen judiziala ematen duen egunera arte.

c) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 163. artikuluak aipatutako nahitaezko irizpena eskatzen bazaio kide anitzeko organoari, Zergei buruzko kontsulta idatzien eta zerga-ordainketako aurretiazko proposamenen prozedurak eta itzulpenen aurkako klausula garatzen dituen 2005eko ekainaren 21eko 101/2005 Foru Dekretuko 14. artikuluak adierazitako interesdunari egin beharreko jakinarazpena egiten den egunetik organo eskudunak prozedurarekin jarraitzeko egindako txostena jaso arte edo, bestela, txosten hori egiteko dagoen gehieneko denbora agortu arte.

d) Zerga betebeharraren zehaztapena edo egozpena zehapen esparruko jardun judizialen mendekoa bada, epea jardun horiek martxan izatearen berri eduki, eta egitate hori espedientean jasotzen denetik edo jurisdikzio eskudunari edo Fiskaltzari espedientea bidaltzen zaionetik organo eskudunak prozedurarekin jarraitzeko ebazpena ezagutzen duen artekoa izango da. Hala eta guztiz ere, posible eta egoki denean, behin-behineko likidazioak egin ahalko dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 144.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

e) Ezinbestez Administrazioak bere jardunak bertan behera utzi behar dituenean, epea arrazoiak dirauen artean egongo da etenda. Hala eta guztiz ere, posible eta egoki denean, behin-behineko likidazioak egin ahalko dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 144.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

f) Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bitartez onetsitako Ekonomi Ituneko 66. artikuluan aurreikusitako Arbitraje Batzordearen aurrean eskumen gatazka planteatzen denean.

g) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 47. artikuluak aipatzen duen zerga egoitza egiaztatzeko prozedura hasten denean, epea prozedura hori izapidetzeko behar den denboraren berdina izango da, edo bestela hura ebazteko dagoen gehieneko epea amaitzen den artekoa, baina bakar-bakarrik helbidearen zuzenketa egitea erabakigarria bada kasuan kasuko prozedurak amaiera gisa erabiltzen duen administrazio egintzaren edukirako eta, betiere, zuzenketaren eraginak mugatuz garrantzia duten zerga kontzeptuetara eta zergaldietara.

**68. artikulua. Administrazioari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatiko luzapenak.**

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 102.2 artikuluan xedatutakoaren eraginetarako, prozeduran Zerga Administrazioari egotz ezin dakiokeen arrazoiagatiko luzapentzat hartuko dira, besteak beste, hurrengoak:

a) Prozedurak zergadunari egotzitako atzerapenak Zerga Administrazioak bertaratzeko eskatzen dionean edo agiriak, aurrekariak edo zergaren arlorako garrantzia duen informazioa aurkezteko eskatzen dionean. Luzapena bertaratzeko finkatu den dataren biharamunetik hasiko da bertaratzeen kasuan, edo agindeia betetzeko emandako epea bukatzen den dataren biharamunetik hasiko da, eta eskatutakoa erabat betetzen den artekoa izango da. Zergen arlorako garrantzia duten agiri, aurrekari eta informazio agindeiak ez badaude behar bezala osatuta, ez dira jasotzat emango epe honen zenbaketarako eta behar bezala osatzen den arte luzatuko da. Salbuespena araudiak berariaz beste ezer ezartzea izango da.

b) Zergadunak agiri eta froga berriak aurkeztea, behin entzunaldi edo alegazioen izapidea eginda dagoenean. Luzapena izapide hori amaitzen den egunaren biharamunetik hasiko da, eta agiri edo froga horiek aurkezten diren arte joango da. Agiriak prozedura izapidetu bitartean eskatu badira, aurreko a) letran xedatutakoa aplikatuko da.

c) Administrazioak edozein epe zabaltzeko aukera onartzea nahiz jardunak geroratzeko zergadunak eskatutako atzeratzea onartzea. Luzapena aurreikusitako epea amaitzen den egunaren edo hasiera batean finkatu zen dataren biharamunean hasiko da eta ondoren, bigarren kasu batean, finkatzen den datara artekoa izango da.

d) Zergadunak hala eskatuta hasitako prozedura geldiaraztea, ebazpena egiteko funtsezkoa den izapideren bat osatzea falta delako. Luzapena izapidea ez betetzat hartzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta zergadunak hura betetzen duen artekoa izango da, iraungitzea aitortzeko aukeraren kaltetan izan gabe interesdunari aldez aurretik horren berri eman izanda.

e) Zergadunak Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 122. artikuluan arautneed aitorpenak aurkeztea, edo itzulketako eskabide osagarriak edo aurretik aurkeztutako beste batzuen ordezkoak aurkeztea. Luzapena aitorpena edo itzulketa eskabidea aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunetik hasiko da, edo epetik kanpoko aurkezpenen kasuan aurkezpena egiten den egunaren biharamunetik aitorpena edo itzulketa eskaera edo aitorpen osagarria edo ordezkoa aurkezten den arte.

f) ...

g) Autolikidazio bidez hasitako prozeduretako, aitorpen bidez hasitako prozeduretako, behin-behineko autolikidazioak eta likidazioak berrikusteko prozeduretako eta egiaztapen mugatuko prozeduretako likidazioen edo likidazio- proposamenen jakinarazpenetan jazotako atzerapenak. Jakinarazteko saiakera egin den egunaren biharamunean hasiko da luzapena, eta jakinarazpena egiten den egunaren artekoa izango da.

h) Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebehar formalak araupetu dituen Araudiaren 39 bis eta 39 undecies artikuluetan aipatzen diren pertsonek eta entitateek ez betetzea eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egin eta igortzeko betebeharra (araudi hori Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen). Luzapenaren iraupena hau izango da: aitorpenak ondorioak izan ditzakeen prozedura bat hasten denetik aitorpenaren edukia Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez osorik igorri artekoa.

i) Zergapekoak atzeratuta aurkeztea zerga-arautegian xedatutakoaren arabera erabili behar dituen liburuak eta gainerako erregistroak, baita haietan egindako idazpen eta oharren oinarri diren agiri guztiak ere.

   Luzapenaren iraupena hau izango da: errekerimenduari erantzuteko emandako epea amaitzen denetik eskatutakoa guztiz betetzen den egunera arte.

**69. artikulua. Zerga jardunak norekin bideratu.**

1. Hil egin diren pertsona fisikoei edo pertsona juridikoei edo desegin edo azkendu egin diren gainerako entitateei buruzko jardun edo prozeduren kasuan, Administrazioaren aurrean jardun beharko duten pertsonei kasuan kasuko eskubideak, betebeharrak eta, hala badagokio, zerga zehapenak eskualdatuko zaizkie Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 38. eta 39. artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

   Zerga Administrazioak jardunak edo prozedurak garatu ahalko ditu oinordeetatik edozeinekin.

2. Likidazio fasean dauden entitateen kasuan, administrazio jardunak entitateen nortasun juridikoa iraungi baino lehen gertatzen direnean, jardun horiek likidatzaileekin egingo dira. Entitate bat desegin eta likidatzen bada, eta aurreko idatz-zatian ezarri denaren kaltetan

izan gabe, likidatzaileak Administrazioaren aurrera agertu behar dira horretarako agindeia eginez gero, entitatearen lehengo ordezkariak diren aldetik eta haren liburuak eta agiriak zaintzapean dituzten aldetik. Liburuak eta agiriak erregistro publiko batean gorde badira, organo eskudunak erregistro horretan haiek aztertzeko aukera edukiko du, eta organoak likidatzaileak Administrazioaren aurrean agertzea eskatu ahalko du jardun horietarako beharrezkoa bada.

Konkurtsoen kasuetan, administrazio jardunak konkurtsora aurkeztu denarekin egingo dira, betiere, epaileak administrazio eta erabilera eskumenak hari etetea erabaki ez badu. Edonola ere, konkurtsoan jarduten duten administratzaileekin ere garatuko dira jardunak, konkurtsora aurkeztu denaren ordezkari diren edo esku hartzeko eginkizuna duten heinean, Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legean ezarritakoari jarraiki.

3. Betebehar baten izatezko kasu berdin batean batera agertzeagatik hainbat zergadunen solidaritate kasuetan, jardunak eta prozedurak jardun edo prozedura horien xede den betebeharraren izatezko kasu horretan ageri diren zergadunetatik edozeinekin garatu ahalko dira.

4. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34.3 artikuluko entitateez arituz gero, zerga betebeharrak egoki betetzen direla aztertzea xedetzat duten kudeaketa jardunak, forma izaerakoak barne, betebehar horien ordezkaritza duenarekin garatuko dira, foru arau horretako 44.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

   Likidazioak egin beharko balira, horiek entitatearen izenera egingo lirateke, entitate horietako partaideen, kideen edo titularkideen erantzukizun solidarioaren kaltetan izan gabe.

   Entitateek errenten eratxikipen araubidean eskuratzen dituzten errentak kargatzen dituen zergari buruzko betebeharrak egoki betetzen direla aztertzea egiaztapen prozeduretan zehar egingo da. Prozedura horiek bazkide, oinorde, erkide edo partaide bakoitzaren aurrean instruitu ahalko dira, zerga horrengatiko zergadun diren heinean. Prozedura horietan entitatearen berezko betebeharren kudeaketa jardunak garatu bitartean eskuratu ahal izan diren datuak, txostenak edo aurrekariak erabili ahalko dira.

5. Establezimendu iraunkorraren bitartez Espainian jarduten duten zergapeko ez-egoiliarren kasuan, Administrazioaren jarduketak zergapekoak izendatzen duen ordezkariarekin egingo dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 46. artikuluan eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 12/2013 Foru Arauko 9. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

   Establezimendu iraunkorrik gabe jarduten duten zergapeko ez-egoiliarrek ordaindu beharreko tributuen kasuan, jarduketak zergapeko ez-egoiliarrarekin edo hark xede honetarako izendatzen duen ordezkariarekin egin ahalko dira, edo, bestela, horrelakorik aurrez ikusten denean, erantzule solidarioarekin, jarduketak harekin zuzenean egin ahal direnean. Azken kasu horretan, likidazioak zuzenean egin ahalko zaizkio erantzule solidarioari, eta egindako likidaziotik edo exijitzen zaion erantzukizunetik eratortzen diren aurkaratzeko arrazoi guztiak erabili ahalko ditu.

**69 bis artikulua. Ordezkaritza.**

Ordezkaritza-ahalordearen arabera, zergapekoen ordezkariek Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez Ogasun eta Finantza Sailean egin ditzaketen jarduketak eta izapideak egiteko, kontuan hartu beharko dira eskura dauden baliabideak eta aplikatu beharreko teknologiaren egoera kontuan hartuta gaituta daudenak, eta ahalmen mota hauekin bat etorrita egingo dira:

- A ahalmenak: Interesdunak eskatuta abiarazitako prozeduretan eskaerak eta idazkiak aurkeztea, dokumentuak aurkeztea, eskaerak borondatez eta kasuan kasuko organoak eskatuta zuzentzea. Eskaera zuzendu eta hobetzetik eratorritako jakinarazpenak

jasotzea barne hartzen du, eta ahalmena ematen du lehen adierazi diren jarduketekin lotutako datuen/informazioaren kontsultara sartzeko.

- B ahalmenak: Interesdunak eskatuta nahiz ofizioz abiarazitako prozeduretan eskaerak eta idazkiak, errekurtsoak eta erreklamazioak aurkeztea, akzioetan atzera egitea, eskubideei uko egitea, betebeharrak hartu edo aitortzea, eta ordezkatuari dagozkion jarduketa guztiak egitea, eta ahalmena ematea deskribatutako jarduketekin lotutako datuen/informazioaren kontsultara sartzeko, bai eta jakinarazpenak jasotzeko ere (D ahalmenean adierazitako jakinarazpenak izan ezik). Era berean, ahalmena ematen du ordaintzeko modua aldatzeko, ordainketa-gutunak eskuratzeko, eta ahalmena ematen den prozedurak izapidetzean sortzen diren zorrak geroratzeko.

- C ahalmenak: Ordezkatutako pertsonaren datuen/ informazioaren kontsultara sartzea.

- D ahalmenak: Administrazioak prozedurak ofizioz hasiko dituela adierazten duten jakinarazpenak jasotzea.

Horrez gainera, zor guztiak kudeatzeko ahalmena baliatu ahal izango da egoitza elektronikoaren bidez, sortu diren prozedura edozein dela ere.

## 5 ATALA.
## ORDEZKARITZA ZERGA PROZEDURETAN.

### 70. artikulua. Ordezkaritza.

1. Zergen arloan jarduteko gaitasunik ez duten pertsona fisikoek legezko ordezkarien bitartez jardungo dute Zerga Administrazioaren aurrean. Hala eta guztiz ere, jarduteko gaitasunik ez zuten haiek gaitasun hori eskuratu edo berreskuratzen dutenean, beren kabuz jardungo dute Zerga Administrazioaren aurrean, baita zerga egoerarik ez zutenean zuten zerga egoera egiaztatzeko ere.

   Haien legezko ordezkaritza eduki zutenak, halaber, bertaratu egin beharko dira Zerga Administrazioaren agindeia jasoz gero, eta beren buruaren izenean jardun ordezkatu zuten hura lotu gabe.

2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34.3 artikuluak heltzen dituen pertsona juridiko eta entitateei dagokienez, administrazio jardunaren unean ordezkaritza duenak jardun beharko du.

   Kasuan kasuko betebeharrak edo eginbeharrak sortu ziren edo bete behar izan ziren garaian ordezkaritza zutenak bertaratu egin beharko dira Zerga Administrazioaren agindeia jasoz gero, eta beren buruaren izenean jardun pertsona juridikoa edo entitatea lotu gabe.

3. Legezko ordezkariak bere izaera egiaztatu beharko du Zerga Administrazioaren aurrean. Hala eta guztiz ere, ordezkaritzat hartu ahalko dira modu horretara kasuan kasuko erregistro publikoetan inskribatu ziren haiek.

4. Zergak kudeatzeko prozedura bat martxan den bitartean legezko ordezkaritza aldarazi edo amaitu egiten bada, egindako jardunak baliozkotzat eta eraginkortzat hartuko dira, inguruabar hori jardunak garatzen dituen Zerga Administrazioaren organoari jakinarazten ez zaion bitartean.

5. Zergen ondorioetarako bakarrik, Zerga Administrazioak ofizioz inskribatuko du legezko ordezkaritza ahalordetzeen erregistro elektroniko orokorrean, honako kasu eta baldintza hauetan:

   a) Ezkontideetako edo izatezko bikotekideetako bat hiltzen bada, bizirik dirauen ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen alde, jarauntsiaren ordezkari gisa, mortis causa oinordetzak arautzen dituen legeria zibilaren arabera. Inskripzioak 5 urteko balioa izango du, heriotzaren datatik zenbatzen hasita.

Letra honetan aipatzen den kasuan, bizirik dirauen ezkontide edo izatezko bikotekide horrek hirugarren bati ordezkaritza ematen badio Zerga Administrazioaren aurrean jarduteko, oro bat ulertuko da ordezkariak gaikuntza duela hildako zergadunak egin gabe dituen tributu-betebeharrei dagokienez, espresuki kontrakoa adierazten ez bada.

Letra honetan xedatutakoa gorabehera, hildakoaren oinordekoek edo testamentugileak jarauntsiaren administratzaile izateko izendatutakoek aukera izango dute bizirik dirauen ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen aldeko ofiziozko inskripzioaren aurka egiteko eskubidea baliatzeko. Horretarako, beren izaera egiaztatu beharko dute.

b) Familia-unitate bateko kide diren zergadun adingabeen kasuan, bi gurasoen aldeko ordezkaritza, edo guraso bakarraren aldeko ordezkaritza, bat bakarrik izanez gero. Hori guztia, kontrakoaren froga sinesgarririk ezean.

c) Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 34.3. artikuluan adierazitako entitateen kasuan, entitateotako kide, jaraunsle, erkide edo partaideen aldeko ordezkaritza. Inskribatutako ordezkaritzak 5 urteko balioa izango du, inskribatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Letra honen aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, bertan aipatzen diren entitateek aukera izango dute beren kide, jaraunsle, erkide edo partaideen aldeko ordezkaritzaren ofiziozko inskripzioaren aurka egiteko eskubidea baliatzeko. Horretarako, entitate horien legezko ordezkariek beren izaera egiaztatu beharko dute, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 44.3 artikuluan ezarritako baldintzetan.

d) Nortasun juridikoa duten sozietateak eta erakundeak likidaziorik egin gabe azkentzen edo desegiten badira, ondorengoen alde, inguruabar hori modu frogagarrian jasota badago Zerga Administrazioan. Inskripzioak 5 urteko balioa izango du, azkentze- edo desegite-egunetik aurrera zenbatzen hasita.

### 71. artikulua. Borondatezko ordezkaritza.

1. Ordezkaritza, jarduteko gaitasuna duten pertsona fisikoen kasuan, norberak emango du.

   Zerga araubidean jarduteko gaitasunik ez duten pertsona fisikoen kasuan, pertsona juridikoen kasuan eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34.3 artikuluak aipatutako entitateenean, borondatezko ordezkaritza legezko ordezkaritza dutenek eman ahalko dute, betiere, hark onartuz gero.

   Ordezkaritza jarduteko gaitasuna duten pertsona fisikoen edo pertsona juridikoen alde eman ahalko da.

2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 45.2 artikuluan xedatutakoaren eraginetarako, ordezkaritza egiaztatu dela ulertuko da kasu hauetan:

   a) Hura existitzen dela idatzita dagoenean eta indarrean badago erregistro publiko batean, bereziki Bizkaiko Foru Aldundiko Ahalordetzeen Erregistro Orokorrean.

   b) Agiri publiko edo agiri pribatuan ageri denean, notarioz legitimatutako sinadurarekin.

   c) Administrazio organo eskudunaren aurrean agertuz ematen denean. Hori dilijentzian dokumentatu ahalko da.

   d) Ordezkaritza baliabide elektronikoen, informatikoen edo telematikoen bitartez emandako agirian dagoenean, zerga-administrazioak ezarritako bermeak eta betekizunak beteta.

e) Tributuen kudeaketa errazteko, zerga-administrazioak beste sistema batzuk ezartzen dituenean ordezkaritza eman dela ulertzeko. Zehazki, ordezkaritza emandakotzat joko da zergapekoak Zerga Administrazioak horretarako eman dion gakoa ematen duenean.

3. Ordezkaritza kasu guztietan hurrengo aipamenak ageri beharko dira gutxienez:

   a) Ordezkatuaren eta ordezkariaren izen-deiturak edo sozietatearen izena edo izendapen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga egoitza, eta baita bien sinadura ere. Ordezkaritza agiri publikoan ematen denean, ez da beharrezkoa izango ordezkariaren sinadura edukitzea.

   b) Ordezkaritzaren edukia, haren zabaltasuna eta behar bestekoa izatea.

   c) Eman den tokia eta data.

   d) Zergadunaren legezko ordezkariak emandako borondatezko ordezkaritzaren kasuan, legezko ordezkaritza egiaztatu egin beharko da.

4. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 45.5 artikuluan aurreikusitako jardunetarako, ordezkaritza egiaztatuta dagoela uste izango da hurrengo kasuetan:

   a) Ordezkaritza beren beregi jaso denean prozeduraren xede den aitorpenean, autolikidazioan edo eskabidean.

   b) Emandako ordezkaritza zergadunak egindako jardunetatik edo portaeratik eratortzen denean, garatutako jardunei dagokienez.

5. Ordezkaritza ezeztatzeak ez du ordezkariarekin, inguruabar horren berri organo jarduleari eman izan aurretik, garatu ahal izan diren jardunen baliogabetasuna ekarriko. Une horretatik aurrera, ulertuko da zergaduna ez dela Zerga Administrazioaren aurrean jartzen, ezta haren agindeiei jaramonik egiten ere, ordezkari berria izendatu arte edo pertsonalki atenditu arte.

6. Ordezkaritza errefusatzeak ez du eraginik edukiko organo jardulearen aurrean, errefus hori ordezkatuari benetan jakinarazi zaiola egiaztatzen ez den bitartean.

7. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urriaren 13ko 89/2020 Foru Dekretuan (ahalordetzeen erregistro elektroniko orokorra sortu eta arautzeari buruzkoa) xedatutakoaren arabera, Ogasun eta Finantza Sailak baimena emango du, onetsiriko erakunde edo elkarteekin lankidetza-hitzarmenak edo -akordioak eginez, bai eta aldez aurretik interesdunak eskaturik banakako gaikuntza emanez ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa erabil dezaten elkarteko bazkide edo kide diren elkargokide profesionalek, hirugarren batzuen izenean; horiek kasuan-kasuan behar den ordezkaritza eman beharko diete, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 45. artikuluan xedatutakoaren arabera.

   Aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera emandako ordezkaritzak Bizkaiko Foru Aldundiaren urriaren 13ko 89/2020 Foru Dekretuan, ahalordetzeen erregistro elektroniko orokorra sortu eta arautzekoari buruzkoan, aurreikusitako moduan inskribatu beharko dira.

### 72. artikulua. Legezko eta borondatezko ordezkaritzen xedapen komunak.

1. Ordezkaritza ordezkari bitartez egiten den lehenengo jardunean egiaztatu beharko da. Hala eta guztiz ere, egiaztapen hori falta izateak edo askieza izateak ez du galaraziko kasuan kasuko egintza edo izapidea eginda bezala hartzea, betiere, ordezkaritzaren agiria aurkezten bada edo akatsa konpontzen bada 10 eguneko epearen barruan, agindeia jakinarazten den egunaren hurrengotik aurrera. Epea administrazio organoak eman beharko du aipatutakoa betetzeko.

Edonola ere, jardunak egiten dituzten pertsonei nortasuna eta zein kontzeptutan jarduten duten argitzea exijitu ahalko zaie.

Ordezkariak ordezkaritza egiaztatzen ez badu, egintza egin gabe bezala hartuko da edo zergaduna agertu ez balitz bezala hartuko da horrek eduki ditzakeen ondorio guztietarako, betiere, haren izenean egindako jardunak zergadunak berresten ez baditu.

2. Ordezkariaren jardunak berretsitzat hartuko dira ordezkaritza ahala falta denean edo askieza denean, hurrengo kasuetan:

   a) Zergadunak izaera adierazi izan gabe ordezkariak esku hartu ahal izan duen prozeduran emandako egintzak aurkaratzen dituenean.

   b) Zergadunak sarrera egiten duenean edo atzeratzea, zatikatzea edo zerga zorra edo prozeduratik eratorritako zehapena konpentsatzea eskatzen duenean. Hala eta guztiz ere, kasu horietan ez da konpondutzat hartuko ordezkaritza boterearen falta edo askieza, falta edo askieza hori alegatzeko egiten den errekurtso edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkezten denean.

3. Zerga kudeaketako prozedura batean ordezkari bitartez jarduten denean, beren beregi jasoko da inguruabar hori egiten diren dilijentzia guztietan, eta espedientearekin batera ordezkaritza egiaztatzen duen agiria erantsiko da. Ordezkaritza agiri publiko baten bitartez ematen bada, horri buruzko aipamena nahikoa izango da; espedientean, era berean, kopia arrunta edo fotokopia erantsiko da, jarduleak egindako erkatzearen eginbidearekin.

4. Zergadunaren ordezkariarekin egiten diren zerga jardunak lehen harekin egin izan balira bezala hartuko dira.

   Ahalorde nahikorik gabe agertu diren pertsonek egindako adierazpenek zuzenbidearen araberako froga balioa edukiko dute.

5. Ordezkaritza egiaztatu edo ordezkaritzat hartu ondoren, ordezkariak emandako ahalorde nahikorik ez dagoela frogatu beharko du, eta, jarduketaren baliogabetasuna oinarritzeko, ezin izango ditu berak sortutako akatsak edo hutsak alegatu.

6. Errekurtso edo erreklamazio ekonomiko-administratibo baten ebazpenean administrazio ebazpena edo likidazioa baliogabetzen denean ordezkaritza ahala falta izateagatik edo behar bestekoa ez izateagatik, ordezkaritza egiaztatu behar izan zen edo behar besteko ahalordetzat jotzen ez den ahalordea aurkeztu zen unera atzera eramango dira jardunak, eta baliozkoak izango dira jardunak egin zituen ordezkariaren esku-hartzerik gabe egindako zerga kudeaketaren prozedurako jardunak eta frogak.

7. Zergadunak jardunetan eta prozeduretan esku hartu ahalko du, une bakoitzean egoki irizten duen pertsonaren laguntzarekin. Horren berri eta laguntzailearen nortasuna espedientean jasoko dira.

## 6. ATALA.
## ERANTZUKIZUN AITORPENA ZERGA PROZEDURETAN.

### 73. artikulua. Erantzukizun solidarioaren aitorpena zordun nagusiaren borondatezko ordainketa aldian.

1. Zergen ezarpen prozedura batean organo jarduleak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 41. artikuluan aipatutako erantzuleak daudela esatea ekar dezaketen egitate edo inguruabarrak ezagutzen baditu, erantzukizun hori argitzeko prozedurari ekin ahalko zaio. Hasieraren berri zergadunari emango zaio, erantzukizun aitorpenak hartzen dituen zerga betebeharrak eta aldiak eta oinarri gisa hartzen den legezko manua adieraziz.

Erantzukizunaren helmenak zehapenak biltzen dituenean, beharrezkoa izango da aldez aurretik zehapen prozedura hasi izana.

2. Erantzulearen entzunaldi izapidea zordun nagusiari likidazio proposamena egin eta gero egingo da, eta erantzukizunak zehapenak harrapatzen dituenean, arau-hausleari zehapen prozeduraren ebazpen proposamena jakinarazi ondoren.

   Erantzuleak 15 eguneko epea edukiko du, epea irekitzen dela jakinarazten den egunaren hurrengotik hasita, egoki iritzitako alegazioak eta agiriak aurkezteko, bai erantzukizunaren izatezko aurreiritziari dagokionez, bai aurreiritzi horrek harrapatzen dituen zehapenei dagokienez.

   Artikulu honetako 5. idatz-zatian ezarritako kasuan salbu, erantzuleak ez du interesdunaren izaera edukiko zordun nagusiaren aurka bideratutako kudeaketa, ikuskaritza edo zehapen prozeduran, eta prozedura horietan egiten dituen alegazioak egin gabekotzat hartuko dira.

3. Erantzukizun aitorpenaren erabakia organo eskudunari egokituko zaio likidazioa egiteko, eta hori likidazio erabakia zordun nagusiari jakinarazi eta gero emango da, edo, bestela, subjektu arau-hausleari zehapena ezartzeko erabakiaren ondoren.

   Erantzukizun aitorpenaren erabakia erantzuleari jakinaraziko zaio zordun nagusiari sartzeko eman zaion borondatezko epea amaitu baino lehen. Epe horren barruan jakinarazpena egingo ez balitz, erantzukizuna aitortzeko prozedura amaitutzat joko da aparteko izapiderik gabe, betiere, ondoren, zerga-bilketako organoek prozedura berri bat hastearen kaltetan izan gabe. Horretarako, hasierako prozeduran zehar egindako jardunek nahiz prozedura horretan eskuratutako agiriek eta gainerako froga elementuek baliozkotasuna eta eraginkortasuna mantenduko dute froga eraginarekin erantzule berdinari edo beste bati dagokionez.

4. Zordun nagusiari ordaintzeko ematen zaion borondatezko aldia igarota, erantzuletzat aitortutakoari eskatuko zaio ordainketa egitea. Hark, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 179. artikuluan ezarritakoari jarraiki, hilabeteko epea edukiko du ordainketaren agindeia jakinarazten zaionetik.

5. Foru Arauak erantzukizuna bideratzeko aldez aurretiko egintza beharrezkoa ez dela ezartzen duen kasuetan, egiaztapen eta ikerketa jardunak erantzulearekin egin ahalko dira zuzenean. Kasu horietan, erantzulearen izenean egingo dira aktak eta likidazioak.

## II. KAPITULUA.
## ZERGEN ARLOKO JAKINARAZPENAK

### 1. ATALA.
### JAKINARAZPENAK

#### 74. artikulua. Jakinarazpenak.

1. Zergadunari edo haren ordezkariari jakinarazpena egitea ezinezkoa denean Administrazioari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik, espedientean jasoko dira jakinarazpen saiakuntzen inguruabarrak.

   Jakinarazpena errefusatu dela, hartzailea bertan ez zegoela edo zerga egoitzan edo jakinarazpenetarako jarritako tokian ezezaguna dela beren beregi adierazi beharko da.

   Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 110.1 artikuluan ezarritako baldintzetan bi jakinarazpen saiakuntzak arrakastarik gabe egiten direnean, hartzaileari jakinarazpena iritsi dela dioen oharra utziko zaio bizitokiari dagokion postontzian ahal denean. Bertan, posta eragilearen egoitzara bertaratzearen aukera emango zaio, egintza eman diezaioten, eta bigarren entrega saiakuntzari buruzko epe eta inguruabarrak adieraziko zaizkio. Iritsi izanaren ohar hori informazio eraginetarako utziko da bakar-bakarrik.

2. Jakinarazpenak posta zerbitzu unibertsala ematea agindu zaion eragileak ezarritako posta kutxetan egin behar diren kasuan, bidalketa bulegoaren barruan utziko da eta posta kutxaren titularrak edo hura hartzeko baimen zehatza duen pertsonak jaso ahalko du. Jakinarazpena egindakotzat hartuko da bidalketa bulegoan utzi, eta egutegiko 7 egun igarotzen direnean, hori baino lehen jakinarazpena hartu ez bada. Posta kutxako titularrak bidalketa lehen aipatu diren 7 egunak baino lehen hartzen duenean, jakinarazpena data horretan egindakotzat hartuko da.

   Interesdunak hala eskatuta hasten diren prozeduretan, jakinarazpen baliabide hau erabiltzeko beharrezkoa izango da interesdunak lehentasunezkotzat jo izana kasuan kasuko prozeduran.

3. Jakinarazpena ematen den unean jakingo balitz zergaduna hil egin dela edo nortasun juridikoa azkendu egin dela, inguruabar hori adierazi egin beharko da eta Zerga Administrazioak gertaera hori egiaztatuko. Kasu hauetan, jakinarazpena prozedurari amaiera ematen dion ebazpenari buruzkoa denean, jardun hori baliozko jakinarazpen saiakera bezala hartuko da bakar-bakarrik prozeduren iraupenaren gehieneko epean jakinarazteko betebeharra betetzat hartzeari dagokionez. Edonola ere, zergadunaren oinordeko bati jakinarazpena egin beharko zaio.

4. Zerga Administrazioak, sinatutako nazioarteko akordio eta hitzarmenetan xedatutakoaren babesean, beste estatu bateko agintaritza eskudunari eskatu ahalko dio zerga administrazio horrek egindako edozein egintzaren gaineko jakinarazpena egin dezala.

   Beste estatu batean aurreko paragrafoan aurreikusitakoaren babesean egindako jakinarazpenak egiaztatu egin beharko dira espedientean estatu horrek, bere araudi propioari jarraiki, egindako jakinarazpenaren agintari eskudunak egindako jakinarazpena edo berriematea erantsiz. Beste estatu batean egindako jakinarazpenak, egiaztapena idatz-zati honetan aurreikusitako moduan egiten denean, behar bezala egindakotzat hartuko dira.

**75. artikulua. Bertaratuta jakinarazi.**

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 110. artikuluan aurreikusitako kasuan, zergaduna edo haren ordezkaria agertu egiten bada iragarkia argitaratu eta egutegiko hurrengo 15 eguneko epean, kasuan kasuko jakinarazpena egingo litzateke, eta horren berri kasuan kasuko dilijentzian jasoko litzateke. Bertan, gainera, agertu denaren sinadura jasoko da.

2. Zergaduna edo haren ordezkaria agertu bai, baina jakinarazi nahi diren agiriak jasotzea ezesten badute, inguruabar horren berri eman egingo da kasuan kasuko dilijentzian, jakinarazpena ezetsi izanaren berri jaso dadin. Halaber, jakinarazpena egindakotzat hartuko da Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 109.2 artikuluan xedatutakoarekin bat.

3. Edonola ere, iragarkia argitaratu zen «Aldizkari Ofizialaren » edo egoitza elektronikoaren erreferentzia sartuko da espedientean.

## 2. ATALA.
## OGASUN ETA FINANTZA SAILAK BITARTEKO ELEKTRONIKOAK ERABILIZ EGITEN DITUEN JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

**75 bis artikulua. Jakinarazpen elektronikoa.**

1. Araudi honen 36. artikuluaren 2. eta 3. apartatuetan aipatzen diren interesdunek bitarteko elektronikoak baino ez dituzte erabili behar zerga-administrazioarekin komunikatzeko.

   Era berean, jakinarazpenak bitarteko elektroniko bidez egin ahalko dira interesdunek bitartekoak erabiltzea espresuki baimendu eta lehentasunezkotzat jo dituzten kasuetan.

2. Jakinarazpen-sistemari esker bi gauza ziurtatu behar dira: batetik, jakinarazi nahi den egintza zein egun eta ordutan jarri den interesdunaren eskura; bestetik, interesduna zein

egun eta ordutan sartu den jakinarazpenaren edukira, une horretatik aurrera ulertuko baita jakinarazpen hori eginda dagoela, ondorio guztietarako.

3. Zergapekoa jakinarazpen elektronikoko sisteman nahitaez sartzea eragin zuten inguruabarrak desagertzen direnean, bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko zaio sistema horretatik kanpo geratu dela, eta jakinarazpen horrek ondorioak sortu eta biharamunean geratuko da sistematik kanpo.

   Baina, zergapekoak, jakinarazpen elektronikoko sisteman nahitaez sartu aurretik bitarteko elektronikoa lehentasunezkoa jotzen duela adierazi badu, orduan, sistema horretan jarraituko du.

**75 ter artikulua. Jakinarazpen eta komunikazio elektronikoaren alderdi orokorrak.**

1. Ogasun eta Finantza Sailak egin behar dituen jakinarazpen eta komunikazio guztiak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez gauzatuko dira, egoitza hori arautzen duen araudi honetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta, eta beronen 75 quater artikuluan jasotako salbuespenak gorabehera.

   Era berean, jakinarazpen eta komunikazio elektronikoko beste sistema batzuk gaitu ahal izango dira, baldin eta jasota geratzen bada interesdunak berariazko araudian ezarritako epean eta baldintzetan jaso dituela.

   Bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpena nahitaezkoa denean, araudi honen 36. artikuluaren 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoarekin bat, edo interesdunak berariaz adierazi duenean bitarteko hori lehentasunezkoa dela, jakinarazpena edo komunikazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertuz baino ez da egingo.

2. Jakinarazpenerako sistema elektronikoa lehentasunezkotzat jotzen dela adierazteko, alta-eskaera egin beharko da Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan horretarako beren-beregi jarritako atalean. Adierazpen horrek eskaera jaso eta biharamunetik aurrera emango diren jakinarazpen eta komunikazioetan izango ditu ondorioak, non eta artikulu honen 1. apartatuaren bigarren paragrafoan jasotako sistemen araudi espezifikoak ez duen beste epe bat ezartzen.

3. Jakinarazpen elektronikoko sistemak aukera emango du egiaztatzeko zer egun eta ordutan izan duen eskuragarri interesdunak jakinarazten zaion egintza eta zer egun eta ordutan eskuratu duen interesdunak egintzaren edukia. Izan ere, une horretatik aurrera, jakinarazpena gauzatutzat joko da ondorio guztietarako.

4. Bitarteko elektronikoak zein ez-elektronikoak erabiltzearen ondorioz egintza beraren jakinarazpen bat baino gehiago egiten bada, ulertuko da zuzen egindako lehenengo jakinarazpena egiten denetik sortzen direla jakinarazpenaren ondoriozko efektu juridiko guztiak, kasuan kasuko errekurtsoak jartzeko epearen hasiera barne.

5. Baldin eta egiaztatzen bada jakinarazpen elektronikoa eskuragai jarri eta egutegiko 20 egun igarota haren edukira ez dela sartu, orduan, ulertuko da jakinarazpena ez dela onartu, eta horrek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko Foru Arauaren 109.2 artikuluan ezarritako ondorioak izango ditu, non eta ofizioz edo interesdunak eskatuta ez den egiaztatzen jakinarazpena eskuratzea ezinezkoa izan dela arrazoi tekniko edo materialengatik.

6. Interesdunek Bizkaiko Foru Aldundiren egoitza elektronikoan ezartzen den atalean eskatu ahal izango dute jakinarazpen elektronikoko sistema ez izatea modu esklusiboan erabiliko den sistema, hurrengo jakinarazpen edo komunikazioak ez jakinarazteko modu esklusiboan bitarteko elektronikoen bidez, eta administrazio- araudi orokorrean onartutako beste bitartekoak ere erabiltzeko. Hori ezin izango dute eskatu beren zerga-betebeharrak betetzeko eta Ogasun eta Finantza Sailarekin egoitza elektronikoaren bidez harremanetan jartzeko betebeharra duten pertsonek edo entitateek.

Halakoetan, bajak eskaera jaso eta biharamunetik aurrera emango diren jakinarazpen eta komunikazioetan izango ditu ondorioak, non eta artikulu honen 1. apartatuaren bigarren paragrafoan jasotako sistemen araudi espezifikoak ez duen beste epe bat ezartzen. Bestela, eskaera aurkezten den egunaren ondorengo 15 egunen barruan gauzatuko da baja.

7. Agerraldi bidezko jakinarazpenaren berezko ondorioak sortuko ditu interesdunek dagozkion administrazio-jarduketen edukia eskuratzeko egiten duten sarbide elektronikoak, baldin eta sarbide hori jasota geratzen bada.

8. Zergapekoek aukera izango dute, Ogasun eta Finantza Saileko titularraren foru- agindu baten bidez xedatzen den moduan, gehienez ere egutegiko 30 egun adierazteko urte natural bakoitzean, eta, egun horietan, sail horrek ezingo die jakinarazpenik jarri eskuragarri Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan.

   Jakinarazpenean atzerapena gertatzen bada zergapekoak aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera eginiko izendapenaren ondorioz, atzerapen hori ezingo zaio Zerga Administrazioari egotzi Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 102.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

   Hala ere, zergapekoak egun horiek zehazteak ez du eragotziko Ogasun eta Finantza Sailak jakinarazpenak edo komunikazioak bitarteko ez-elektronikoen bidez egin ahal izatea, erregelamendu honen 75 quater artikuluan jasotako kasuetan.

**75 quater artikulua. Bitarteko elektronikoak erabiliz egindako jakinarazpenen edo komunikazioen inguruko salbuespenak.**

1. Ogasun eta Finantza Sailak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauaren 107.etik 110.era bitarteko artikuluetan aipatzen diren bide ez-elektronikoak, lekuak eta moduak erabili ahal izango ditu jakinarazpenak eta komunikazioak egiteko, honako kasu hauetan:

   a) Zergapekoak edo haren ordezkariak, Ogasun eta Finantza Sailaren bulegoetan agertu, eta une horretan jakinarazpen edo komunikazio pertsonala eskatzen duenean. b) letran adierazitako inguruabarrak jazotzen badira, zergapekoak izan izango du baliatu aukera hori.

   b) Zergak aplikatzeko prozeduren eraginkortasuna eta —hala denean— lastertasuna bermatzeko, Administrazioak egokiagotzat jotzen duenean elektronikoak ez diren beste bitarteko batzuk erabiltzea jakinarazpena egiteko.

2. Inoiz ez dira bitarteko elektronikoz egingo honako jakinarazpen eta komunikazio hauek:

   a) Jakinarazi beharreko egintzarekin batera formatu elektronikora bihurtu ezin den elementuren bat igorri behar denekoak.

   b) Beren araudi espezifikoarekin bat zergapekoaren egoitza fiskalean edo araudiak horretarako ezarritako beste leku batean pertsonatuz edo elektronikoa ez den beste edozein modutan egin behar direnak.

   c) Kreditu-entitateetan irekitako kontuetan diruaren enbargoa bitarteko elektronikoen bidez egiteko prozedurari atxikitako kreditu-entitateei zuzendutakoak.

   d) Ogasun eta Finantza Sailaren zerga-bilketaren kudeaketan lankidetza-zerbitzuan aritu bitartean lankidetza-erakunde dihardute kreditu-entitateei zuzendutakoak.

   Zenbaki honetan xedatutakoa ez da eragozpen izango beronetan aipatutako jakinarazpen edo komunikazioetako batzuk egiteko baliabide teknikoak erabiltzeko, haien araudi espezifikoarekin bat.

### III. KAPITULUA.
### ZERGA ITZULKETAK.

**76. artikulua. Zerga itzulketak.**

1. Zergaren arauditik eratorritako itzulketa jasotzeko edo behar ez bezala sartutako kopuruak itzultzeko eskubidea onartzen denean, Zerga Administrazioko organo eskudunak itzulketa hori egingo du.

   Itzulketa egiteko bermeak eskatu badira zerga bakoitza arautzen duen araudian aurreikusitakoari jarraiki, itzulketa gauzatzea eskatutako bermeak ekartzearen mendekoa izango da.

2. Errekurtso edo erreklamazio ekonomiko-administratibo baten ebazpenean, epai batean edo beste ebazpen judizial edo likidazioak eta beste administrazio egintza batzuk baliogabetzen edo berrikusten dituen beste edozein akordiotan itzulketarako eskubidea aitortu bada, organo eskudunak ofizioz egingo edo beteko ditu errekurtso eta erreklamazio ekonomiko-administratiboen ebazpenak, edo ebazpen judizialak edo kasuan kasuko administrazio erabakia edo ebazpena gainerako kasuetan. Eragin hauetarako, Administrazioko organo eskudunek itzulketa zenbatu eta egin ahal izateko, nahikoa izango da kasuan kasuko akordioaren edo administrazio ebazpenaren kopia egiaztatua edo epaiaren lekukotza edo ebazpen judiziala eskuratzea.

3. Itzulketarako eskubidea oinordekoei dagokien kasuetan, berariazko araudiari begiratuko zaio eskubidearen titularrak zeintzuk diren argitzeko eta bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko.

4. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa xedatuta ere, zerga itzulketarako eskubidea eskualdatzeak partikularren arteko egintza edo negozioengatik ez du eraginik izango Administrazioaren aurrean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 17.4 artikuluan xedatu bezala.

**77. artikulua. Zerga itzulketen ordainketa edo konpentsazioa.**

1. Itzuli beharreko kopuruaren ordainketa Zerga Administrazioko organo eskudunak egingo du, eskatzaileak adierazitako bere titulartasunpeko Finantza Entitateko kontuan. Idazkian halakorik agertu ezean, edo eskatzailea kontuaren titularra ez denean, itzultzen den kopurua Ogasuna eta Finantzak Sailaren datu-basean ageri den banku kontuan ordainduko da.

2. Behin itzulketarako eskubidea onartuta, konpentsazioa egin ahalko da zergadunak hala eskatuta edo ofizioz, abenduaren 27ko 215/2005 Foru Dekretuak onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Araudian eta hura garatzekoan ezarritako prozedura eta epeekin bat etorriz.

3. Itzulketak egiterakoan akats materialen bat gertatzen bada, izatezkoa edo aritmetikoa, kreditu entitateak Zerga Administrazio egileari itzuli egingo dio dagokion kopurua edo, bestela, hartzaileari zuzenean eskatuko zaio kopuru hori itzul dezala.

## IV. TITULUA.
## ZERGA-KUDEAKETAKO PROZEDURAK ETA JARDUNAK.

### I. KAPITULUA.
### XEDAPEN OROKORRAK.

**78. artikulua. Aitorpenak, autolikidazioak eta itzulketa eskabideak aurkeztea.**

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 96.3 artikuluan aurreikusitakoaren eraginetarako, aitorpen eta autolikidazio ereduak Ogasuna eta Finantzak Saileko diputatuak onetsiko ditu.

Hark horiek aurkezteko modua, tokia eta epeak finkatuko ditu, eta, hala badagokio, zerga zorra sartzekoak ere. Halaber, baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabilita aurkezpenak zein kasu eta baldintzatan egingo diren ezarriko du.

2. Ogasuna eta Finantzak Saileko diputatuak itzulketa eskabideen ereduak onetsi ahalko ditu. Bereziki onetsitako eredu edo formulariorik ez duten itzulketa eskabideen kasuan, zergadunak eskatzen duen itzulketarako behar diren datuak bilduko ditu. Horretarako, zergaren araudian finkatutako toki eta epean idazkia aurkeztu beharko du, baliabide elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabilita horiek eskura badaude.

### 79. artikulua. Aitorpen osagarriak eta ordezkoak.

1. Aitorpen bat aurretik aurkeztutako beste aitorpen baten ordezko aitorpentzat hartuko da, baldin eta zergabetebehar berari eta aldi berari badagokio, eta, gainera, aurreko haren edukia ordezkatzen badu.

   Aitorpen bat zerga-betebehar beragatik eta aldi beragatik aurretik aurkeztutako beste aitorpen baten osagarritzat hartuko da, baldin eta aitorpen osagarri horretan aitortu gabeko beste datu batzuk sartu badira edo neurri batean aldatzen bada aurretik aurkeztutakoen edukia. Dena dela, aurreko aitorpenek beren horretan jarraituko dute aldatzen ez den zatiari dagokionez. Nolanahi ere, zerga-betebehar bakoitzaren araudiak aukera izango du zehazteko ezen beti erabili behar direla ordezko aitorpenak, beste datu batzuk sartzeko edo aurretik aurkeztutako beste aitorpen batzuen edukia aldatzeko.

2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 122. artikuluan aurreikusitako kasuetan, aitorpen osagarriak edo ordezkoak bakarrik aurkeztu ahalko dira hasierako aitorpenari dagokion likidazioa baino lehen. Kasu horretan, egiten den likidazioak aintzat hartuko ditu osatutako edo ordezkatutako datuak.

   Likidazioa eta gero, zergadunak aurretik aurkeztutako aitorpen baten edukia aldarazi nahi badu, haren zuzenketa eskatu beharko du araudi honetako 89. artikuluan ezarritakoari jarraiki. Zuzenketatik geratzen den gaineko zerga kuotatik hasierako likidazioaren zenbatekoa kenduko da.

3. Aurretik aurkeztutakoetarako aitorpen osagarriak edo ordezkoak aurkeztu ahalko dira betebehar formal bat betetzeko.

4. Aitorpen osagarrietan eta ordezkoetan beren beregi jasoko da eredu bat edo bestea den, zein den zerga betebeharra eta zein eperi buruz ari den.

### 80. artikulua. Autolikidazio osagarriak.

1. Autolikidazio osagarrien izaera edukiko dute aurretik aurkeztutako beste batzuen zerga betebehar eta aldi berdinari buruzkoak direnak, horiengatik sartu beharreko kopurua altuagoa bada edo itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua aurreko autolikidazioan adierazitakoa baino txikiagoa bada. Eraginik jaso ez duen alderdiak berean jarraituko du.

2. Autolikidazio osagarrietan beren beregi jasoko da inguruabar hori eta zerga betebeharra eta zein aldiri buruz ari diren, eta baita aitortu behar diren datu guztiak ere. Eragin horietarako, aurretik aurkeztutako autolikidazioan sartutako eta aldarazpenaren xede izan behar ez diren datuak erantsiko dira, aldarazpenaren xede direnekin eta sarrera berrikoekin batera.

3. Zergadunak zerga betebeharra zenbatu beharko du, autolikidazio osagarrian jarritako elementu guztiak aintzat hartuta. Autolikidazio osagarritik geratzen den gainerako zerga kuotatik hasierako autolikidazioaren zenbatekoa kenduko da.

   Behar ez bezalako itzulketa eskatu denean edo autolikidazio osagarritik irteten dena baino altuago bat eskatzen denean, eta itzulketa hori autolikidazio osagarria aurkeztu denerako oraindik egin ez bada, amaitutzat hartuko da hasiera batean aurkeztutako autolikidazioaren aurkezpenaren bitartez hasitako itzulketa prozedura.

Behar ez bezalako itzulketa edo autolikidazio osagarrian irtendakoa baino kopuru altuago bat eskuratu bada, behar ez bezala eskuratutako kopurua itzuli egin beharko da, aurkeztutako autolikidazio osagarritik erator daitekeen kuotarekin batera.

4. Zergadun batek uste badu autolikidazio batek kalte egin diela nolabait bere bidezko interesei, autolikidazio hori zuzentzeko eskatu ahal izango du araubide honetako 85. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

**81. artikulua. Itzulketa osagarrien eta ordezkoen eskabideak.**

1. Itzulketa osagarrien eskabidetzat hartuko da zerga betebehar berdinagatik eta aldi berdinean aurretik aurkeztutako aitorpen bati dagokiona. Bertan, aitortu gabeko datu berriak sartuko dira, edo neurri batean aurretik aurkeztutakoak aldaraziko dira, eragiten ez den alderdian berean jarraituz.

   Ordezko itzulketaren eskabidetzat hartuko dira zerga betebehar berdinagatik eta aldi berdinean beste aitorpen bat aurkeztu, eta haren edukia ordezkatzen duena.

2. Itzulketa osagarriko edo ordezko itzulketarako eskabide baten aurkezpena Zerga Administrazioak, zerga bakoitzaren araudiari jarraiki, kasuan kasuko itzulketa egitea erabaki baino lehen edo inolako itzulketarik egingo ez dela jakinarazten duen ebazpena eman aurretik egin ahalko da. Kasu horretan, egiten den itzulketak edo administrazio ebazpenak aintzat hartuko ditu osatutako edo ordezkatutako datuak.

3. Behin aurreko idatz-zatian aipatutako itzulketa egitea erabakita edo administrazio ebazpena emanda, zergadunak itzulketa eskabidea zuzentzea eskatu ahalko du, araudi honetako 85. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

## II. KAPITULUA.
## ZERGA KUDEAKETAKO PROZEDURAK.

### 1. ATALA.
### AUTOLIKIDAZIO BITARTEZ HASITAKO PROZEDURA.

**82. artikulua. Autolikidazio bidez hasten den prozedura.**

1. Zergari buruzko arautegian ezarriz gero, beraren kudeaketa zergadunak autolikidazioa aurkeztuta hasiko da; bertan zergadunak zerga-zorraren zenbatekoa edo itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua zehaztu behar du.

2. Behin autolikidazioa jasota, Administrazioak aurkeztutako agiriak aztertuko ditu eta bere esku dituen datu eta aurrekariak alderatuko ditu, hala badagokio egin beharreko likidazioa eginez.

3. Autolikidazio bidez hasitako prozedura Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 123. artikuluan aipatutako azterketa egin ondoren amaituko da, foru arau horretako 121.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

**83. artikulua. Itzulketa daraman autolikidazio bidez hasten den prozedura.**

1. Zerga bakoitzaren araudian ezarritakoaren ondoriozko itzulketak egiteko prozedura —Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 30. artikuluan daude ezarrita itzulketa horiek— zergapekoak eskatuta hasiko da; horretarako, kopuru bat itzuli beharra eragiten duen autolikidazio bat aurkeztu beharko du, tributu bakoitza arautzen duen araudian xedatutakoaren arabera.

   Hala ere, itzulketa azken likidazio-aldiari dagokion autolikidazioa aurkezten denean eskatzen bada, aurreko likidazio-aldietako aitorpenetan jasotako Zerga Administrazioari ordaindu beharreko kopuruak kenduta, ez dira kontuan hartuko, aurreko aldi horietakoak izanda, benetan Zerga Administrazioari ordaindu ez zaizkion kopuruak.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren kasuetan, zergapekoari ez zaio eskatuko aurreko aldietako autolikidazio horiei dagozkien kopuruak ordaintzeko urteko azken likidazio- aldiari dagokion itzulketa erabakitzeko kontuan hartu ez badira.

2. Eskatutako itzulketa eskuratzeko eskubidea onartu behar denean, organo eskudunak erabaki hori hartuko du eta erabakia jakinarazitzat hartuko da bankuko transferentzia bidez kasuan kasuko kopurua sartzearen bitartez.

   Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 81.3.a) artikuluan xedatutakoarekin bat, onartzen den itzulketa kautelazko erabateko edo neurri bateko atxikipenaren xede denean, jakinarazi egin beharko da kautelazko neurri hori hartu dela.

   Eskatutako itzulketa onartzeak ez du galaraziko ondoren zerga betebeharra egiaztatzea kasuan kasuko kudeaketa eta ikuskapen egokien bitartez.

3. Egiaztapen mugatuaren prozedura bat edo ikuskapen prozedura bat hastea eragiten duten akatsak, okerrak desadostasunak edo inguruabarrak daudenean —egiaztapen murriztuaren edo laburtuaren prozedurak ez dira sartzen—, itzulketa egiteko prozedura kasuan kasuko prozeduraren hasiera jakinarazten denean amaituko da. Kasu bakoitzean eskumena duen organoak egingo du jakinarazpen hori.

   Aurreko paragrafoan xedatutakoari jarraiki hasitako prozeduran, itzulketarik egin behar den eta zer zenbateko dagokion zehaztuko da, eta, hala badagokio, zergapekoaren tributu-egoerari buruzko beste alderdi batzuk ere.

4. Egiaztapen mugatuaren prozedura batean edo ikuskapen prozedura batean —egiaztapen murriztuaren eta laburtuaren prozedurak ez dira sartzen—, Zerga Administrazioak itzulketa egitea erabakitzen duenean, prozedura horren bitartez itzulketa egiteko prozedurari amaiera eman bazaio, berandutza-interesak ordaindu beharko dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 30.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Berandutza- interesak kalkulatzeko, ez dira aintzat hartuko erregelamendu honetako 68. artikuluan jasotako Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoien ondoriozko luzapen-aldiak, prozedura horien barruan gertatzen badira.

5. Itzuli beharreko kopuruaren ordainketa eskatzailearen banku kontu zenbakian egingo da, hark zehazki sarrera egitea nahi duen horretan. Halakorik agertu ezean, itzultzen den kopurua Ogasuna eta Finantzak Sailaren datu-basean ageri den eskatzailearen banku kontuan ordainduko da.

6. Aurkeztutako autolikidazioaren emaitza dirua itzuli beharra bada eta, autolikidazioa aurkezteko epea amaitu denetik edo, epez kanpo aurkeztu bada, aurkeztu den egunetik, sei hilabete igaro ondoren, prozedura iraungi bada, Administrazioak behin-behineko autolikidazioak eta likidazioak berrikusteko prozedura hasi beharko du Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 124 bis artikuluan eta erregelamendu honen 84 bis artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta. Bi hilabeteko epean hasi beharko du, autolikidazio bidez hasitako prozedura iraungi denetik zenbatuta.

   Edonola ere, azkenean itzultzen den kopuruaren berandutza-interesak ordaindu beharko dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 30. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

## 2. ATALA.
## AUTOLIKIDAZIO BITARTEZ HASITAKO PROZEDURA.

### 84. artikulua. Aitorpenaren bidez hasten den prozedura.

1. Zergadunaren aitorpen bidez hasten diren prozeduretan, Zerga Administrazioko organo eskudunak aukera edukiko du likidazioa egiteko egin behar diren jardunak egiteko, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 122.2 artikuluan xedatutakoarekin bat. Zergadunari datuak edo agiriak eskatzen zaizkionean, 15 eguneko epea emango zaio, agindeia jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita, kasuan kasuko ekarpenak egin ditzan, betiere,

berariazko araudiak beste eperik ezartzen ez badu. Halaber, Zerga Administrazioak agindeiak egin ahalko dizkie hirugarren batzuei.

2. Egiten den likidazioa behin-behinekoa izango da, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 124.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

   Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 67. eta 70. artikuluetan aipatutako preskripzio- epeen edo iraungipen-epeen barruan, Zerga Administrazioak tributuaren likidazioa egiteko prozedura hau hasi ahal izango du berriro aitorpen bidez hasitako prozedura iraungitzearen ondorioz amaitu bada, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 122. artikuluko 3. zenbakiko b) letran xedatutakoarekin bat etorriz.

3. Zergapekoak aurkeztutako aitorpen bidez hasitako prozedura Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 123. artikuluan aipatutako azterketa egin ondoren amaituko da, foru arau horretako 122.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

## 2. BIS ATALA.
## BEHIN-BEHINEKO AUTOLIKIDAZIOAK ETA LIKIDAZIOAK BERRIKUSTEKO PROZEDURA.

### 84. bis artikulua. Behin-behineko autolikidazioak eta likidazioak berrikusteko prozedura.

1. Zerga Administrazioak ofizioz hasi beharko du prozedura hau, autolikidazio bidez hasitako prozedura iraungi denetik bi hilabeteko epean, aurkeztutako autolikidazioaren emaitza dirua itzuli beharra denean.

2. Zerga Administrazioak kasu hauetan hasi ahal izango du prozedura hau ofizioz:

   a) Aurkeztutako autolikidazioaren emaitza kopuru bat ordaindu beharra denean edo emaitza hori zero denean.

   b) Zergapekoari dokumentazioa aurkez dezala eskatzeko Zerga Administrazioak prozedura hastea erabakitzen duenean (autolikidazio bidez hasitako prozedura bat iraungitzearen ondorioz amaitu aurretik), edo zergapekoaren tributu-egoera erregulatu beharra egiaztatzen duten zantzuak daudenean.

   c) Zerga Administrazioak ikusten duenean behin-behineko likidazio baten bidez berrikusi den autolikidazioan edo aitorpenean Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 124.2. artikuluan jasotako inguruabarren bat gertatzen dela edo aurreko behin-behineko likidazioetan kontuan hartu ez diren beste batzuk.

3. Behin-behineko autolikidazioak eta likidazioak berrikusteko prozesua Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 123. artikuluan aipatutako azterketa egin ondoren amaituko da, foru arau horretako 124.biz artikuluko 4. zenbakian xedatutakoari jarraiki.

## 3. ATALA.
## AUTOLIKIDAZIOAK, AITORPENAK EDO ITZULKETA ESKABIDEAK ZUZENTZEKO PROZEDURA.

## 1. AZPIATALA.
## AUTOLIKIDAZIOAK ZUZENTZEKO PROZEDURA.

### 85. artikulua. Autolikidazioak zuzentzeko prozedura hastea.

1. Zergadunek autolikidazioak zuzentzeko prozedura hasi ahalko dute, horrek zergaren arauditik eratorritako itzulketa, behar ez bezalako sarreren itzulketa edo beren bidezko interesak nolabait kaltetzea etor daitekeela uste dutenean.

2. Autolikidazioak zuzentzeko eskabideak organo eskudunari zuzenduko zaizkio, berariazko antolamendu araudiarekin bat etorriz.

Eskabidea kasuan kasuko autolikidazioa aurkezten denean egin ahalko da bakarrik, eta Zerga Administrazioak behin betiko likidazioa egin baino lehen, edo, bestela, Zerga Administrazioak, likidazio bitartez, zerga zorra zehazteko duen eskubidea edo kasuan kasuko itzulketa eskatzeko eskubidea preskribatu baino lehen.

Zergadunak ezingo du autolikidazioa zuzentzea eskatu, kudeaketa prozedura edo ikuskapen prozedura bat izapidetzen ari denean eta haren xedeak aurkeztutako autolikidazioaren xede den zerga betebeharra hartzen badu, betiere, alegazioak egiteko eta izapidetzen ari den prozeduran egoki irizten diren dokumentuak aurkezteko eskubidearen kaltetan izan gabe. Agiri horiek aintzat hartu beharko ditu izapideak egiten dituen organoak.

3. Zerga Administrazioak behin-behineko likidazioa egiten duenean, zergadunak autolikidazioaren zuzenketa eskatu ahalko du bakar-bakarrik behin-behineko likidazioa zergadunaren eskaeran aipatzen den uste edo arrazoia ez den batengatik egin bada.

   Zuzenketa eskabidearen eta behin-behineko likidazioaren artean uste edo arrazoi ezberdina ageri dela uste izango da zuzenketa eskabideak zerga betebeharraren elementuei eragiten dienean eta horiek behin-behineko likidazio bitartez erregularizatu ez direnean.

4. Araudi honetako 52. artikuluan xedatutakoaz gain, autolikidazio baten zuzenketa eskabidean hurrengo alderdiak bildu beharko dira:

   a) Zuzendu nahi den autolikidazioa identifikatzea ahalbidetzen duten datuak.

   b) Itzulketa eskatzen bada, eskatzailearen banku kontuaren zenbakia eman behar da, dirua bertan sartzeko. Idazkian halakorik agertu ezean, itzultzen den kopurua Ogasuna eta Finantzak Sailaren datu-basean ageri den banku kontuan ordainduko da.

5. Eskabidearekin batera, zuzenketa eskaera oinarritzeko hartutako agiriak erantsi beharko dira, eta baita zergadunak egindako sarreraren frogagiriak ere.

**86. artikulua. Autolikidazioak zuzentzeko prozedura izapidetzea.**

1. Espedientea izapidetzerakoan aintzat hartuko dira zuzenketaren komenigarritasuna zehazten duten inguruabarrak. Zuzenketarekin batera egindako sarrera bat itzultzea eskatzen denean, behar ez bezalakoa izan zein ez, hurrengo inguruabarrak egiaztatuko dira:

   a) Sarrera benetan egin dela eta, hala badagokio, itzulketa falta dela.

   b) Araudi honetako 88. artikuluan exijitutako betekizunak bete daitezela atxikipenen, konturako sarreren edo legez jasanarazi behar diren zergen kasuan.

   c) Itzulketaren komenigarritasuna, itzulketa eskuratzeko eskubidea duen titularra eta haren kopurua.

2. Aurreko idatz-zatian aurreikusitakoaren eraginetarako, Administrazioak aurkeztutako agiriak aztertu ahalko ditu, eta bere esku dauden datu eta aurrekariekin alderatu. Zergadunari berari agindeia ere luzatu ahalko zaio, autolikidazioa zuzendu dezan, eskatutako zuzenketan eragina duten finantza eragiketen agiri bidezko frogatzeari buruzkoak barne. Gainera, hirugarren batzuei agindeiak egin ahalko dizkie, eman behar duten informazio orokorra aurkez dezaten edo frogagiri egokien bidez berrets dezaten.

3. Prozedura horretan beharrezko jotzen diren txostenak eskatu ahalko dira.

**87. artikulua. Autolikidazioak zuzentzeko prozedura amaitzea.**

1. Prozedura ebazpen bidez amaituko da. Horrek behin-behineko likidazioaren izaera edukiko du eta, bertan, autolikidazioa zuzentzea edo ez erabakiko da. Erabakia arrazoitu egin

beharko da ukatzekoa bada edo erabakitako zuzenketa bat ez datorrenean interesdunak eskatu duenarekin.

Autolikidazioa zuzentzea erabakitzen den kasuan, Zerga Administrazioak erabakitako ebazpenak behin-behineko likidazioa eramango du zergadunak egindako zerga zorraren zenbaketaren elementu adierazgarriren bati eragiten dionean.

2. Itzulketa eskuratzeko eskubidea onartzen denean, eskubidearen titularra nor den eta itzulketaren zenbatekoa zein den zehaztuko da, eta baita ordaindu behar diren berandutza korrituak ere. Interes tasa aplikatzeko oinarritzat hartzen denak onartutako itzulketa edukiko du mugatzat.

3. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 98. artikuluko 1. idatz-zatiarekin bat etorriz, zergapeko batek bere autolikidazioa zuzentzeko prozedura bati ekiten badio eta zuzendu beharreko autolikidazioa hartzen duen egiaztapen edo ikerketa prozedura bat abiaraztea erabakitzen bada, zuzenketa prozedura egiaztapen edo ike rketa prozeduraren hasieraren jakinarazpenarekin amaituko da.

4. Prozedura honen ebazpena jakinarazteko dagoen gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori igarotzen bada hartutako erabakiaren gaineko jakinarazpen espresik egin gabe, eskabidea ezetsitzat hartu ahalko da.

**88. artikulua. Autolikidazioak zuzentzeko prozeduretako berezitasunak, atxikipenei, konturako sarrerei edo ordaindutako kuotei buruzkoak.**

1. Aurkeztutako autolikidazio batek atxikipenen, konturako sarreren edo jasanarazitako kuoten behar ez bezalako sarrera eragiten dizkienean beste zergadun batzuei, zuzenketa eskatzeko legitimazioa nahiz itzulketa eskuratzeko eskubidea Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 31. eta 229.4 artikuluetan xedatutakoari jarraiki arautuko da.

2. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako kasuetan, zuzenketa eskatzea hurrengoen ardura izango da:

   a) Euren zerga betebeharrak betetzerakoan zor ez zen sarrera egin duten zergadunei eta haien oinordekoei.

   b) Jasanarazitako atxikipena edo konturako sarrera jasan duen pertsona edo erakundeari, baldin eta jasandako atxikipena edo jasanarazitako sarrera bidegabekoak direla irizten badiote. Aldiz, bidegabekotzat jotzen den konturako sarrera inori jasanarazi ez bazaio, aurreko a) letran aipatutako pertsona edo erakundeek izango dute itzulketa eskatzeko eskubidea.

   c) Zor ez zen sarrera legez jasanarazi beharreko zergei badagokie, aurreko a) letran aipatutako pertsona edo erakundeez gainera, jasanarazpena jasan duen pertsona edo entitateari.

   Aurreko b) eta c) letretan aipatutako kasuetan, atxikipena edo konturako sarrera edo zergaren jasanarazpena bidegabeki jasan duen zergadunak zor ez zen sarreraren itzulketa eskatu ahal izango du, zor ez zen sarrera egiteko erabilitako autolikidazioa zuzentzeko eskatuz.

3. Atxikipena edo jasanarazpena bidegabeki jasan duen pertsona edo erakundeari berari egingo zaio behar ez bezala sartutako kopuruen itzulketa, nahiz eta zor ez zen sarreraren itzulketa atxikitzaileak edo kuotak jasanarazi zituen zergadunak eskatu, edo Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra administrazio bideko berrikuspenaren arloan garatzeko araudiko 14. artikuluan ezarritako prozeduretako batean erabaki.

   Itzulketarako eskubidea oinordekoei dagokien kasuetan, berariazko araudiari begiratuko zaio haren onuradunak eta bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko.

4. Tributua jasan duen pertsona edo erakundeari itzulketa egitea bidezkoa izango da baldin eta okerreko diru-sarrera legez beste pertsona edo erakunde batzuei jasanarazi beharreko tributuei badagokie eta honako betekizunak betetzen badira:

   1. Tributua arautzen duen araudiak hala ezartzen duelako, zenbatekoa fakturaren edo ordezko agiriaren bidez jasanarazita egotea.

   2. Oker jasanarazitako kuotak ordainduta izatea.

      Tributua jasan duen eragiketen hartzaileak jasanarazitako edo ordaindutako kuotengatik kenkarirako eskubidea duenean, oker jasanarazitako kuotak ordaindukotzat joko dira haiek jasanarazi dituenak behar bezala jaso baditu tributuaren autolikidazioan, autolikidazio horren emaitza edozein dela ere.

      Aurrekoa gorabehera, emaitza ordaindu beharra izan duten autolikidazioetan benetan ordaindu ez bada, oker jasanarazitako kuotatik ordaindu gabe dagoen autolikidazioaren emaitza gainditzen duen kopurua baino ez da itzuli beharko. Eta ezin izango zaio eskatu itzuli ez den oker jasanarazitako kuotarekin bat datorren zenbatekoan jasanarazi zuenari.

      Itzulketa egiteko, Zerga Administrazioak tributua oker jasanarazi duen pertsona edo erakundearen zerga-egoera egiaztatu ahal izango du, eta egiaztapen horren emaitzaren arabera hartuko du erabakia.

   3. Oker jasanarazi diren eta itzultzeko eskatzen diren kuotak Zerga Administrazioak haiek jasan zituenari edo hirugarren bati itzuli gabe izatea.

   4. Tributua jasan duen zergapekoak jasanarazitako kuotak itzultzeko eskubiderik ez izatea.

   Kenkarirako eskubidea partziala denean, kengarria izan ez den zenbatekoa baino ez da itzuliko. Horretarako, zergapekoak ez du izango jasanarazitako kuoten kenkarirako eskubidea egiaztapen edo ikuskapen prozedura batean adierazten denean kuota horien kenkaria ezin zela egin, oker jasanarazi direlako, eta prozedurari amaiera eman dion egintza irmoa bihurtu denean.

5. Bidegabeki jasandako atxikipen edo sarreren kasuan, ez da bidezkoa izango inongo itzulketarik egitea, baldin eta bidegabekotzat jo den atxikipen edo konturako sarreraren zenbatekoa autolikidazioren batean kendu bada edo Administrazioak kontuan hartu badu likidazio nahiz itzulketaren batean.

6. Balio Erantsiaren gaineko Zergan behar ez bezala jasanarazitako kuotak direnean, jasanarazpena egin zuen zergadunak autolikidazioaren zuzenketa eskatu ahalko du, edo, bestela, zerga egoera erregularizatzea erabaki ahalko du, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 89.bost artikuluko b) paragrafoan aurreikusitako baldintzetan.

7. Autolikidazioaren zuzenketa atxikipenak, konturako sarrerak edo jasanarazitako kuotak behar ez bezala jasan zituen zergadunak eskatzen duenean, aurreko artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da, hurrengo berezitasunekin batera:

   a) Prozeduraren ebazpena berariazko antolamendu araudia gorabehera zuzentzea eskatu den autolikidazioa aurkeztu zuen zergadunarekiko eskudun den organoaren ardura izango da.

      Zerga Berezien kasuan, prozedura, berariazko antolamendu araudiari jarraiki, jasanarazpena egin zuen zergadunaren establezimenduari dagokionez eskudun den organoaren ardura izango da.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kasuan, eragiketa bolumenean ordaintzen direnean zergak, eta behar ez bezala jasanarazitako kuotak itzuli behar direnean, Bizkaian itzulketaren xede den ekitaldian egin behar den zergapetze portzentajea itzuliko da.

b) Eskabidea atxikipen jarduna, konturako sarreraren murrizpena edo jasanarazpen jarduna eskatzaileari benetan jakinarazi zaionetik egin ahalko da, edo, bestela, hark horren berri izan duela egiaztatzen denetik aurrera.

   Zuzentzea eskatzen den autolikidazioa aurkezteko dagoen aitorpen epea amaitu baino lehen aurkezten denean zuzenketa eskabidea, bidezko geldiarazpen alditzat hartuko da prozedura ebazteko epea zenbatzeari dagokionez aurkezpenetik aitorpenerako epe hori amaitzen den arte doan denbora.

c) Eskabidean, araudi honetako 85.4 artikuluan aurreikusitako inguruabarrez gain, atxikitzailearen edo jasanarazitako konturako sarrera egin zuen pertsona edo entitatearen edo jasanarazpena egin zuen zergadunaren izen-deiturak, edo sozietatearen izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia ere jasoko dira.

   Eskabidea behar ez bezala jasandako atxikipena, konturako sarrera edo jasanarazpenak bidezkotzen dituzten agiriekin batera aurkeztu beharko da.

d) Prozedura izapidetzen denean, konturako sarrera egin eta eraginkor bihurtu zuen edo jasanarazpena egin zuen atxikitzaile edo zergadunari zuzenketa eskabidea jakinarazi egingo zaio, eta agertzeko 10 eguneko epea duela esango. Epea agindeiaren jakinarazpen egunaren biharamunetik hasiko da, eta eskatutako agiri eta aurrekari guztiak eta egoki irizten direnak aurkeztu beharko dira.

e) Prozedura amaitzen duen behin-behineko likidazioa edo ukatzeko ebazpena zergadun guztiei jakinaraziko zaie.

f) Onesten duen ebazpena atxikitzaileak, konturako sarrera egin eta eraginkor bihurtu zuen zergadunak edo jasanarazpena egin zuenak errekurrituko balu, hura ez da betearazlea izango irmoa bihurtzen ez den arte.

### 2. AZPIATALA.
### ITZULKETA AITORPENAK ETA ESKABIDEAK ZUZENTZEKO PROZEDURA.

#### 89. artikulua. Itzulketa aitorpenak eta eskabideak zuzentzeko prozeduraren berezitasuna.

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 122. artikuluan araututako aitorpenen kasuan behin-behineko likidazioa egiten duenean Zerga Administrazioak, edo itzulketa eskaeren kasuan itzultzea erabakitzen duenean edo itzulketa ezesten duen ebazpena egin duenean, zergadunak aitorpena edo aurretik aurkeztutako itzulketa eskabidea zuzentzea eskatu ahalko du, haren edukiak nolabait bere bidezko interesak kaltetu dituela uste badu edo zenbateko gehiagoko likidazioa edo itzulketa gutxiagokoa egin behar daitekeenean.

   Zerga Administrazioak behin-behineko likidazioa egiten duenean, zergadunak autolikidazioaren zuzenketa eskatu ahalko du bakar-bakarrik behin-behineko likidazioa zergadunaren eskabidean aipatzen den uste edo arrazoia ez den batengatik egin bada. Zuzenketa eskabidearen eta behin-behineko likidazioaren artean uste edo arrazoi ezberdina ageri dela uste izango da zuzenketa eskabideak behin-behineko likidazio bitartez erregularizatu ez diren zerga betebeharraren elementuei eragiten dienean.

2. Zuzenketatik sartu beharreko kopurua irteten denean, kasu bakoitzean ordaindu behar diren berandutza korrituak exijituko dira. Berandutza korrituak kalkulatze aldera, ez da aintzat hartuko hasierako aitorpena aurkeztu zenetik hasierako aitorpen horrengatik egindako likidazioari dagokion borondatezko ordainketa aldiaren epea amaitu arte igarotako denbora.

3. Artikulu honek heldutako zuzenketa eskabideetan, araudi honetako 85.etik 87.era bitarteko artikuluetan ezarritako arauak aplikatuko dira.

## 4. ATALA.
## OFIZIOZ HASITAKO ITZULKETA PROZEDURAK EDO ZERGA ZORRAREN KUANTIFIKAZIORAKO PROZEDURAK.

### 90. artikulua. Zergadunei laguntzeko likidazio proposamenak lantzeko prozedurak.

1. Zerga bakoitzaren araudiak ezartzen dituen kasu eta baldintzetan, Zerga Administrazioak ofizioz landu ahalko ditu itzuli beharreko, ordaindu beharreko edo konpentsatu beharreko likidazio proposamenak, araudi honetako 19. artikuluan aurreikusitako zerga laguntzarako jardunen barruan.

2. Hala eta guztiz ere, egin ahal den behin-behineko likidazioa ofizioz aldarazi ahalko du Zerga Administrazioak preskripzio edo iraungitze epean, hori egin behar dela dioten datu berriak agertzen direnean.

   Halaber, zergadunak uste badu behin-behineko likidazioak kalte egin diela bere bidezko interesei, preskripzio epean zuzentzeko eskatu ahal izango dio Zerga Administrazioko organo eskudunari, betiere, zerga bakoitzaren araudiak horretarako aukerarik ematen badu.

## 5. ATALA.
## ESKAERA IZAERAKO ZERGA ONURAK AITORTZEKO PROZEDURA.

### 91. artikulua. Zerga Administrazioak eskaera izaerako zerga onurak aitortzeko prozedura.

1. Zerga onurak aitortzeko prozedura zergadunak eskatuta hasiko da, hura emateko eskudun den organoari zuzendutako eskabidea aurkeztuz. Harekin batera, eskatu daitezkeen agiri eta frogagiriak aurkeztuko dira, eta baita zergadunak egoki irizten dituenak ere.

2. Zerga onura emateko betekizunen egiaztapena zerga onura arautzen duen araudian exijitzen diren datu eta agiriei jarraiki egingo da, eta baita hirugarren pertsona batzuek aitortu edo eman ditzaketen datuei edo Zerga Administrazioak, zergadunari eta hirugarren batzuei, eska diezazkiekeen datuei jarraiki ere.

3. Zerga onurak aitortzeko prozedura ebazpen bidez amaituko da, eta bertan zerga onuraren ezarpena aitortu edo ukatuko da.

   Prozeduraren ebazpena jakinarazteko gehieneko epea zerga onura arautzen duen araudiak ezarritakoa izango da, eta, bestela, sei hilabetekoa. Ebazpena beren beregi jakinarazi izan gabe ebazteko epea igarotzen bada, eskabidea ezetsitzat hartu ahalko da, aplikatu beharreko araudian beste ezer adierazten bada salbu.

### 92. artikulua. Eskaera izaerako zerga onurak aitortzearen eraginak.

1. Zerga onuren aitorpenak eraginak edukiko ditu aplikatu beharreko araudiak ezartzen duen unetik aurrera edo, bestela, hura ematea onartzen den unetik aurrera.

   Zerga onuren aitorpena behin-behinekoa izango da etorkizuneko baldintza batzuk betetzearen pekoa denean, edo espedientean egiaztatu ez diren betekizun jakin batzuk benetan agertzearen mendekoa denean. Onuraren ezarpena, une oro, aplikatu behar den araudian aurreikusitako baldintza eta betekizunak agertzearen mendekoa izango da.

2. Kontrakoa adierazten duen xedapena salbu, behin zerga onura ematen denean, ez da beharrezkoa izango hura etorkizunean aplikatzeko eskabidea berrestea, betiere, ematea bidezkotu zuten inguruabarrak edo aplikatu beharreko araudia aldarazten ez badira.

   Zergadunek zerga onuraren egokitasuna aitortu zuen organoari jakinarazi behar diote hura aplikatzeko eskatzen diren baldintza edo eskakizunetan edozein aldarazpen garrantzitsu

gertatzen bada. Zerga Administrazioak, berriemate hori ikusita, zerga onura aplikatzen jarraitzea egokia den edo ez adierazi ahalko du.

Halaber, Zerga Administrazioak, edozein bidetik, jakin egiten badu zerga onura aplikatzeko baldintzak edo eskakizunak aldarazi egin direla, aitortu egin ahalko du zerga onura aplikatzen jarraitzea egokia den edo ez. Hori baino lehen, zergadunaren entzunaldi izapidea beteko da 15 egunez, epea entzunaldiaren hasiera jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera hasiz.

3. Zerga onura aplikatzeko exijituriko betekizunak ez betetzeak hura aplikatzeko eskubidea galtzea eragingo du berariazko araudiak ezartzen duen unetik, edo, bestela, ez betetzea jazotzen denetik, aldez aurretik administrazio aitorpenik behar izan gabe.

   Zerga onuren ezarpena etorkizuneko baldintzen mendekoa den kasuan, baldintza horiek ez betetzeak behar ez bezala aplikatutako zerga onurak erregularizatu beharra ekarriko du, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 119.2 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoari jarraiki. Eragin horietarako, zergaldirik gabeko zergak edo likidazioa direnean, zergadunak autolikidazioa aurkeztu beharko du hilabeteko epean salbuespena, kenkaria edo zerga pizgarria aplikatzeko eskubidea galdu zuenetik, eta, salbuespenetik, kenkaritik edo zerga pizgarritik eratorritako kuota edo kopuruarekin batera, horri dagozkion berandutza korrituak ordaindu beharko ditu.

## 6. ATALA.
## BALIOAK EGIAZTATZEKO PROZEDURA.

### 1. AZPIATALA.
### BALIOAK EGIAZTATZEA.

#### 93. artikulua. Balioak egiaztatzea.

1. Zerga Administrazioak zerga betebeharreko errenten, produktuen, ondasunen eta hura eratzen duten gainerako elementuen balioa egiaztatu ahalko du, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 55. artikuluan xedatutakoarekin bat, betiere, zergadunak hurrengoei jarraiki aitortu ez badu:

   a) Xede horretarako Zerga Administrazioak jakinarazi duen balioa, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 87. artikuluan eta araudi honetako 21. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

   b) Eratxekigarri zaien gutxieneko balioa zehazteko araudiak ezarritako arau teknikoak, betiere, kasuan kasuko ondasunei aplikatzeko aukerarik badago eta balioak egiaztatzeko baliabidearen izaera arau horiei espresuki onartzen dien zergei dagokienez.

   c) Administrazio jarduleak berak Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 55.1 artikuluan aurreikusitako baliabideetatik bat edo beste aplikatzeko argitaratutako balioak.

   d) Salmenta prezioaren administrazio finkapena duten balioak.

2. Atal honetan xedatutakoa zerga bakoitzaren araudian ezarritakoaren kaltetan izan gabe egingo da.

#### 94. artikulua. Balioak egiaztatzeko baliabideak.

1. Balorazio baliabidearen ezarpena Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 55.1.b) artikuluak aipatutako zerga izaerako erregistro ofizialetan ageri diren balioei erreferentzia egitearen ondotiko zenbatespenarekin egiten da, eta horrek eskatu egingo du koefiziente biderkatzaileak kalkulatzeko erabiltzen den metodologia teknikoa, metodologia horretatik etorritako koefizienteak eta horien

baliozkotasun denbora aplikatuko dituen Zerga Administrazioaren onespen eta argitalpen xede izatea.

2. Balioen egiaztapenean merkatuko batez besteko prezioen balorazioaren baliabidea erabiltzen denean, Zerga Administrazioak batez besteko prezio horiek zehazteko erabilitako metodologia edo kalkulu sistema onetsi eta argitaratu ahalko du, ondasun mota zein den gorabehera. Bertatik irteten diren balioak ere onetsi eta argitaratu ahalko ditu.

3. Balioen egiaztapenean Administrazioaren perituaren irizpenean oinarritzen den balorazio baliabidea erabiltzen denean, hark behar besteko titulazio egokia eduki beharko du baloratu beharreko ondasun motarekiko.

   Banako ondasun edo eskubide bati buruzko balorazioa denean, ondasun edo eskubidearen balioa zehazteko aplikatu beharreko araudian aintzat hartu behar diren ezaugarri fisikoak, ekonomikoak eta juridikoak jasoko dira.

4. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 55.1 h) artikuluan xedatutakoaren eraginetarako, zerga betebeharra dakarren eskualdatutako ondasunen balioa egiaztatu egin ahalko du Zerga Administrazioak, horretarako ondasun berdinaren beste eskualdaketa batzuei dagokien prezio edo balio aitortua aintzat hartuz, horiek urtebeteko epean egin direnean zergaren eraginak dituen sortzapen datatik, betiere, balio hori zehazten duten izaera fisiko, juridiko eta ekonomikoko inguruabarrak funtsean mantentzen badira.

### 95. artikulua. Balioak egiaztatzeko jardunak.

1. Balioen egiaztapena Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko III. Tituluko III. eta IV. Kapituluetan aurreikusitako zergen ezarpen prozeduretan aurreikusitako jardun zehatzen bat bezala ere egin ahalko da.

2. Balioen egiaztapena aurreko idatz-zatian adierazitako prozeduretatik baten batean egiten denean, eta egiaztapen hori prozedura izapidetzen duen organoak egiten ez badu, egiaztatutako balioa jatorriko prozedurari erantsiko zaio.

3. Balioen egiaztapena aurreko 1. idatz-zatian aurreikusitakoari jarraiki egiten denean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 127. artikuluan eta araudi honetako hurrengo azpiatalean xedatutakoa aplikatuko da.

   Ebazpenerako gehieneko epea izapidetzen ari den prozedurarena izango da.

   Balioak egiaztatzeko jardunak ikuskapen prozedura batean egiten direnean, Zerga Administrazioaren eskumenak Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Ikuskapenaren Araudian onartutakoak izango dira.

4. Balioen egiaztapena egiteko erabiltzen den prozedura edozein dela ere, zergadunek eskubidea dute peritu-tasazio kontrajarria bultzatzeko, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 128. artikuluan eta araudi honetako hurrengo 3. azpiatalean ezarritako baldintzetan.

5. Ez dira balioak egiaztatzeko jarduntzat hartuko zerga betebeharraren errenten, produktuen, ondasunen edo elementuen balioa arau edo erregelamendu batetik zuzenean eratorritakoa bada.

## 2. AZPIATALA.
## BALIOAK EGIAZTATZEKO PROZEDURA.

### 96. artikulua. Balioak egiaztatzeko prozedura.

1. Prozedura honetan, Administrazioaren esku dauden datuak, zergapekoek beren aitorpenetan emandakoak eta aurkezten diren frogagirietan datozenak edo aurkezteko eskatzen direnetan ageri direnak aztertu ahalko ditu Zerga Administrazioak. Halaber,

ebaluazio hori egiteko behar den informazioa eskatu ahal izango dio zergapekoari edo hirugarren batzuei.

Horrez gainera, ebaluazioaren xede diren ondasun eta eskubideen azterketa fisikoa eta dokumentala egin ahal izango du Administrazioak. Horretarako, organo eskudunek 2012ko urtarrilaren 24ko 5/2012 Foru Dekretuaren bitartez onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikuskapenaren araudiko 6. artikuluan ezarritako eskumenak izango dituzte.

2. Perituen irizpenean, beharrezkoa izango da perituak baloratutako ondasuna pertsonalki aztertzea, ondasun bereziak badira edo alderatutako iturri dokumentaletan inguruabar garrantzitsu guztiak eskuratu ezin diren ondasunak badira. Ondasuna duenak azterketa horri ezezkoa ematen badio, Zerga Administrazioa salbuetsiko du betekizun hori betetzeaz.

3. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 55. artikuluak ezarritako edozein baliabideren bitartez egindako balioen egiaztapenetik irteten den balorazioa arrazoitua izan beharko da. Foru arau horretako 101.3 artikuluan aurreikusitako eraginetarako, balorazio proposamenak espresuki jasoko du ezarritako araudia eta ezarpenaren xehetasuna. Bereziki, hurrengo alderdiak jaso beharko ditu:

   a) Zerga izaerako erregistro ofizialetan ageri diren balioei erreferentzia eginez eskuratzen den zenbatespenean, erreferentzia gisa hartutako balioa eta balioa zehazteko erabilitako parametro, koefiziente eta gainerako kuantifikazio elementuak zehaztu beharko dira.

   b) Merkatuko batez besteko prezioak erabiltzerakoan, zehaztu egin beharko da merkatuko batez besteko prezioen azterketen eta kasu zehatzaren araberako kalkulu sistemen egokitzapena.

   c) Perituen irizpenetan zehazki adierazi beharko dira aitortutako balioaren aldarazpena bidezkotzen duten izatezko elementuak eta baita esleitutako balorazioa ere. Hiri izaerako ondasun higiezinak direnean, beren beregi jasoko da aplikatutako oinarrizko banako modulua, haren komenigarritasuna eta zehazteko modua adieraziz. Halaber, inguruabar garrantzitsu guztiak adieraziko dira, adibidez azalera, antzinatasuna eta beste batzuk, horiek aintzat hartu badira egiaztatutako balioa zehazteko. Amaierako balioan horiek izandako eragin zehatza eta egoki izatearen iturria azaldu beharko dira.

   d) Zerga bakoitzaren Foru Arauak Eratxikigarri zaien Gutxieneko Balioa ezartzen badu balioak egiaztatzeko baliabide gisa, orduan zehaztu egin beharko dira zeintzuk diren koefiziente zuzentzaileak eta lurzoruaren balioaren zonaldeko oinarrizko balioa, eta eraikitako azalera eta eraikuntza bakoitzaren balioa.

4. Administrazio balorazioak oinarri gisa balioko dio egiten den behin-behineko likidazioari, zerga betebeharreko beste elementu batzuen kasuan zergak aplikatzeko beste prozedura batzuk hasi ahal izatearen kaltetan izan gabe.

## 3. AZPIATALA.
## PERITU-TASAZIO KONTRAJARRIA.

### 97. artikulua. Peritu-tasazio kontrajarriaren prozedura hasi eta izapidetzea.

1. Zergadunak peritu-tasazio kontrajarria eskatzen duenean, beharrezkoa izango da Administrazioko peritu batek egindako balorazioa edukitzea, balioaren egiaztapena Administrazioko peritu irizpenak ez diren beste baliabide batekin egin bada. Eragin hauetarako, organo eskudunak baloratu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda bidaliko die kasuan kasuko zerbitzu teknikoei. Bi hilabeteko epean, horientzako egokia duen titulazioa duen langileak kasuan kasuko preziamendu orria egingo du, bertan egindako balorazioaren emaitza eta erabilitako irizpideak jasoz.

2. Organo eskudunak zergadunari jakinara z i ko dio aurreko idatz-zatian adierazitako balorazioa, edo, balioen egiaztapena Administra z i o ko perituen irizpen bitartez egin den kasuan, espedientean jada ageri den balorazioa, eta bi hilabeteko epea emango zaio balorazioa jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita, ondasunen izaerarekiko eta baloratu beharreko eskubideekiko titulazio egokia duela frogatu beharko duen peritu batek egindako tasazioa aurkeztu dezan.Epe hori igaro egiten bada zergadunak Administrazioari aipatutako tasazioa aurkeztu gabe, peritu-tasazio kontrajarria bultzatzeko eskubidean atzera egiten duela ulertuko da, eta prozedura amaitutzat joko.Hala gertatuz gero, likidazioan Administrazioaren p e rituen irizpenaren bitartez egiaztatutako azken balioa hartuko da aintzat eta ezin izango da bultzatu beste peritutasazio kontrajarri bat.

3. Hirugarren peritu batzuk izendatzeko, Ogasun zuzendari orokorrak elkargo, elkarte edo lanbide korporazio ezberdinei -legeak onartzen dituenak- eskatuko die, urrian eta gutxienez 5 urtetik behin, hirugarren peritu gisa jarduteko prest dauden elkargokide edo elkartekideen zerrenda bidal dezatela. Azaroa amaitu aurretik zerrenda aurkeztuta, zerrenda bakoitzeko elkargokide bat aukeratuko da abenduan zozketa publiko bidez. Hortik aurrera, hurrengo 5 ekitaldietan eta zozketa berri bat egin arte, izendapena hurrenkera korrelatibo bidez egingo da, ondasunen izaera eta baloratu beharreko eskubideak aintzat hartuta.

   Ondasunen izaeragatik edo baloratu beharreko eskubideengatik profesionalen elkargo, elkarte edo korporazio gaiturik egongo ez balitz, edo hirugarren peritu modura jarduteko prest dagoen profesionalik egongo ez balitz, kasuan kasuko erregistro ofizialean inskribatutako tasazio sozietatea izendatuko da.

4. Zergadunak ordaindu behar ditu bere perituaren lansariak. Hirugarren perituak egindako tasazioaren eta aitortutako balioaren arteko aldeak, balio absolutuetan hartuta, aitortutako balioaren 100eko 20a gainditzen duenean, hirugarren perituaren gastuak zergadunak ordainduko ditu eta, bestela, Administrazioaren konturakoak izango dira. Kasu horretan, subjektu pasiboari hurrengo paragrafoan aipatzen den gordailua itzuliko zaio, hura eratu zenetik eratorritako berandutza korrituekin batera.

   Hirugarren perituak eskatu ahalko du bere lana egin aurretik ordainsaria ordain diezaiotela, Ogasuna eta Finantzak Sailean eratutako gordailuaren bitartez, 15 eguneko epean. Zergadunak kopuru hori gordailatu ezean, Administrazioko perituak egindako balorazioa onartzen duela ulertuko da, dena delakoa bien artean dagoen aldea.

   Hirugarren perituak aldez aurretiko gordailua eskatzen duenean, ezingo da balorazioarekin hasi zergadunak gordailua egin duela egiaztatzen zaion arte, lehen adierazitako epean.

   Zerga Administrazioak ordainsari estandarrak ezarri ahalko ditu Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 128.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki izendatu behar diren hirugarren perituentzat.

5. Behin hirugarren perituak gordailua onartuta, Administrazioak onetsitako ordainsariak onartzea ere ekarriko duena, baloratu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda emango zaio, eta baita aurreko perituen preziamendu orrien kopiak ere. Bi hilabeteko epean, entrega egiten den egunaren biharamunetik hasita, aurreko balorazioetatik bat edo beste berretsi edo balorazio berri bat egin beharko du, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 128.4 artikuluan aurreikusitako mugen kaltetan izan gabe.

   Hirugarren perituak Zerga Administrazioaren aurrean balorazioa aurkeztuta, horren berri emango zaio zergadunari, eta hark perituaren ordainsariak ordaindu behar baditu, Foru Aldundiak haren izenean ordainduko ditu, xede horretarako aldez aurretik eratutako gordailua erabiliz.

   Hirugarren perituak aurreko paragrafoan ezarritako epean baloraziorik egiten ez badu, eraginik gabe utzi ahalko da haren gordailua, betiere, epe barruan irizpena egitea falta izateagatik erator daitezkeen erantzukizunen kaltetan izan gabe. Gordailua eraginik gabe uzten bada, inguruabar hori hirugarren perituari eta zergadunari jakinaraziko zaie, eta, hala

badagokio, ordainsarien gordailuaren askapena egingo da eta hurrenkera korrelatiboa erabilita hirugarren beste peritu bat izendatu.

### 98. artikulua. Peritu-tasazio kontrajarriaren prozedura amaitzea.

1. Peritu-tasazio kontrajarriaren prozedura jarraian adieraziko diren moduetatik batera edo bestera amaituko dira:

    a) Zerga Administrazioan hirugarren peritu batek egindako balorazioa entregatuta.

    b) Zergadunak atzera egiteagatik aurreko artikuluko 2. idatz-zatian aurreikusitako moduan.

    c) Hirugarren peritu bat izendatzea beharrezkoa ez izateagatik, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 128.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

    d) Ordainsariarentzako gordailua eratu ez izanagatik aurreko artikuluko 4. idatz-zatian aurreikusitako moduan.

    e) Iraungitzeagatik, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 102.3 artikuluan aurreikusitako moduan.

    Prozedura ebazteko gehieneko epea urte bat izango da. Administrazioari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik ebazpen espresurik jakinarazi ez bada ebazteko dagoen epean, zergapekoak aitortutako balioa nagusituko da.

2. Artikulu honetako 1.c) idatz-zatian aurreikusitako kasuan, ematen den likidazioak zergadunaren perituak egindako tasaziotik etorritako balorazioa hartuko du oinarri gisa, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 128.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta Zerga Administrazioak ezingo du balio egiaztapen berririk egin ondasun edo eskubide berdinen gainean.

3. Artikulu honetako 1.d) idatz-zatian aurreikusitako kasuan, ematen den likidazioak Administrazioaren balorazioa hartuko du, eta zergadunak ezingo du peritu-tasazio kontrajarri berririk bultzatu.

4. Artikulu honetako 1.e) idatz-zatian aurreikusitako kasuan, ematen den likidazioak hasierako likidazioan oinarri gisa hartutako balio egiaztatuta hartuko du, eta ezingo da peritu-tasazio kontrajarri berri bat bultzatu.

5. Behin prozedura amaituta, zerga administrazio eskudunak oinarri gisa hartu behar den balorazioari dagokion likidazioa jakinaraziko du, edo, bestela, aurretik emandakoa berretsiko du, egokitu diren berandutza korrituekin batera.

    Berandutza korrituak kalkulatzeko, peritu-tasazio kontrajarriaren prozedurak iraun bitartean sortutako berandutza korrituak aintzat hartuko dira.

    Likidazioaren jakinarazpenarekin, edo, bestela, haren berrespenarekin, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60. artikuluan aurreikusitako epea hasiko da, diru-sarrera egin dadin. Halaber, likidazioaren aurkako errekurtso edo erreklamazio ekonomiko-administratriboa jartzeko epea ere hasiko da, peritu-tasazio kontrajarriaren eskabidea aurkezteagatik eten egin zen kasuan.

## 7. ATALA.
## EGIAZTAPEN MUGATUAREN PROZEDURA.

### 99. artikulua. Egiaztapen mugatuaren prozedura hastea.

Egiaztapen mugatuaren prozedura hasi ahalko da, besteak beste, hurrengo kasuetan:

a) Zergapekoak aurkeztutako autolikidazio, aitorpen edo eskabideetan edo behin-behineko autolikidazioak eta likidazioak berrikusteko prozeduran eta Zerga Administrazioak egindako behin-behineko likidazioetan, edukian akatsak ikusten direnean edo aitortutako datuen edo aurkeztutako frogagirietan datozen datuen eta Zerga Administrazioaren esku dauden froga elementuen artean desadostasunak daudenean.

b) Zergapekoak aurkeztutako autolikidazio, aitorpen edo eskabideetan zerga-betebeharraren elementu guztiak edo elementuren bat egiaztatu behar direnean, edo zergapekoaren jarduera ekonomikoen etekinak zehazteko kontuan hartzen diren osagai guztien berrikuspen orokor bat egin nahi denean, ikuskapen prozedura bat erabiltzen denean izan ezik.

c) Administrazioaren esku dauden aurrekariei jarraiki, zerga-egitatea edo zerga betebehar baten izatezko jazokizuna aitortu edo egiteko betebeharra agerian geratzen denean, autolikidazioa edo zerga-aitorpena aurkeztu izanaren berri eduki gabe.

**100. artikulua. Egiaztapen mugatuaren prozedura izapidetzea.**

1. Zerga Administrazioak arrazoitu egin ahalko du jardunen helmena zabaldu edo murriztea. Erabaki hori zergadunari jakinarazi beharko zaio, eta likidazio proposamenarekin batera egin ahalko da.

2. Ebazpena baino lehen, Administrazioak likidazio proposamena jakinarazi beharko dio zergadunari, 15 eguneko epean, proposamena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera bere eskubideari komeni zaiona alegatu dezan.

   Alegazioen izapidea baztertu egin ahalko da, ebazpenak espresuki adierazten badu ez dela zerga egoera erregularizatu behar egindako egiaztapenaren ondotik.

3. Prozeduraren xede den zerga betebehar bakoitzari dagokionez, ebazpen bakar bat eman ahalko da egiaztapenaren xede den denbora eremu guztirako. Horrela, zorra, egiaztatutako zergaldi edo likidazio ezberdinei buruzko likidazioen batuketa aljebraiko bidez zehaztuko da.

**101. artikulua. Egiaztapen mugatuaren prozeduraren amaiera.**

Egiaztapen mugatuaren prozedura Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko 132.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita amaituko da.

## 8. ATALA.
## AITORPENAK AURKEZTEKO KONTROLEKO JARDUNAK.

**102. artikulua. Aitorpenak eta autolikidazioen aurkezpenaren gaineko kontrola.**

1. Zerga Administrazioari dagokio aitorpenak eta autolikidazioak aurkezteko betebeharra betetzen ari dela kontrolatzeko ardura hurrengo kasuetan:

   a) Zentsu egoerari jarraiki horretara behartuta daudenean.

   b) Zergadunaren beraren beste aitorpen edo autolikidazio batzuen aurkezpenaren ondotik agerian geratzen denean.

   c) Hirugarren pertsona batzuengandik etorrita Administrazioaren esku dagoen informaziotik eratorritakoa denean.

   d) Zergak aplikatzeko beste jardun edo prozedura batzuk aurrera egin ahala agerian geratzen denean.

2. 1.a) idatz-zatian aurreikusitako kasuan, Zerga Administrazioak zergadunari eskatu ahalko dio autolikidazioa edo sartu gabe geratu den aitorpena aurkez dezala, edo, bestela, kasuan kasuko aldarazpena edo zentsuko baja jakinaraz dezala.

3. 1.b) idatz-zatian aurreikusitako kasuan, Zerga Administrazioak uste izango du aitorpenaren edo autolikidazioaren aurkezpenean zati bat kanpoan geratu dela eta hori aurkeztea eskatu ahalko du, besteak beste, aitorpen edo autolikidazio bat aurkezteko betebeharra zergadunak berak konturako aitorpen edo autolikidazioen aurkezpenetik eratortzen denean edo informazioa emateko betebeharra betez exijitu ohi diren aitorpen aurkezpenak kanpoan utzi badira eta aldizka hari uztartutako aitorpen edo autolikidazioak aurkeztu direnean.

4. 1.c) idatz-zatian adierazitako kasuan, aitorpenak edo autolikidazioak aurkeztea kanpo utzi dela uste izango da eta horiek aurkeztea eskatu ahalko da.

   Zergadunak zehaztasun falta edo informazio hori gezurrezkoa izatea alegatzen duenean, hirugarrenari emandako informazioa berretsi dezala eskatu ahalko zaio.

5. Agindeiari jaramonik egiten ez zaion kasuan, edo, jaramonik eginda, zergadunak edo hirugarren batek aitortu edo autolikidatutako zenbatekoekiko desadostasunak erakusten dituen aitorpen edo autolikidazio bat aurkezten bada, zerga zorra ofizioz zenbatesteko, kudeatzeko edo ikuskatzeko prozedura hasi ahalko da.

6. Aitorpenak eta autolikidazioak aurkezteko kontrol prozedura jarraian adieraziko den moduetatik batera edo bestera amaituko da:

   a) Aitorpena edo autolikidazioa aurkeztearekin.

   b) Aurkezteko betebeharra betetzeari atxikitzen ez zaizkiela edo salbuetsita daudela bidezkotzeagatik. Inguruabar horren berri beren beregi jasoko da dilijentzian.

   c) Zerga zorra ofizioz zenbatesteko prozedura hasteagatik.

   d) Zergaduna bertan agertu gabe, kudeaketa prozedura, egiaztapen prozedura eta ikerketa edo erregularizaziokoa hasteagatik.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

### Lehenengoa. Urtarrilean aldizkako aitorpen eta autolikidazioak aurkezteko epea.

Urte natural bakoitzeko urtarrilean mugaeguneratzen diren aldizkako aitorpenak eta autolikidazioak aurkezteko eta ordaintzeko borondatezko epea hilabete horretako 31n amaituko da.

### Bigarrena. Ogasun publikoaren aurkako delituak egin direlako zantzuak.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2012ko urtarrilaren 24ko 5/2012 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikuskapenaren araudiaren 49. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa aplikatuko da ogasun publikoaren aurkako delituak egin direlako zantzuak erregelamendu honetan araututako zerga-kudeaketako prozeduretako bat izapidetzean agertu badira, betiere beharrezkoak diren egokitzapenak eginda prozeduraren arabera.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

### Bakarra. Izapidetzeko prozedurak.

Araudi hau indarrean jarri aurretik zergak aplikatzeko hasitako prozeduren kasuan, data hori baino lehen indarrean zegoen araudiari jarraiki araututo dira amaitzen diren arte.